

Zu hemen zaude.

goiena

AMAIA ANTZOKIA ITXITA, SABAIA JAUSI DELAKO

Arrasateko antzokiko egitaraua bertan behera geratu da —zinema, musika, antzerkia...—; sabaia bi zati jausi ziren joan den bariku gauean —bina tonakoak— / 10

Arrasateko Amaia antzokiko halleko sabaia, atzo, eguena. ENEKO AZURMENDI

"Harro sentitzen naiz herrikideek lurrikararen ostean izan duten jarrera ikusita"

ALI ARCHAHOUI MAROKOAR
JATORRIKO ESKORITZARRA / 6



Archahoui, Eskoriatzan, asteon. I.B.

SINADURAK



+

Urbiako ermita, artzainen 'katedrala', mendea betetzear

Oihana Murgiondo: gaixotasuna liburura eroanda

Hemen
garbiketak
Ura bezain garbia



T.- 943 71 48 45



Julen Murua Mesonero BERGARA

Martitzenean bete dira 25 urte sinatu zela Lizarra-Garazi akordioa. Mende laurdena pasa bada ere, oraindik ere euskal gizartean eta sinatzaileen artean bizirik jarraitzen du. Lehenengo pertsonan bizi izan zuten batzuek eta, gaur egungo perspektiba erabilita, orduko egoera nola bizi zuten azaldu dute Maite Aristegik –EHNE nekazarien sindikatuko idazkari nagusi ohia– eta Mikel Letek –Debagoieneko EAJren burkidea–.

"Ilusio handiko garaia"

"Ilusioa" da Aristegik eta Letek gehien errepikatzen duten hitza Lizarra-Garazi akordioa berriro ere haien buruetara itzultzean. Mugimendu eta aldaketa asko eragin zituen akordio hark, eta, ondorioz, "iritzi ezberdinak" sortu zituela adierazi du Aristegik –sinatze ekitaldian izan zen–. Orduko egoera ikusita, ELA eta LABekin elkarlanean jarduteko, EHNE sindikatuko kideek ere hausnarketa sakon bat egin behar izan zutela onartu du bergararrak: "Oso garrantzitsua izan zen. Estatuaren erreprezioak eta borroka armatuak ez gintuen inora eramaten, eta bazen garaia horri buelta eman eta gatazka hori elkarriketa bidez konpontzeko".

Letek "itxaropena eta konpromisoa" hitzak nabarmendu ditu orduko egoeraren deskribapena egiteko orduan, eta, garai hura, euskaldunek, ilusio handiarekin bizi izan zutela ere aitortu du: "Sentitzen nuen une historiko bat bizitzen ari ginela. Gogoan ditut herrietako Lizarra txikiak, Aberri Egun bateratua, mobilizazioa enpresetan, unibertsitateetan, kalean... Uste dut azken



Lizarran akordioa sinatu zeneko, duela 25 urte. Maite Aristegi, bigarren lerroan, eskumatik hirugarrena. JAGOBA MANTEROLA

25 urteren ostean Lizarra-Garazi gogoan

Lizarra-Garazi akordioaren garaiko egoera haien buruetara ekarri eta gaiaren gainean hausnartu dute Maite Aristegi –lekuko zuzena izan zen– eta Mikel Lete bergararrak; izan zenaren, gaur egun denaren eta etorkizunean izan daitekeenaren inguruan aritu dira

urteetako unerik ilusionagarrietako bat izan dela".

Elkarlanerako gogoia

Gatazka hura elkarriketa bidez amaitu nahi izatea "erabakigarria" izan zela dio Aristegik sindikatuen arteko elkarlana sustatzeko, bai-

"OSO GARRANTZITSUA ZEN GATAZKA ELKARRIZKETA BIDEZ KONPONTZEA"

MAITE ARISTEGI, EHNE-KO IDAZKARIA

na horietaz gain, beste hainbat eragilek ere parte hartu zutela aitortu du: "Euskal Herria aintzat hartzen genuen hainbat eta hainbat eragile bildu ginen hor. Gauzak aldatu nahi genituen, hautsitakoa konpondu nahi genuen. Azken finean, elkarrekin gauzak egiteko gogoia zegoen, behingoz, egoerari aurre egitekoa".

Nazioko kontuak herrian eragin

Espania osoan ahoz aho ibili zen akordioa, baina, hala ere, Euskal Herrian herri mailan garrantzia handia izan zuen.

Letek dio gogoan dituela Bergaran egin zituzten "bilera eta hitzaldiak", eta, gainera, "Batera presoan eskubideen aldeko plataforma" ere sortu zela bertan. "Biziki" gogoratzen ditu bergararrak une horiek. Gertatzen zen guztia "interes handiz" ja-

"GURE HELBURUA LORTZEKO BENETAKO AUKERA IKUSI GENUEN ORDUAN"

MIKEL LETE, DEBAGOIENKO EAJREN

rraitzen zutela dio, eta guztien arteko "parte-hartzea handia" zela aitortu du.

Faktore askorengatik huts

Ez zuen faktore bakarrak eragin Lizarra-Garaziko akordioa ezezean gelditzea. Izan ere, Aristegik zein Letek gaiaren inguruko ikuspuntu bat baino gehiago adierazi dute. Aristegik dio "EAJk hegemonia galtzeko beldurra" izan zezakeela, eta, berak orduan bizi zuenagatik, "lidergoa eta indarra galtzeko beldurra edo konfiantzarik ezak" eraman zuela "EAJ atzerapauso bat ematera".

Letek, ordea, ETARI egotzi dio akordioak aurrera ez egitea: "ETA izan zen akordioa zapuztu zuena. Guk oso garbi geneukan gatazka politikoa alderdi politikoei, sindikatuari eta gainontzeko erakundeek zegokigula. Ez ETARI. ETAK akordioaren prozesuan parte hartu eta baldintzatu nahi izan zuen, zuzendu eta agindu. Une batean, ETAK, bere erritmoa markatu nahian, EAJri mehatxatu zion esanez Euskadi osoan, Nafarroa barne, erreferendum bat egiten ez bazen, su-etenarekin amaituko zuela. Gure erantzuna ezetza izan zen eta ETAK su-etenarekin amaitu zuen".

Etorkizunarekiko baikor

"Gatazka politikoari heltzeko oinarritzko akordioa ezinbestekoa" dela uste du Letek, eta, hori dela-eta, "baikorra" izan nahi du. Aristegik ideia berbera du, baina, horretarako, "indar alderdikoak alde batera uztea" ezinbestekoa dela uste du. Momentu honetan "oso zaila" dela uste badu ere, aitortu du bidea hori izango dela "lehenago edo beranduago", eta "lehenbailehen izatea" nahiko lukeela.



MIGUEL ALTUNA
Lanbide Heziketa

ESPEZIALIZA ZAITEZ!

Lan kontratu bidez sektoreko enpresa liderretan lan egiteko aukerarekin

Ikasturte bakarrean (2023/09/18tik 2024/05/31ra) eta DUAL formatuan

PLAZAK LIBRE!

- + Adimen artifiziala & Big Data
- + Forjaketa Prozesuen Diseinua & Ekoizpena
- + Fabrikazio Adimenduna



INFORMA ZAITEZ: info@maltuna.eus 943 899 270 · 943 899 271

Urkullu, Aita Mennin eta San Juan de Diosen

Urte hauetan guztietan zehar Aita Menni eta San Juan de Dios ospitaleetan osasun mentalarekin izan duten erantzukizuna nabarmendu zuten Iñigo Urkulluk eta Gotzone Sagarduik astelehenean ospitaleen 125. urteurrenean egin zuten bisitan

Julen Murua Mesonero ARRASATE
Lehendakariak, Iñigo Urkulluk, Aita Menni eta San Juan de Dios ospitaleak bisitatu zituen astelehenean. Urkullurekin batera, Gotzone Sagardui Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua ere izan zen bertan. Aita Menni eta San Juan de Dios ospitaleek 125 urte bete dituzte eta hori dela-eta gerturatu ziren Lehendakaria eta Osasun sailburua ospitaleetara.

Anai Jose Maria Chavarrik, San Juan de Dios Ospitaleko nagusiak, Arreba Isabel Gastonek, Aita Menni Ospitaleko nagusiak eta Mikel Tallaechekek, Ospitaleko zuzendariak egin



Iñigo Urkullu lehendakaria, ospitaleen 125. urteurreneko ekitaldian.

ziren harrera bertara hurreratu ziren bisitariari. Azken honek eskertu nahi izan ziren lehendakariari eta Osasun sailburuari "urteurren honetan izan duten hurbiltasuna, konpromisoa eta babesa; eta, era berean, bi erakundeek osasun mentalean egiten dugun lana aitortu izatea".

Gobernuaren ardatz

Lehendakariak goraiatu nahi izan zuen bai Aita Mennik baita San Juan de Diosen osasun mentalaren baitan egiten duten lana: "Aitzindariak izan zineten pertsona ahulentzat zerbitzuak sortzen, erakunde publikoek gure erantzukizuna hartu baino hamarkada batzuk lehenago. Eta erantzukizuna hartu genuenean, bidelagun bihurtu ginen, indarrak batuz". Gainera, adierazi zuen gai honek "berebiziko garrantzia" duela haren gobernuarentzat eta "gizarteak duen behar nagusi bat" dela.

Horretaz gain, ziurtatu zuen "Eusko Jaurlaritzak osasun mentalarekin lotutako zerbitzuak bermatzen, hobetzen eta eguneratzen jarraituko duela, gizarteak duen premiari erantzuteko".

Energia trantsizioaren inguruko saioa D2030en eskutik

Hilaren 21ean izango da Debagoiena 2030 Garapen Iraunkorrerako Sareak antolatutako saio irekia. Saioan trantsizio energetikoaren inguruan jardungo dute.

Ekimenak antolatutako saioa Bergarako Irizar jauregian izango da, 09:30ean hasi eta 12:30ak arte iraungo du. Saioan jorratuko diren gaiak hurrengoak izango dira: Debagoiena 2030 eta Eraginez Piztu estrategia, Debagoieneko diagnostiko energetikoaren emaitza eta analisia eta Eskualdeko erronka energetikoari erantzuteko aukerak.

Saio irekian parte hartzeko izen-emate epea irekita egongo da hilaren 18a arte Debagoiena 2030 ekimenaren webgunean – *Debagoiena2030.eus*–. Bertan azaltzen da izena emateko bete beharreko inprimakia. "Herritar eta erakunde oro saioan parte hartzera gonbidatu" nahi du D2030 ekimenak. Inork behar izanez gero, itzulpen zerbitzua ere egongo da eskuragarri.

**GARAJE LIBREAK
SALGAI**



Neinor HOMES

SAN ANDRES HOMES
• ARRASATE •

EZOHIKOA

ZURE - ZUREA

Bizimodua aldatzeko etxebizitza
estilo berri bat iritsi da

**GUSTATZEN ZAIZUNA
ALDATU GABE**

Bizikleta-aparkalekuak • Jolasguneak
Gourmet aretoa • Gimnasioa

900 11 00 22 • neinorhomes.com

Sortuk Arrasaten egingo du VI. Nazio Konferentzia

Irailaren 23rako iragarri dute "helburuak berretsi" eta "ziklo politiko berrirako indarrak biltzea" xede duen nazio ekitaldia. Goizez konferentzia egingo dute Uarkape frontoian eta 17:30erako iragarri dute ekitaldi politikoa Monterronen

T. Madina / L. Zeberio ARRASATE

Hilaren 27an beteko dira 48 urte *Txiki* eta *Otaegi* fusilatu zituztela eta urteurrenaren harira deitu ditu Sortuk Arrasateko ekitaldiak. "Ezker abertzaleko militanteak, *Txiki* eta *Otaegi* bezala, haien aurrekoak eta ondorengoak, Euskal Herria irau-narazteko, biziarazteko engaia-tuak gara beti", azaldu du ekitaldien berri emateko agerraldian Sorturen Ekintza Politikoaren arduradun Kizkitza Gilek.

Helburuak berretsi eta ziklo politiko berrirako indarrak biltzea dira VI. Nazio Konferentziaren helburu nagusiak. "Harmakada bat pasatu da euskal



Ekitaldiak aurkezteko agerraldia, Ruizen eta Aurrekoetxearen artelanekin. SORTU

independentismoak, jendartearen nahiarekin bat eginez, gatazka politikoa konpontzeko aro berri bati ekiteko erabakia hartu zuela. Sortu Euskal Herriaren askapen nazional eta sozialaren aldeko ibilbidea jaso eta ziklo berrirako egokitzeko ahalegin etengabea ari da. Konbentzita gaude ziklo berriak iruditegi berriak, sinbolo berriak eta kontakizun berriak behar dituela, iragana alboratu gabe".

Erronka "handiak"

Sortuko kideek Uarkapen eman-ga diote hasiera VI. Nazio Konferentziari. Erronka berriei nola aurre egin eztabaidatzeko eta plan politikoa erabakitzeke saioa izango da. "Maiatzaren 28ko eta uztailaren 23ko hauteskunderen ondoren, Hego Euskal Herrian ziklo politiko berri bat abiatzeko aukera parez pare irekita dugu. Espainiar estatuak eta 78ko erregimenak nazio zapalduokin duen gatazka politikoa konpondu gabe jarraitzen du. Aldiz, hauteskunderen ondoren osatu den gehiengo ezkerreko eta independentistak, horren konponbidean urratsak egiteko

aukera zabaltzen du. Ipar Euskal Herrian, berriz, abertzaletasunak hartu duen indarrak eta zentralitateak, euskal lurraldearen aitortzan zein eskubide sozialen aitortzan, agertoki berriak eskuratzeko aukera zabaltzen du parez pare". Sortuko ordezkariak ziurtatu dute independentziarako indarra biltzen segitzeko anbizioarekin begiratzen diotela alderdian, urte berriari zein datozen urteei. "Erronka handiak ditu gure herriak. Horiei aurre egiteko errezetak betikoa izaten segitzen du: nazio bulkada sendo bat bultzatzea, herri aktibazioa, indar metaketa eta estrategia argia. Ziklo berriak ez direlako berez etortzen, eragin egin behar dira", esan du Sorturen Nafarroako arduradun politikoa Lur Albizuk.

Kartelean, gaua eta ilargia

Nora Aurrekoetxea eta Laura Ruiz artistek sinatzen dute aurtengo kartela, eta gaua hartu dute erreferentzia gisa; gaua eta ilargia. "Ilargiak zikloak ditu, borrorak bezala, gorabeheratsuak, baina etengabe berritzen direnak".

Tokiko telebisten ibilbidea aitortu dute FestVal jaialdian

Tokikom Taldeak jaso du EITB Saria prestigiozko telebista jaialdiak Gasteizen egindako itxiera galan

Larraitz Zeberio Lekuona ARRASATE

Tokikomereko zuzendari Alaitz Artolazabalek eta presidente Iban Arantzabalek jaso zuten saria zazpi eguneko jaialdiari amaiera emateko Gasteizko Principal Antzokian egindako galan. "Eskerririk asko EITBri toki komunikabideek elkarrekin eta euskaraz egin duten ibilbidea aitortzeagatik. Segi dezagun beste hainbeste urtez elkarrekin bidea egiten", esan zuen Artolazabalek ekitaldian. "Sinisten dugu elkarlanean eta jarraitu beharko dugu; izan ere, gainerako hizkuntzek ez digute erraz emango lekutxo bat. Hartu egin beharko dugu. Zero kilometroko komunikazioak badu zentzua. Uste dut urte luzetarako lana dugula eta etorkizun oparoa", gaineratu zuen Arantzabalek.

FesTVal jaialdia 2009. urtean jaio zen. Urtero egiten den tele-



Tokikomen ordezkariak galan. FESTVAL

bista jaialdi eta sariketa entzutsua da eta sektorerako erreferente hemen eta Espainian. Telebistako izarrez beteta egon da. Galako beste sarituen artean izan dira, esaterako, Jose Mota, Carlos Sobera, Sonsoles Onega edo David Broncano.

DEBAGOIENEN

PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
blasaga@icagi.net

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE
Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA
Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE
Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

Elkartasunaren alde pausoa emateko aukera

Mundukidek antolatuta, zortzigarrenez egingo dute lasterketa solidarioa, datorren urriaren 22an. Beste urtebetetz, 'Eman Pausoa' lelopean, korrika, oinez edo Nordic Walking eginez, solidaritatearen alde egiteko aukera egongo da Urkuluko lasterketan

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Zortzigarren aldiz Urkuluko urtegia eta inguruak solidaritatez beteko dira datorren urriaren 22an, Mundukidek antolatu duen lasterketa solidarioari esker. Gainera, ekitaldi honek, Pobrezia Desagerrarazteko Nazioarteko Astearekin bat egingo du. Ekitaldiaren bidez batutako dirua Afrikan eta Hego Amerikan Mundukidek egiten dituen lankidetzaprogrametan inbertituko da. Hain zuzen, hau delako lasterketa egitearen helburu nagusia. "Proiektu hauei babesa ematean, jende askori laguntzen ari gara eta honek esan gura du denon inplikazioa beharrezkoa dela, kooperatibena izan edo herritarrena izan. Modu honetara guk proiektuekin aurrera jarraituko dugu" dio Urri Urizar Mundukide Fundazioko kideak.

Hiru modalitate

Parte hartu nahi duenarentzat izen ematea jada zabalik dago www.mundukide.org webgunean, 10 euroko prezioan. Iaz egin bezala, aurten ere hiru modalitateetan parte hartu ahalko da: oinez, korrika edo Nordic Walking eginez. Dena dela, korrika hiruko taldeetan egingo da eta kooperatiba baten parte izan beharko dira parte hartzaileak; gainontzean, oinez eta Nordic Walking egiteko aukera herritar guztiek izango dute. Talde lasterketa, goizeko 11:00etan hasiko da; oinezkoena eta Nordic Walking, berriz, ordu erdi lehenago. "Jendeak pausoa nahi duen modura emateko aukera izango du, baina garrantzitsuena pau-

HIRU MODALITATEAN PARTE HARTU AHALKO DA: OINEZ, KORRIKA EDO NORDIC WALKING EGINEZ

so hori ematea da, baita horrelako ekintzetan geroz eta inplikazio gehiago izatea" adierazi du Urizarrek.

Nagusiek ez ezik etxeko txikienek ere izango dute parte hartzeko aukera gaztetxoentzako lasterketan. Bigarren urtez egingo dute eta publiko guztiari zabalik dago; gainera, hauek ez dute ordaindu beharrik izango.

Babesleen garrantzia

Horrelako lasterketatan babesleena ere ezinbestekoa izaten da. Aurten, Athlon, Fagor Elektronika eta Krean izango dira kooperatiba babesle nagusiak. Bakoitzak ahal duen neurrian, euren aletxoak jartzen dute egun borobila izan dadin. Batzuk parte hartzearen bitartez laguntzen diote lasterketa solidarioari, Fagor Elektronikak eta Kreaneko kideak bezala, Mundukideren lana "kooperatibaren izaeraren parte handia" delako eta beste kooperatiba batzuekin "elkarlanean" egun berezi bat bizitzeko aukera ematen duelako. Athlonen kasuan, korrika egiteaz gain, arlo teknikoan ere laguntza eskaintzen dute lasterketa antolatzerako garaian, urte gutxiren buruan gauza berriak sartu dituztelako. "Hasieran oinez bakarrik zen eta orain korrika eta Nordic Walking ere sartu dute. Hauek antolatzen laguntzea garrantzitsua da" dio Judith Eraña Athloneko kideak.

Nobedadeak edizio berrian

Urtetik urtera berritasunak sartzen saiatzen dira lasterketa solidarioaren baitan eta aurten esanguratsua da kamisetarik ez dela banatuko. Honen arrazoiak da ekoiztutako kamiseta horiek, ehungintzan eta ingurumenen izan ditzakeen eraginak saihestea. "Beste lasterketa batzuetan egin bezala, geu ere kamisetak banatzen hasi ginen. Ondoren konturatu ginen kooperatibako

kideak euren kamisetekin etortzen zirela; beraz, aurten kamisetarik ez egitea erabaki dugu, ingurumenari keinu bat eginez" adierazi du Urri Urizarrek.

Beste berritasuna parte hartzean egongo da, Domusa Teknik Lana taldeak ere bere aletxoak jarri duelako aurtengo lasterketan. Trail talde honetan



Lasterketaren aurkezpeneko irudia. GOIENA

debagoiendarrak ere badira; tartean, besteak beste, Ainara Urrutia eta Aitor Ajuria. Hain zuzen Aujirak, nahiz eta orain min hartuta egon, lasterketan

parte hartzeko asmoa agertu du: "Ainara ere bertakoa da eta lasterketa honetara etortzeko taldetxoa osatzea polita litzake".



LANERAKO FORMAZIOA

LEHENTASUNA: PERTSONA LANGILEEK				
IKASTAROA				
IKASTARDEN IZENAK			ORDUAK	DATAK
MF1268_3	UF1128	BILTEGI RATZE MEKANIKOAREN KONTROLA	60	2023/09/25-2023/10/30
	UF1129	MEKANIZAZIO PROZESUEN KOSTUAK	40	2023/10/31-2023/11/22
ORGA. JASOTZAILEEN ERABILERA			10	2023/09/25-2023/09/27

LEHENTASUNA: PERTSONA LANGABEEK				
IKASTAROA				
IKASTARDEN IZENAK			ORDUAK	DATAK
BILTEGI KUDEAKETA			415	2023/11/23-2024/04/18
INDUSTRIA 4.0RA BIDERATUTAKO GAITASUN DIGITALAK			20	2023/10/02-2023/10/12
			20	2023/10/16-2023/10/26
			20	2023/11/06-2023/11/16

Informazioa eta izena ematea:
 Agirrebidea,2 - 20570 Bergara (Gipuzkoa) Tel.: 943 89 92 72 – 688 81 50 70 - ikastaroak@maltuna.eus

Finantzatzaileak:















"Familia osoa galdu duten pertsonak daude"

ALI ARCHAOUI ESKORIATZAN BIZI DEN MAROKOARRA

Bere herrialdean gertatzen ari dena gertutik jarraitzen ari da eta zorionez ez du egoera larririk bizi behar izan. Dena dela, egoera oso gogorra dela aitortzen du

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Ali Archoui (Tinghir, Maroko, 1967) Eskoriatzan bizi da azken 9 urteotan. Azken egunetan bere herrialdean pasatzen ari dena gertutik jarraitzen ari da, eta, zorionez bere familiako inork ez du egoera larririk jasan izan behar. Dena dela, egoera "oso gogorra" izaten ari dela aitortzen du, eta, ahal duen moduan "laguntzen" ari dela dio.

Nola gogoratzen duzu lurrikararen berri izan zenuen une hori?

Oso egoera zaila izan zen. Telebista piztu nuen eta ikaragarria izan zen. Berehala deika hasi nintzen, nire anaiari eta ilobari ere bai. Etxetik kanpo zeudela eta kalean lo egin zutela esan zidaten. Ilobak, berriz, beldur askorekin zeudela esan zidan. Ondoren informazioa iristen hasi zen, jendea hiltzen ari zela, janaririk ez zegoela... Lehen egun horretan, ikara handia hartu genuen denok.

Nolako erreakzioa izan zenuen?

Ez nintzen gauza izan lanera joateko, oso minduta nengoen. Informazioa gutxika iristen hasi zen eta ikaragarria izan zen. Gainera, nondik etorri garen pentsatzen hasten zara eta badakit bertan zegoen jendea gaizki pasatzen ari zela. Mendian bizi direnengana iristea oso zaila da, jendeak laguntzea nahi du, baina, ezinezkoa da. Era berean, zortea izan dugu jendeak lan asko egin duelako egun hauetan. Ez dut inoiz horrelakorik ikusi nire herrialdean; poztu egiten nau erreakzio hori ikusteak. Beharrezko janaria iritsi da

"POZTU NAU IKUSTEAK NIRE HERRIKIDEEK EGOERAREKIKO IZAN DUTEN ERREAKZIOA"



Ali Archahoui Eskoriatzako plazan. IÑIGO BARRENA

eta orain lo egiteko dendak falta dituzte soilik.

Ze pasatzen zaizu burutik irudiak ikusita eta datuak irakurrita?

Batez ere, nola den posible hori guri gertatzea. Badakit jendea nola dagoen eta ulertzen dut oso

gaizki daudela. Familia dena galdu duen pertsonak daude. Ikusi dut nola hiru ahizpa bizi-rik irten diren, baina gurasoak galdu dituztela, hori ikusteak min asko ematen dit. Nik, alde horretatik, zortea izan dut, nire


familiako inor ez dut galdu, eta, era berean, gertukoak diren edo ezagunak direnek ere ez dute gertaera larririk jasan, zorionez. **Eta Marokok nolako erantzuna izan du horrelako egoeraren aurrean?** Herrialde gehiagok ere bizi izan dituzte horrelako egoerak, baina Marokon egon den elkartasun maila ez dut inon ikusi. Mundu guztia laguntzeko prest dago, kalera irten, janaria eta arropa erosi, eta, ondoren behar dutenei banatuz. Gainera hau egiten ari direnak erdi-mailako herritarrek eta behar gehien duten pertsonak dira. Ez dut ikusi goi-kargurik zuzenean herritarrei laguntzen.

Nola ari zara laguntzen hemendik?

Laguntza behar dutenei deitzen ari naiz, behar dutenean, janaria, arropak edo dirua hemendik bidaliz. Bakoitzak ahal duen moduan laguntzen du. Gainera, jendearen sinismena ere laguntza izaten ari da. Sinisten dutenek diote, jainkoak herria horrela ikustea nahi izan duela eta horrelako gertakari baten aurrean lasai ageri dira, ezer gutxi egin dezaketelako.

Zer da orain Marokon egin beharrekoa?

Orain beste borroka bat hasten da. Berriz ere herrialdea erakitzea tokatzen da. Lurrikareei aurre egiteko etxebizitzak eta azpiegiturak eraiki beharra dago lehenbailehen, jendeak etxebizitzak berreskuratu eta lo egiteko tokia izan dezan.



Primeran plataformaren irudi bat. GOIENA

Primeran euskarazko plataforma berria heldu da

Euskarazko edukiak jasoko dituen streaming plataforma, gaurtik aurrera eskuragarri

I.B.K. DEBAGOIENA

Mundura zabalik dagoen euskal leihodigitalek berria izateko helburuarekin jaio da Primeran doako plataforma eta gaurtik aurrera egongo da eskuragarri. Askotariko euskarazko edukiak jasoko ditu: pelikulak, serieak, kontzertuak, haurrentzako edukia... Horien artean Goienako eta Tokikom tokiko komunikabideetako zenbait ikus-entzuzko ere izango dute tokia. Telebistan, Smart TV ezagunetan, eskuko telefonoan eta tabletan, Google Play eta iOS gailuetako aplikazioen atalean primeran hitza bilatuta; eta primeran.eus webgunean. Doako zerbitzu berria nonahi eta noiznahi ikusteko prestatu da eta 3.000 atal baino gehiago eskainiko dira bertan. Ia guztiak euskaraz eta gutxi batzuk euskarazko azpidatziekin. Euskal produkzioko eta nazioarteko telesailak, zinea, dokumentalak, kirolak, sukaldaritza, musika eta haurrentzako edukiak eskainiko dira, baita Primeran plataformarako sortutako eduki eksklusiboak ere. Tokikom tokiko komunikabideen elkartearen edukiekin ere abiatuko du ibilbidea plataformak; beraz, Goienako eduki batzuk ere Primeran plataforman egongo dira.

"Bertakoen laguntzak harritu gaitu"

Oñatiko lagun talde bat Marokon zen oporretan lurrikara izan zenean. Gertaeraren unean hotelaren goialdean zeuden lasai, bat-batean lurrikara hasi zen arte. "Lurra dardarka hasi zen, tren bat azpitik pasatzen ari bazen bezala, baina, halako batean, hormak ere mugitzen hasi ziren. Lagun bat Txilen izan dugu eta berak esan zigun gertatzen ari zena lurrikara bat zela" dio Leire Igarzabalek.

Mahai azpian sartu eta ikara pasatu ostean, herriko plazara atera ziren mundu guztiarekin batera. Bertan, jendearen laguntasuna handia izan zela azpimarratzen dute: "Bertako jendea eta behar gehien zutenak



Oñatiko lagun kuadrilla Gargantas de Todra inguruetan. LEIRE ZELAIA

ikusi genituen laguntza ematen".

Hiru orduz egon ziren herriko plazan eta, gainera, lurrikara gehiago egoteko arriskua ere bazegoela esan zieten. Azken

aurreko eguna zuten bertan eta hurrengo egunean itzuli ziren etxera. "Behin hegazkina hartu eta etxera iritsitakoan lasaitu gara batez ere" dio Leire Zelaia.



Iratí Mujika Larreta, Ibai Ormaetxea Lasaga eta Ruben Markina Ostolaza dira Arbel Kooperatibako langileak.



Arbel Kooperatibak mantentze-lanak ere eskaintzen ditu.

Berrogei urte lehen sektorea bultzatuz

Aramaioko Arbel Kooperatiba duela 40 urte sortu zen, lehen sektoreko gabeziak konpontzeko. Lau hamarkada igarota, produktu eta zerbitzu eskaintza zabalak ditu eta, gainera, Debagoieneko baserrietara eta etxeetara banatzeko zerbitzu propioa du

Arbel Kooperatiba duela 40 urte sortu zen Aramaioko baserri-tarren artean. Hasiera batean, animalien pentsua bertan ekoizteko, gabezia handia zegoelako garai horietan sektorean. 2016. urteko udaberrian produktu eskaintza zabaltzearen aldeko apustua egin zuten, eta, era berean, nekazaritza-denda indarra hartzen joan da azken urteetan;

gaur egun, hiru langilek osatzen dute Arbel Kooperatibaren lantaldea.

Produktu eta zerbitzu eskaintza
Produktu eskaintza zabaltzearen aldeko apustua egin denetik, gorakada nabarmena izan dute eta orain bestelako zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu kooperatibak. Nekazaritza-denda as-

telehenetik ostiralera egoten da zabalik eta honakoak dira bertan aurki ditzakegun arlo nagusiak: animalientzako produktuak, orturako produktuak, burdindegia, lanerako arropa eta oinetakoak, eta, etxerako hornidura. Gainera, produktu hauek baserrietara zein etxeetara banatzeko banaketa zerbitzu propioa eskaintzen du Arbelek. Horretaz

gain, makinak alokatzeko aukera ere badago Arbel Kooperatibaren eskutik eta honako makina hauek alokatu daitezke: su-egurra zatitzeko makinak, sasi-mozketarako makina, inausketa artazi automatikoa edo haize-makina, besteak beste. Eta, hau dena gutxi balitz, landa eremuko mantentze lanak ere eskaintzen ditu, esaterako, inausketa zerbitzua, sasi-mozketa edo ortuko lanak.

Lehen sektorearekiko apustua
Begirada berrogei urte atzera botaz gero, gauzak asko aldatu direla esan daiteke, baina Arbel Kooperatiban gaur eguneko beharretara moldatzen jakin dutela azpimarratzen dute: "Lehen sektorea eta baserri mundua azken urteetan asko aldatu diren arren, ez gara atzean gelditu, eta hori, eskaintzen di-

tugun produktuen bilakaeran argi ikus daiteke adibidez: ortu ekologikorako produktuak, animaliak intsektu eta parasitoengandik babesteko produktu naturalak, besteak beste.

Era beran, sasoi bakoitzean datozen lanetarako materiala prest izaten dute: orain kontserbagintzarako ontziak, botilak, tapak...; udazkenean, txorizoak egiteko behar diren gaiak eta negurako fruta-arbolak. Nola ez, hau guztia, zuzeneko arretaren bitartez, zein sare sozial eta komunikazio tresna berrien bitartez.

DEBAGOIENKO BASERRIETARA ZEIN ETXEETARA, ASTERO BANATZEKO ZERBITZU PROPIOA DUTE



**BASERRIRAKO,
ANIMALIENTZAKO ETA
ORTURAKO BEHAR
DUZUN GUZTIA**



WWW.ARBEL.EUS - 656789589 ERROTABARRI 1 - ARAMAIO





ZABALIK

IBAN PEREZ HERNANDEZ

Udazken berriko aukerak

Badator beste udazken bat, horrek esan nahi duen guztiarekin. Nabari da, batez ere, eguraldian, egunetan eguzkia geroz eta gutxiago ikusten dugulako eta gure inguruko bizitzan ohiko errutinak ikasturte berriarekin hasi direlako martxan.

Bi era egon ohi dira egoera hori bizitzeko: baxoiarekin egon eta ilun ikusi ingurua edo poztasunarekin hartu –badakit tarteko egoerak ere egon daitezkeela, baina txoko honek ez dit gehiago uzten lantzen gogoeta hau–; agian, hurrengo zutabe baterako hartu beharko dut lanketa gogoeta egiteko bizitzan askotan muturreko egoeren artean tarteko milaka egoera egon daitezkeela. Ikusten duzun bezala, neu ere ikasturte berrirako prestatzen ari naiz txoko honetan.

Lerro hauek idazten ditudanerako jada bizi ditugu ohiko eskolara itzulera, lanera itzulera, kirolen denboraldi hasiera –futbolarena izan ezik; kirol hori denboraldi amaigabe batean murgilduta bizi da: Munduko Txapelketa, Superkopa,

HOR DITUGU AUKERAK, GURE DENBORA BETETZEKO BALIO DIGUTEN GAUZEKIN

Liga, Kluben Munduko Txapelketa, Errekopa...–, hamaika bilduma amaigaberen hasiera kioskoetan gure denbora librea betetzeko...

Eta bihar ez dakigu zer gertatu ahal zaigun, baina


hor ditugu aukerak, bai aurre egiteko garaian eta, aipatu dudan bezala, gure denbora betetzeko balio diguten gauzekin.

Neu, momentuz, uda amaiera honetan asko disfrutatut dut Vueltak eskaini digun kapitulu zein baino zein harriagoekin: ilunpeetan lehiatzea, kirolariak araudia moldatzea beraien nahierara, garaipen osteko eroriko xelebreak, *Landismoa* gora eta behera ibili gara ia egunero... Askok eman didate lagunekin izandako solasaldiek. Ea udazkenean hainbeste beteko nauen zerbait aurkitzen dudan.

Hortaz, saiatuko gara poztasunarekin aurre egiten egoera berri honi.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Kalakan edo kantuz

BLANCA URGELL

'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://LABUR.EUS/RN7QC](https://labur.eus/rn7qc)

Buruz gogoratzen ari naiz azala. Ni bulegoan nago, eta liburua mesanotxean: Rebeca Wragg Sykes-en *Neandertales* (2020), gaztelaniazko itzulpenean. Mesanotxean dago joan den ikasturtean irakurtzen hasi eta abandonatu nituen liburuen artean. Ez da txarra, ez. Guztiz kontrara: pozik ari nintzen harria lantzeko teknologien atalera heldu arte.

Ez dakit zer behar den: ingeniariaren garuna edota harriari bizi den eskultura sumatzeko gaitasuna. Edo buru

deskantsatu bat, besterik gabe. Ezin bururaturik aritu nintzen harri zatien lanketa nola planifikatzen zuten neandertalek.

Alta, zoragarria zen jakitea kolpe batez harria juxtu nondik hautsi antzemanik –ttak–, behar zituzten hamaika tresna ateratzen zekitelako, aizkoraren ahotik hasi eta mikrolitoetaraino. Honetan aditu itzelak zirela neandertalak.

Bada, hori duela 300.000 urtetik duela 40.000 urtera-edo izan bazen, zer pentsatu handia ematen du Etiopiako Melka Kunture indusketan agertu berri den duela 1,2 milioi urteko, hots, Acheul aldiko obsidianazko aurpegi

biko aizkoren tailerrak, aurreko ezagunari 900.000 bat urte kentzen dizkionak. [...]

Neandertalek giza hizkuntza batez –edo batzuek– mintzo zirela uste dute adituek, pentsamendu sinbolikoa islatzen duen labar artean oinarriturik, besteak beste. Ez dago frogarik, baina ezta duda askorik ere. *The Guardian* egunkarian irakurri dut teoria berri baten arabera *Homo erectus* itsasontziak egiteko gai ere izan zela. Melka Kuntureko goi-ordokian bizi ziren hominido haiek kalakan irudikatzen ditut lanean. [...]

Kantuz eginez geroz munduian sortzia, / Kantuz egin behar dut, ontsalaz, hiltzia.

goiena[“]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 18.500 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldiakari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Bakterioak geroz eta erresistenteagoak dira"

BEGO ZUBIA GALLASTEGI 'ERRESISTENTE' DOKUMENTALAREN ZUZENDARIA

Julen Murua Mesonero ARRASATE Bego Zubia Gallastegi (Arrasate, 1965) zuzendu du Elhuyar Zientzia Elkarteak argitaratu duen azken dokumentala. *Erresistente* du izena eta antibiotikoekiko erresistente bihurtu diren bakterioen arazoa gizarteratu du ikertzaile, mediku edo egoera hori bizi izan duten pertsonen testigantzen bitartez.

Noizik izan duzu buruan gai honen inguruko dokumentala egitea?

Elhuyarren, besteak beste, *Teknopolis* saioa egiten dugu EITBrako, eta pandemiaren aurretik eskaini genion saio oso bat bakterio erresistenteen arazoari. Pentsatu genuen gaia oso interesgarria zela eta aukera ematen zuela lan sakonago bat egiteko. Horretan hasi ginen, baina pandemia iritsi zen. Pandemiaren ondoren proiektuari ekin genion berriro eta, diru-laguntza batzuk jaso ondoren, horretan



Bego Zubia Gallastegi. ELHUYAR

lanean aritu gara azkenengo bizpahiru urteetan.

Egunerokotasunean garrantzi berezirik ematen ez diogun kontua izan daiteke.

Lan honekin hasi nintzenean konturatu nintzen umeak

ginenean jasotzen genituen mezuek –eskuak garbitzeko, zauriak ondo garbitzeko...– zelako garrantzia zuten. Eskuak edo zauriak garbitzen baditugu, gaixotasunak sortu ditzaketen patogenoak kendu

egiten ditugu. Gainera, gaur egun erresistentziaren arazoa geroz eta hedatuago dago. Ziurrenik guztiok ezagutuko dugu infekzio bat izan eta osatzea asko kostatu zaion norbait. Da egoera bat geroz eta sarriago gertatzen dena eta agian ez dugu ulertzen zer den atzean gertatzen dena.

Zein da dokumentalaren helburu nagusia?

Zientzia dibulgazioan lan egiten dugu pentsatzen dugulako zientziari buruzko informazioa ezinbestekoa dela egunerokotasunean hartzen ditugun milaka erabaki, informatuta eta kontzienteki hartzeko. Egoera hau ere berdina da. Pertsonok gure ingurumenarekin interakzioa dugu eta ingurumen horretan bakterioak daude. Nahi dugu haiekin daukagun harremana kontzienteagoa izatea eta hartzen ditugun erabakiak kontzienteki hartzea. Helburua da ezagutzera ematea gizaratean dagoen arazo bat.

Nola eragin dezake dokumental honek gizaratean?

Gure helburu nagusia da ahalik eta jende gehienari iristea. Azaltzen dugu, hizkuntza arrunta erabiliz, mundu osoan gertatzen den fenomeno bat: antibiotikoen aurrean bakterioak geroz eta

erresistentzia handiagoa garatzen ari direla. Hori gertatzen ari da bere garaian antibiotiko gehiegi erabili zelako. Orain horren ondorioak jasaten ari gara. Egia da aspaldi jabetu zirela arazoaz honetan jarduten dutenak, eta gaur egun denok entzuten dugu antibiotikoekin neurriak hartu behar ditugula.

Horrelako egoera bat bizi izan dutenen testigantzak jasotzeak dokumentalak erakutsi nahi duenaren indarra handitzen du.

Gurekin parte hartu du Zarauzko ingeniari gazte batek. Etxean zauri arin bat egin zuen, garbitu egin zuen eta paperezko puntuak jarri zizkioten. Momentu horretan infektatu egin zitzaion eta osatzea lortu zuen, baina gorriak ikusita. Pertsona horri bere bizipenak zeintzuk izan diren entzutean pentsatzen dugu, "hau serioa da". Garbi utzi nahiko nuke bakterioak ez direla txarrak, guk bizirauteko ezinbesteko funtzioak betetzen dituzte; besteak beste, digestioa egiten laguntzen digute. Informazio hori ere jakin behar dugu; batzuek bizitzan laguntzen diguten bezala, beste batzuek gaixotasunak sortzen dizkigute, eta horien aurrean kontuz ibili behar dugu.



Realaren eta Getaferen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Getafe norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko *premium* gunetik.

Partida irailaren 24an, domeka, 14:00etan.

Parte hartzeko azken eguna: irailaren 17a

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak etalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzu!

goiena^{''} kide

Okm: batzen gaituen distantzia



Antzokiko halleko sabaian sei plaka daude eta horietako bi erori dira. Bakoitzak bi tona pisatzen zituen. E.A.B.



Antzokiko paretetan hezetasun handia dago ekainaz geroztik. E.A.B.

Hormak, hezetasunak janda

Ekainaz geroztik, antzokiaren paretetan hezetasun handia dago eta horiek ere, ia seguru, konponketa beharko dute. Halaber, antzezlekuan bertan, atzeko aldean eta koadro elektrikoetan ere esku-hartzeak egin beharko dituztela aurreikusten dute.

Amaia antzokia itxita eta egitaraua bertan behera

Halleko sabaia zati bat erori egin da eta, udal gobernuak adierazi duenez, epe motzean, gutxienez, itxita egongo da antzokia. Hala, programatutako egitaraua bertan behera geratuko da, oraingoz. Teknikariak aztertzen ari dira zergatik erori den sabaia

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Amaia antzokiko egitaraua bertan behera geratuko da, gutxienez, epe laburrean. Izan ere, joan den egubakoitzean halleko sabaia zati bat erori egin zen eta, ondorioz, antzokia itxita dago gaur-gaurkoz. "Zoritzarrez, kalte handia da, baina, zorionez, gauez izan da eta inor ez du azpian harrapatu", azaldu du

Kepa Urteagak, Auzoak eta Obrak, Zerbitzuak eta Mantenuak saileko zinegotziak.

Halaber, ez daukate garbi sabaia zeren ondorioz erori den. "Aztertzen ari gara euriak eragindako kaltea izan den edo estrukturala ote den".

Udal gobernuak txosten bat eskatuta du, antzokian dauden kalte guztien azterketa orokor

bat jasoko duena. Txosten hori hilabete inguruko epean jasoko du gobernuak eta horren arabera izango dira hurrengo urratsak. "Ikusiko dugu antzokia epe motzean irekitzeko moduan izango garen ala epe oso luzerako kontua izango den. Segurtasuna bermatu badaiteke, irekiko dugu, baina bestela ez". Txostenak argituko du esku-har-

tzeak hallean bakarrik egin beharko diren edo antzoki osoan.

Lehen kalteak, ekainean

Ekaineko euri-jasek eragindako kalteen ostean, hainbat azterketa egin dituzte, antzokian itoginak zerk eragin zituen jakiteko eta konponbidea ematen saiatzeko. Lan horien baitan, abuztu erdi inguruan, udal ordezkariek eta teknikariak ohartu ziren halleko sabaia zati bat erortzen hasia zela. Hala, joan den egubakoitzean ziren hori konpontzekoak eta egun horretan hara joan zirenean, zati bat erorita aurkitu zuten. Sei plaka daude halleko sabaian eta horietako bi dira erori direnak –bakoitzak bi tona ditu–.

Bertan behera edo atzeratuta

Hilaren 24rako *Tempus fugit* dantza emanaldia zegoen pro-

gramatuta, baina bertan behera geratu da; hilaren 29an, *Punkaren beste alde* dokumentala estreinatzeko zen Perlata taldea, Jesusi Etxeberriaren omenezkoa, baina atzeratu egingo dute; hilaren 30ean, Gazte Tourren baitan, Mirua, Nihil eta Kiliki Freskoren emanaldia izango da Monterronen eta, euria egin ezker, Amaia antzokia zen B plana, baina Juan Arzamendi Musika Etxea izango da azkenean. Azkenik, zinema ere bertan behera geratuko da.

Azken urteetako mantenu falta

Antzokiak 50 urte bete ditu aurrean eta duela 20 urte egin zituzten azken konponketa orokorrak. "Azken zortzi urteetan, urtero eskatu izan dugu eraikinean inbertitzea, baina minimoa bakarrik egin da. Hau da horren ondorioa", dio Urteagak.

EAJk proposatu du herritarrei zergak eta tasak ez igotzea

2024ko ordenantza fiskalei begirako proposamena egin du: "Udalak nahikoa baliabide du zerbitzu ona emateko"

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arrasateko Udalak 4,5 milioi eurotik gorako soberakina izan zuen 2022 urtean, "joera makroekonomiko onagatik eta lortutako diru-laguntza ezberdinak medio", jeltzaleen esanetan. Hori

dela-eta, uste dute Udalak nahikoa baliabide dituela zergak eta tasak igo gabe herritarrei zerbitzu ona ematen jarraitzeko. "Herritarrei inflazio momentu honetan karga ez areagotzeko aukera izanda, egokiagoa ikus-

ten dugu zerga eta tasak izoztea, igoerarik ez aplikatzea".

Halaber, hiru bloketan batutako hobariak proposatu dituzte. Batetik, guraso bakarrek familiei zuzendutakoak: "Haurrek 6 urte izan arte, familiako abonuaren prezioak banakako heldu baten prezio bera izango luke familia hauentzat. 6 urteak bete eta gero, banakako heldu baten prezioari haurren abonuaren %50 gehituko litzaioke. Honekin uste dugu abonu justuago bat izango luketela familia hauek".

Bigarren blokea merkataritza sustatzeko eskaintza izango litzateke eta, arlo horretan, eraikin, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria proposatzen dute jeltzaleek, lehen aldiz irekiko diren komertzioetako obretarako. Halaber, irekiera berrientzat tasa hau salbuetsita egotearen aldekoak dira, bankuak edo multinazionalak ez diren kasuetan.

Azkenik, trantsizio ekologikoarekin zerikusia duten hobariak proposatzen dituzte. Hala,

ondasun higiezinaren gaineko zergan %50eko hobaria eskainiko lukete ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak dituzten eraikinetarako, betiere, homologatuak badaude. Era berean, eraikin, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria eskainiko litzateke ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak jartzeko obretarako, betiere, homologatuak badira.

Lanketarako proposamenak direla azaldu dute jeltzaleek, "negoziaketarako abiapuntua".



Emakume Txokoak iazko ikasturteari amaiera emateko egin zuen topaketa. ARRASATEKO EMAKUME TXOKOAK

Ikasturte berezia aurten Emakume Txokoarentzat

20 urte betetzen ditu aurten Arrasateko Emakume Txokoak eta, beraz, ikasturte berezia dute aurretik; irailaren 28an egingo dute udazkeneko plangintza abiatzeko ekitaldia eta urriaren 27an eta 28an, berriz, urteurreneko jardunaldiak izango dituzte

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE *Nik sinisten dizut* irakurraldi feministaren bigarren edizioaren bideoa proiektatuz abiatuko dute ikasturtea, hilaren 28an. Hala, irakurraldian parte hartu zuten guztiak eta joan ezinda gelditu zirenak gonbidatu dituzte Emakume Txokotik, "irakurraldiak emandakoaz gozatzeko". Ostean, Yaima Orozco kantautore kubatarrak kontzertua egingo du. Gero, urritik aurrera, askotariko ekintzak egongo dira abendura bitartean (Ikus *Goiena.eus*).

Jabetze Eskola, urritik aurrera Bestalde, formazioa eta topagunea eskaintzen dituen Jabetze Eskolaren plangintza berrian

hainbat ikastaro, tailer eta gune jarriko dituzte martxan urria hastearekin batera eta horietan parte hartzeko izen-ematea irailaren 18an zabalduko dute.

Ohi legez, hainbat gai eta lan-ildo izango dituzte eskolan hiruhilekoan zehar: "Berba egingo dugu botereaz, pribilegioez eta zapalkuntzez; emakumeon autonomia eta parte-hartze soziopolitikoak sustatzeko bitartekoak eskuratuko ditugu; osasunari, zaintzari, sormenari, kulturari eta abarri lotutako hainbat gai landuko ditugu gure bizitzetako eta inguruneke esparru ezberdinetan eragiteko, ikuspegi feministatik", adierazi dute Emakume Txokotik.

Urteurreneko jardunaldiak

2003an jarri zuten martxan Arrasateko Emakume Txokoa eta, beraz, 20. urteurrena du aurten. "Ilusioz ekin genion bideari, eta ilusio horrekin jarraitzen dugu lanean, bidelagun ditugun eta izan ditugun emakume eta eragile feminista guztien parte hartzearekin", diote.

Hala, urte berezia dela aintzat hartuta, jardunaldi feminista bat prestatzen ari dira, "egindako bideari erreparaturaz, Emakumeen Etxeen erronkak identifikatzeko eta aurrera begira jartzeko". Urriaren 27an eta 28an egingo dituzte jardunaldi horiek eta laster emango dituzte xehetasunak.

Iraileko hirugarren zapatuko azoka pizza usainarekin dator

Tomateak, piperrak, pikua, sagarrak eta gehiago izango dituzte bertako ekoizleek bihar Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara, eta ogia, ezitia eta gozogintza postuak ere jarriko dituzte, ohi moduan.

Oraingoan, gainera, pizza egiten ikasteko aukera izango dute 6 urtetik gorako neska-mutikoei. 11:00etan hasiko dira tailerra-ekin eta, parte hartzeko, alde aurretik eman beharko da izena, udal webgunean edo BAZera deituta: 943 25 20 00.

Aurreko hilabeteetan legez, Biteri plazako aparkalekuan bi ordu doan eskainiko dituzte autoa aparkatzeko, erosketak egin bitartean.

Emakumeentzako tailerrak Usaetxen, autoezagutza ardatz

Elena Urigoitia bideratzaileak gidatuta, *Barneko haurra besarkatzen* izeneko tailerra egingo dute irailaren 23an eta 24an Usaetxe plazako Sane fisioterapia zentroan. Hilaren 23an, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara egingo dute tailerra eta 24an, berriz, 10:00etatik 14:00etara. Plaza mugatuak dituzte eta, izena emateko, 691 06 56 17 telefono zenbakira deitu beharko da (Itsaso).

Azaroaren 4an eta 5ean, bestalde, *Amarekin eta ahaide femeninoekin harreman osasuntsuak eraikitzen* izeneko tailerra egingo dute. Informazio gehiago, www.elenaurigoitia.com webgunean daukate.



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

Ongietorria

Salam alaikum, HuânYing Basiqie, Dobro pozhalovat', Karibu, Bienvenidos...

Ongietorriak zarete Nikaraguako Carla, Todrako Hasam, Donbaseko Yevhen, Feseko Chakib, zein Guangzhouko Xinji...

Ongietorriak dena delakoagatik bestelako hizkuntzetatik zatozten guztiok.

Irakurri diot Aingeruri, politikariek argi daukatela %20 migratzailea dela laster, eta haien integrazioak arduratzen dituela, kanpainetan behinik behin.

Ikastolek ere ikusi dute segregazioak ez duela onurarik, etorkizuneko ume horien helduleku, ireki dute publikotasun adostu baten bidea.

Denak seinale izaki, kezkatuenak euskaldunok izan beharko genuke, euskara galdu gura ez bada; abegikorrak izan haiek euskara besarkatu eta bere egin dezaten, gozogoz eta gustuz.

Nola, egin arrera eta harrera.

Auzolanean bidea lausotzen badakigu Arrasaten.

Elkartasunez, adeitasunez batera parte hartzera gonbidatuta: aterpe bila, lana eta paperak lortzen lagundu, euskara eskolak ala mintza taldeak musu-truk eskaini, kirol eta kultura esparruak partekatu...

Egin diezaiegun diosala.



VITALDENT

ZURE AHOADA GARRANTZITSUENA

ARRASATE

Otalora lizentziaduna kalea 1

943 06 03 22

1.2023/09/15etik 30era bitarteko baliabide erabilgarria. Oinarritutako enbarkuntzen arabera, osoari aplikatzen da. Egin zure jabetza deskontu eta prezioa berriz martxoaren 31 de bitartean Vitaldent. Egun leporatutako interesak (bitartean) erabiltzailearen Kontuakera baten iragarpenaren bidez Vitaldent Klinikari, Medikuak egindako tratamenduetan, 03.28. bitartean 1.000,00 €-ko finantzaketaren adierazita, 233,33 euroko hitzartutako kosta, 63,33 euroko 36 kosta eta 61,66ko aldiaren kosta formalizazio berriz 5.500,00 € baten koston arloko beharrezko 70k 100,00 €/70k 53,40. Interesak, gutxienez 0,00%. Kredituaren gutxienez 100,00 €. Ezer dian erabiltzaile gutxi eta gozatu prezio gutxi 300,00 €. Eskuratu erabiltzailearen 1.200,00 €. Aurrerantzean hitzartutako sistema, Beroa Ceharri SGA, hitzartutako finantzatzaile, bitartean baliabide 2023/10/15 eta 05.05.2024. NPS 2023/10

% 15eko

deskontua[®]

zure hortz-tratamenduan

3 URTEKO FINANTZAKETA

INTERESIK GABE

TIN %0,00, UTB% 3,40[®]

Ikastaro berriak prest dituzte, dantza eta guzti

Ekin Emakumeak Elkarteak lau ikastaro eskainiko ditu urritik aurrera: joskintza, 'yin tao', yogaterapia eta 'ecstatic dance-souldance'. Azken hori izango da aurtengo berrikuntza nagusia. Dagoeneko eman daiteke izena, 651 70 79 36 zenbakira deituta

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE

Ecstatic dance-souldance ikastaroa izango da Ekin Emakumeak Elkartearen ikasturte honetako berrikuntza nagusia. Musikak gidatuta, bost erritmotan oinarritutako dantza saio libreak egingo dituzte, Agurtzane Altuna irakaslearen eskutik. "Konfiantzazko espazio seguru batean, gorputzaren espresio eta mugimendu libreari lekua emango diogu, erritmo suabeetatik hasi eta, poliki-poliki, indartsuagotara", azaldu dute elkartetik. Tailerraren xedea da norberak bere barruarekin eta gorputzarekin konektatzea eta adieraztea. Urriaren 20an hasiko dira ikastaroarekin eta azaroaren 17an eta abenduaren 14an ere egingo dituzte saioak, 18:00etatik 20:00etara.

Joskintza, Dunix Royorekin

Gainontzeko hiru tailerrak ohikoagoak izango dira, aurreko urteetan ere egin izan dituztenak. Batetik, joskintza ikastaroa, josteko makina martxan jarri eta lehen osagarri eta arropak josten ikasteko helburua duena. Dunix Royoren eskutik, urriaren 10etik abenduaren 19ra egingo dute, martitzenetan, 16:00etatik 18:00etara eta, eguinetan, 18:30etik 20:30era.

Barne bakea ere landuko dute

Yin tao ikastaroan norbere burua sendatzeko gaitasuna gartuko dute, estresa eraldatu eta barne bakea lantzeko tailerra, "arnasketa kontziente" bat oinarri hartuta eta "patroi zahar eta automatikoak" baztertuz. Urriaren 19an, azaroaren 2an eta abenduaren 14an egingo dituzte saioak, 18:00etatik 20:00etara, Kontxi Garmendiarekin

Yoga, norberaren zaintzarako

Azkenik, yogaterapia ere egingo dute, "norberaren zaintzan fokua

jarritz eta kanpo eta barne epaiak baztertuz", komunikazio "intimo" bat sortzera bidean. Itziar Perezek gidatuko ditu saioak, urriaren 10etik abenduaren 19ra, martitzen guztietan, 14:30etik 16:00etara.

Izen-ematea zabalik

Izena emateko hainbat bide dituzte: elkartean bertan (Pablo Uranga kalea, 4, behea), 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefono zenbakietara deituta edo emakumeak@ekinemakumeak.eus helbidera idatzita.



Ekin Emakumeak Elkarteak antolatutako ikastaroetako bat, laz. GOIENA

80 eskuter inguru elkartuko dira bihar Mondrallyren baitan

Mondraueko Dragoiak Scooter Taldeak hamaikagarrenez antolatuko du Mondrally topaketa eta asteburu honetan izango dute hitzordua. Batetik, gaur, kontzertuak egingo dituzte Irati tabernan. Hala, 20:00etan, Hankaz Gora taldearen kontzertua egongo da Irati tabernan eta 22:00etan, aldiz, Punky Reggae Party festa hasiko dute, DJ

Motherfucker-ekin eta Adria Morekin. Bestetik, bihar, zapatua, 80 eskuter inguru elkartuko dira Herriko Plazan, 11:00etan. 12:00etan, ohiko irteera egingo dute. Gero, 14:30ean, Larrinetxe jatetxean izango dute bazkaria eta, 20:30ean, Punky Reggae Party egongo da DAT tabernan, hainbat DJrekin: Naken selektor, Crackzorla eta Sir Gorka.

Eskuter topaketan parte hartzeko, bihar bertan ere egongo da aukera izena emateko, 60 euro ordainduta.

Erguin auzoa jaietan murgilduko da gaur, bihar eta etzi

Gaur, bihar eta etzi ospatuko dituzte Erguingo jaiak, eta asteburu bete prestatu dute Jai Batzordeko kideek. Gaur, esaterako, kontzertuak egongo dira, 22:00etan hasita, Usaetxe plazan: Etxepe, Mutiko, Tata eta Denso, Youth United eta Eten. Bestalde, bi aste barru, irailaren 29ko asteburuan, Garagartzako jaiak ospatuko dituzte.

Greba Feminista Orokorra lantzeko saioa martitzenean

Arrasateko Denon Bizitzak Erdigunean taldeak gidatuta, azaroaren 30erako deituta dagoen Greba Feminista Orokorra lantzen ari dira eta dagoeneko lau topaketa egin dituzte. Azken hori, gainera, "orain arteko jendetsuena" izan zen. Bosgarren saioa irailaren 19an egingo dute, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:30ean hasita.

Aurrera Bolie eguna egingo dute bihar, egitarau betearekin

11:30ean bermut politikoa egingo dute Irati Topalekuan eta Biteri plazan haurrentako jolasak egongo dira; 14:30ean, bazkari herrikoia izango da eta, ostean, bazkaloste akustikoa (Izadi eta Peru, Añube, Peru Altube eta Iratiz Agirre); 18:30ean, *Hitz Esana* poesia emanaldia egongo da eta 22:00etan, berriz, kontzertuak gaztetxean.

1982an jaiotakoek kintada egingo dute azaroaren 4an

Hamaika urteren ostean, kintada berreskuratuko dute 1982an jaiotako arrasatearrek eta Garaia jatetxean egingo dute bazkaria. Interesa duenak, 70 euroko ordainketa egin beharko du 3035 0001 55 0010159220 kontu korrontean (Laboral Kutxa), irailaren 29a baino lehen, kontzeptuan izen-abizenak eta eskuko telefonoaren zenbakia jarritz.

BIODANTZA
Klase irekiak
Irailak 20

ARRASATE
18:30 Kulturaten.
Jokin Zaitegi aretoan.
Rakel Ampudia
679 44 12 29

BERGARA
18:30 Mariaren
Lagundia Ikastolan
Mentxu Arjonilla
626 66 12 92

www.biodanzabal.com

ARRASATE • Garibai etorbidea 6
elVelocimetro.com 640 33 22 48 • info@elvelocimetro.com
AUTOESKOLA www.elvelocimetro.com

Maisu e-Learning

GIDABAIMEN OSOA
899€
BEZ-A BARNE
Eskaintza urte amaiera arte

Mondranbike martxa, edonorentzat egokituta

Datorren egubakoitzean, hilaren 23an, hasiko da 'Mondranbike' bizikleta martxa. Parte hartuko duten txirrindulariek hiru ibilbide ezberdin izango dute aukeran eta, egunarekin amaitzeko, paella-janaz gozatzeko aukera ere izango dute

Julen Murua Mesonero ARRASATE

Irailaren 23an, zapatuan, ospatuko da Mondranbike bizikleta martxa. J.M. Arizmendiarieta plazatik irtengo dira bertan izena eman dutenak, eta hiru ibilbide ezberdinetan parte hartzeko aukera izango dute.

Mikel Bergarak, antolakuntzako kide batek, adierazi du ez dela aurrez erabaki beharko hiru ibilbidetako zeinetan arituko den bakoitza: "Martxan bertan erabakitzeak aukera izango dute hiruetako zeinetan aritu nahi duten. Ibilbideko puntu batzuetan elkartuko dira, baina norberaren erresistentzia mailaren, momentuko egoeraren edo maila teknikoaren arabera erabaki beharko dute bide bat edo beste bat hartuko duten".

Helburua "gainontzeko txirrindulariekin ez lehiatzea, baizik eta norberak eronka bere buruarekin ezartzea" dela ere nabarmendu nahi izan du Bergarak. Ibilbidearen luzera mailak baldintzatuko du haren gogortasuna eta teknikoki izango duen zailtasun maila; beraz, norberaren indarrak eta abileziak eragingo du zein ibilbidetan arituko den.

Martxan zehar anoa puntuak izango direla ere adierazi du antolakuntzako kideak.

Urteroko harreraren esperoan

Oraindik muga gisa ezarrita duten 300 izen-emateetara iritsi ez badira ere, Bergarak dio "urtero izandako harrera ona" izatea espero dutela. Txirrindulari asko batzen dituen martxa izaten da eta "estilo berezi bat markatuta" duela adierazi du antolakuntzako kideak.

Izen-emateak irekita

Mondranbike bizikleta martxan parte hartzeko izen-emate epeak zabalik jarraituko du irailaren 21a arte. Izena emateko modu bakarra Kirolprobak bitartez




lazgo edizioko une bat. GOIENA

izango da: www.kirolprobak.com. Federatuta daudenek 15 euro ordaindu beharko dute; ez daudenek, berriz, 20 euro. Antolakuntzak gogorarazi nahi izan du "ibilbideko markaketa minimoa" izango dela eta, beraz,

"txirrindulari bakoitzak GPSa -edo tracka- eramatea derrigorrezkoa" izango dela. Parte-hartzaile bakoitzak helbide elektronikora bidalitako mezu baten bitartez jasoko du ibilbidearen tracka irailaren 21ean.

Mondranbike martxako ibilbideak

ITURRIA: MONDRANBIKE



Hiru ibilbide ezberdinez osatuta egongo da martxa: motza (34 kilometro eta 1.000 metro desnibel); luzea (39 km eta 1.400 m) eta extrem (42 km eta 1.700 m). Norberak, egunean bertan, erabaki beharko du hiruetako zeinetan arituko den.



Gizonezkoen senior taldea iazko neurketa batean. GOIENA

Berritasunik gabeko taldea hastear dagoen denboraldirako

Denboraldi berriari begira jarriak daude jada Arrasate Rugby Taldeko kideak "ilusio eta gogo handiarekin"

J.M.M. ARRASATE

Kanpanzar Arrasate errugbi taldea hasi da, dagoeneko, 2023-2024 denboraldia prestatzen. Aurten ere Gizonezkoen Euskal Ligan lehiatuko dira Julen Barrutiaren mutilak eta, adierazi duenez, "denboraldi berria hasiteko gogotsu" daude taldekide guztiak.

Abuztuaren 21ean hasi zuen denboraldi-aurrea gizonezkoen goren taldeak, eta batzuek taldea utzi eta beste batzuk batu egin diren arren, entrenatzaileak dio taldearen oinarria mantendu egingo dela: "Batzuek taldea utzi behar izan dute lesioak direla-eta, baina jokalaririk gutxi kontua da eta, hori horrela, taldearen oinarria mantendu egingo da".

Oraindik ez dute lotu denboraldi-aurreko lagunartekorik, ez baitakite "noiz hasiko den liga". Hori jakin arte jokalarien

kargak ongi kontrolatzea nahi du Barrutiak: "Errugbia oso kirol fisikoa da, eta ezbehar horiek guztiak saihestu nahi ditugu".

Gainontzekoak ere lanean

Julen Barrutiaren taldeaz gain, gainontzeko talde guztiak ere hasi dira 2023-2024 denboraldian hasierarako haien taldeak egokitzen.

Gizonezkoen senior mailakoak hasi eta egun gutxira ekin zioten denboraldi-aurreari emakumezkoen taldeak. Klubeko gainontzeko talde guztiek, berriz, ikasturte hasiera iritsi ahalaz bat ekin diote entrenamenduei, Mojategin.

Talde hauek guztiek gain, Errugbi Eskolako eta Errugbi inklusiboko neska-mutilek ere hasi dute denboraldia; talde hauen entrenamenduak igandeetan izaten dira, Mojategin.

Besaide Mendizale Elkarteak Errioxara egingo du irteera

Errioxako Saida mendira irteera egingo du Besaide Mendizale Elkarteak; irailaren 24an irtengo dira Arizmendiarieta Plaza atzeko geltokitik 07:30ean. 1.378 metroan kokatzen da tontorra, eta guztira 18,40 kilometroko ibilaldia izango da. Elkarteak iragarri du sei ordu eta erdi inguruko mendi buelta bat izango dela. Izena emateko bi auke-

ra izango dira: Internet bitartez, hilaren 18tik 20ra bitartean, edo Besaideko bulegoetan, hilaren 19tik 20ra, 19:30etatik 20:00etara. Bazkide federatuek hamahiru euro ordaindu beharko dute; ez federatuek, berriz, hamasei.

Ordainketa transferentzia bitartez egin beharko dute parte-hartzaileek ES 23-3035-0001-51-0010000193 (Laboral Kutxa) edo ES 39-2095-5055-53-1061009519 (Kutxa) kontu korranteetara, mendizalearen izen-abizenak zeintzuk diren adierazita.

Arte garaikidea herrira gerturatzeko erakusketa

Harriak programaren barruan 'Guacamayo' erakusketa zabalduko dute gaur, 18:30ean, Kulturaten. Ander Perez komisarioaren esanetara, lau artistak sortutako lana ikusteko aukera egongo da. Espazio berriak sortzea du helburu erakusketak

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE Harriak arte garaikideko programaren barruan *Guacamayo* erakusketa zabalduko dute gaur, 18:30ean, Kulturaten. Erakusketan lau artistak parte hartu dute: Miel Oiarzabal –Durango, 1994–, Ibai Madariaga –Mallabia, 1994–, Victor Ortuño –Yecla, 1995– eta Silvia Copola –Padova, 1991–. Urriaren 13ra arte egongo da ikusgai erakusketa.

Bost bat urte dira Harriak programak Arrasaten geldialdia egiten duena. "Eremuak ekimenaren barruan sartzen da Harriak; asmoa da arte garaikidea eta artista gazteak herrietara gerturatzeko", azaldu du kultu-

rako teknikari buru den Jon Garaik. Sorkuntza errealitatea hain ezaguna ez den espazioetara gerturatzeko da asmoetako bat; eta, erronka modura ere planteatzen dute: "Erakusketa jarriko den medioan esku-hartze bat egitea eskatzen zaie artistei".

Lau artista

Arte garaikideko erakusketa bat da. "Erakusketa bat da, non espazioa eraldatzen duten objektuekin, instalazioekin... erabiltzen ari diren materialaren eta espazioaren arteko uztartze bat da erakusketa", azaldu du Ander Perez erakusketako komisarioak. Egurra eta paper

zatiak erabili dituzte, besteak beste, erakusketan. "Ikusleek ikusiko dutena ez da eskultura bat, baina eskultura da; ez da margolana, baina margoak badaude... artistek planteatu dutena da nola eraldatu espazioa arte diziplina guztiak erabilia". Artistek eurek azaldu dute ikusleak izango duen jarrera eta izango duen jakingura ezinbestekoak izango direla erakusketatik ulertzeko. "Esperientzia bat da, ez da hainbeste margolan bat ikustera etortzea: erakusketan zehar mugitu behar zara, tentu egon behar duzu... kuriositate ariketa bat da", gaineratu du Perezek.



Andoni Arratibel zinegotzia, Ander Perez komisarioa eta lau artistak. ENEKO AZURMENDI

Artistek bakarka egin dute lana, ez dute elkarren lanaren berri izan; hain zuzen, hori da bilatu dutena, bakoitzak zuen ideia edo inspirazioa garatu eta ondoren espazioan elkartzea. Lauek duten gauza komuna da espazioa lantzen dutela, eta baita interesa ere. "Zer gertatzen da espazioan, zerbait ateratzen denean espaziotik?", azaldu dute artistek eurek aurkezpen ekitaldian. Gertuko interesak izan dituztela diote, baina lan egiteko modua ezberdina dela; hau

da, materialekin lan egiteko modu ezberdina izan dute eta erakusketa berean guztien lana elkarrekin ikustea polita iruditu zaie.

Kontzertua, hilaren 28an

Irailaren 28an, eguena, Paula Guerrero musikariak kontzertua egingo du Kulturateko klaustroan, 19:30ean. Almen-dralejoko musikariaren proiektuaren ezaugarrietako bat da protesta moduan erabiltzen duen ahotsa.

Literatura solasaldiak egingo dituzte, hilero, urrian hasita

Arrasateko Bibliotekak antolatuta literatura solasaldiak egingo dituzte urritik maiatzera bitartean. Urriaren 19an hasiko dute, Pier Paolo Pasoliniren *Kale gorriko umeak* liburuarekin. Hilero izango dute hitzordua aurrez irakurritako liburuez hitz egiteko.

Solasaldietan parte hartu nahi duenak aurrez eman behar du izena: irailaren 18tik 23ra bitartean. Saioak egunetan izango dira, hilean behin, 18:00etatik 20:00etara, eta Alex Gurrutxaga izango da solasaldia gidatuko duena. Dagoeneko zehaztuta dituzte ikasturtean zehar irakurritako liburuek: *Natasha*; *Poema liburu bat*; *Lerro etena*; *Beirazko kanpaia*; *Lurraz beste*; *Bihurguneko nasa*; *Ura saltoka*, eta *Basa*. Solasaldiek aukera ematen dute egile eta estilo literario desberdinak eza-gutzeko. Gainera, taldeko iritziek asko aberasten dute norberak liburua irakurri duenean jasotako inpresioa.

Dantzan ikasi nahi?

PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALA

MUGI GORPUTZA - MUGI BURUA
MUGI ANIMOA - MUGI OSASUNA

URRIA - MAIATZA astelehenetan
Hasiara: urriak 2
Oinarrizko maila eta dantza-txokoa

IZENA EMATEA
• Portaloi elkartea: 623 16 59 16 / portaloielkartea@gmail.com

Antolatzailea: Portaloi elkartea
Laguntzaileak: Arrasateko Udala Euzko Legebiltzaria Euzko Foru Erkidegoa Gasteizko Udala Gasteizko Foru Erkidegoa

euskara hurbil,
zu urrun heltzeko

aek
euskara praktikoa

Debagoieneko AEK
A1, A2, B1, B2, C1, C2 mailak
Mintzapraktika taldeak
Autoikaskuntza
Programa + tutoretzak + praktika.
Presentzialak eta on-line

Matrikula zabalik: 2023/09/4 - 2023/9/28
Ordutegia: 10:00 - 14:00 18:00 - 20:00

Iturietz 21, beheko, (Herriko plazan) Arrasate
943 77 03 69 - arrasate@aek.eus
twitter.com/debagoienekoAEK
www.facebook.com/debagoieneko.aek

DIRULAGUNTZAK
Bekak Arrasateko Udalaren eta HABEren laguntzaz!

Erromeria zaharren giroa gogora ekarriko dute

Eguzki erromeria taldeak kontzertua egingo du irailaren 23an, 12:00etan, Barajuengo frontoian. Modu horretan omenaldi xumea egin gura diote urteetan Eguzki taldeko soinu-jole izan den Nikolas Gardokiri. Garai bateko kantuak joko dituzte

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Garai bateko erromeria giroa, garai bateko abestiek. Horixe izango da Eguzki taldeak datorren zapatuan, irailaren 23an, egingo duen kontzertua. Erromeria zaharren giroa gogora ekarriko dute Barajuengo frontoian; eguraldi txarrarekin Eguzkierripan izango da, Andra Mari ermitaren aspian.

Ordubeteko erromeria izango da eta Eguzki taldeko partaideez gain, beste musikari batzuk ere igoko dira agertokira: Maria Gardoki, Mireia Larrañaga eta Beñat Leanizbarrutia.

20 urterekin hasi zen

Eguzki taldeak ibilbide luzea izan du erromerien munduan. Nikolas Gardoki hasi zen taldearekin 20 bat urte zituela—egun 85 ditu—. "Osaba bakarrik hasi zen eta ondoren sartu ginen nire anaia Felix eta ni neu", azaldu du Jose Gardokik. Felix eta Jose anaiek utzi zutenean Nikolasen seme Jaime hasi zen eta baita Agustin Ugarte oñatiarra ere. Taldearen ibilbidean, Nikolasen seme Jon Gardoki ere taldeko parte izan zen eta baita Jose Luis Landa eskoriatzarra ere.

Aramaio eta inguruko herrietan oso ezaguna izan zen Eguzki taldea. "Batez ere auzo txikietan jo dugu, Arantzazun, Araotzen... Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa guztian zehar ibili ginen. Esan daiteke, Aramaiotik 100 kilometroko erradioan mugitu ginela", dio Jose Gardokik.

Omenaldia eta esker ona

Zapatuan egingo duten kontzertuarekin osaba Nikolas omenaldi gura du, gainera: "Nahi dugu grabatuta utzi Eguzki taldea zer izan den". Joko dituzte lehengo kantu zaharrak. "Herririk herri ibiltzen ginenean %90a euskaraz abesten genuen; nahiz eta gaztelaniazko kantuak izan, euskaratu egiten genituen;



1973ko irailaren 14an Angiozarren, Felix, Jose eta Nikolas. GARDOKI FAMILIA

pentsa, garai hartan Araban ez zen ia euskaraz egiten, baina guk euskaraz abesten genuen", dio. Nikolas Eguzkierripa auzoko Arane baserrian jaio zen—horregatik du taldeak Eguzki izena—.

Josek dio erromeria giroa asko galdu dela: "Lehen andre-gizonak etortzen ziren dantza egitera, neska-mutikoekin. Egun ez da dantza egiten. Talde handiek jotzen dute gehiago, aldatu egin da giroa".

"Taldean giroa hobea izaten da beti"

NIKOLAS GARDOKI
SOINUJOLEA

Hasierako urteak ekarri ditu gogora soinu-joleak.

Nola hasi zinen?

Elizan bazegoen organo-jole bat, Roke. Hark esan zidan, "Hi Gardoki, etorri, kantuan ondo itten dok-eta, etorri laguntzera". Han ibiltzen nintzen pianoa jotzen eta, ondoren, txistua ekarri zidan, eta azkenik soinua jotzen ikasi behar nuela esan zidan, Angiozarko itsuarekin, Felisekin.



ABAO

Bakarka baino, taldean hobeto ibili izan zara?

Bakarka, akats txikiena ere igarri egiten da. Taldean, aldiz, ez da igartzen hainbeste, eta giroa hobea izaten da. Hiruekin, saxofoia, jazzbana eta soinua, ederto! Taldean gehiago entseatu behar da. Hasieran, bakarka, Gardoki nintzen; baina, ondoren, Eguzki izena jarri genion, Eguzkierripatik. Garai baten ibili ginen arnasa ezin hartuta.



JUAN LUIS NAFARRATE

Unai Axpe txapeldun

Plater tiroketako Euskadiko Kopako proba jokatu zuten Irunen, irailaren 10ean. Unai Axpe izan zen irabazlea eta Enrique Ullibarriarana laugarren tokian sailkatu zen sailkapen nagusian, eta lehena izan zen beterranoen mailan. 50 plateretara zen proba: Axpek 47 jo zituen eta Ullibarriaranak 46. Finala, 25era, Axpek 22 jo zituen eta Ullibarriaranak 20.

Ikasturte berrian ere euskara ikasteko aukera egongo da

Aramaio Udalak antolatuta doako euskara ikastaroak jasotzeko aukera egongo da 2023-2024 ikasturtean zehar. Mailaren arabera, bost saio antolatu dituzte: A1 maila, 2 egun astean, bi orduko saioak—132 ordu—; A2 maila, 2 egun astean, bi orduko saioak—132 ordu—; Gure euskara hobetzen, astelehenetan, 10:00etatik 12:00etara—60 ordu—

; Mintzapraktikak B2 maila, martitzen eta eguenetan, 17:00etatik 19:00etara—132 ordu—; C1 maila, astean bi egun, bi orduko saioak—132 ordu—.

Doako ikastaroak izango dira eta Udalak eskatzen duena da aprobetxamendua eta asistentzia bermatzea. Izena udaletxeko bulegoan eman daiteke; telefonoz deituta 945 44 50 16, edo mezua idatzita euskara@aramaio.eus helbidera. Irailaren 28ra arteko epea egongo da izena emateko.

Aitor Aranaren omenezko mendi martxa, hilaren 23an

Orixol Mendizale Elkarteak Aitor Aranaren omenezko 27. mendi martxa antolatu du, irailaren 23rako. Bi aukera daude: ibilbide luzea, 26 kilometrokoa, eta motza 15 kilometrokoa. Martxa frontoian hasiko da: motza 08:00etan eta luzea 07:30ean. Irailaren 20rako izena emanaz gero, 6 euro ordaindu behar da; egunean bertan, 10 euro.

Musika eta dantza izango dira oraingo aste bukaeran

Sastiñako musika jaialdiaren barruan, gaur, 19:00etan hasita, kontzertua egingo du Dei bikoteak Sastiña aurrealdean. Mutrikuko bikoteak gitarra, teklatu eta harmonika soinuak ekarriko ditu Sastiñara. Gainera, domekan, 13:00etan, Gasteizko Eguzkilore dantza taldeak emenaldia egingo du Herriko plazan, Vital programaren barruan.

Lehenengo jaietarako gertu Txarapean

Bihar, zapatua, ospatuko dituzte eta egun osoko egitaraua zehaztu dute: umeendako jolasak, herri bazkaria, Zirrara eta Assata taldeen kontzertuak izango dira besteak beste eta txosna ere egongo da; ekitaldiotara herritar guztiak gonbidatu dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Jai gogoz zeuden Txarapeako bizilagunak aspalditxoan eta konfinamendu saioan areagotu egin zitzairen. "Hartxo hori geratu zitzaigun orduan, eta elkar zirikatuta, txispa batek sortu du guztia", adierazi du antolatzailer taldeko Eneritz Urrutiak. Hala, talde txiki batek lanari ekin, eta haziz joan da, antolatzailer batzordea osatu arte. Irailaren 16a izendatu zuten jaiak ospatzeko eguna, eta behin egun hori iritsita, hasiera emateko gertu daude. Horretarako, berdegunea dagoen kurbatik kiroldegirantz doan errepide zatia –garajera bitartean– itxi egingo dute, eta txosna ere egongo da han, ibilbide horretan ez dagoelako tabernarik.

Jolasak, musika eta kirola

Txarapeako bizilagunak direla protagonista nabarmendu gura izan du Urrutiak: "Ekitaldi guztietan egongo da ibilbide horretan bizi den baten bat, musika taldeetan, kirol jarduerak bideratzen zein umeendako ekitaldiak girotzen, baita sukaldari lanetan ere". Paella izango da herri bazkariko oinarria eta Aretxabale-tako sukaldari ezagunenek kordinatuko dute: "Joselu Gonzalezek, Jesus Mari Herrastik eta



Jaiak antolatzen diharduen taldeko hainbat kide. MIRARI ALTUBE

Egitaraua

Zapaturako, irailaren 16rako, antolatutako ekitaldiak.

- **11:00** Jaiaren hasiera.
- **12:00** Pregoia eta txupinazoa. Txosnaren irekiera.
- **12:30** Haur jolasak eta parkea.
- **12:30** Txarabermu kantu saioa.
- **14:30** Herri bazkaria. Ondoren, bingo musikatua.
- **17:00** Mus txapelketa.
- **19:00** Zirrara taldearen emanaldia.
- **20:30** Eskailera bertikala, radarra aldapan.
- **22:00** Assata taldearen kontzertua.
- **00:00** Xunba tailerra eta gau girotua.

konpainiak". 225 txartel inguru saldu dituzte eta antolatzailerak pozik daude herritarren erantzunarekin.

Jaiei txupina botata eta pregoiarekin emango diete hasiera, baina isilpean gorde gura izan dute hori nork egingo duen. Egitarauan adin talde guztien gustuak ase gura izan dituzte: "Umeendako jolasak Loratuk gidatuko ditu. Gazteek bingo musikatua izango dute eta *xunba* tailerra gauean. Era berean, kirolariak, aldapan gora radarraren aurka lasterka egin ahal izango dute, eta lasaiago jardun gura dutenek mus txapelketa daukate".

Musikari dagokionez hiru emanaldi iragarri dituzte. Batetik, *Txarabermu* eguerdi par-

tean: "Bi abesti herrikoiei prestatu dituzte hainbat bizilagunek, kantuan egiteko". Arratsaldean, Zirrara taldearen emanaldia izango da, eta gaua, Assata talde arrasatearrak girotuko du.

Euriari beldurrik ez

Ez dira euriaren beldur, baina badaezpada karpak gertu dituzte: "Garaje eder batzuk ere baditugu etxean azpialdeetan eta moldatuko ginatete".

Txarapeako bizilagunen ekarpen ekonomikoari esker antolatu dituzte jaiak, Udalaren babesarekin. Egun bakarrekoa izango da aurtengoa, baina arrakasta izanez gero "ikusitako behar zer etorriko den datorren urtean". Izan ere, "geratzeko" datorrela eman dute aditzera.



Txarapean bizi diren hainbat bizilagun jaiak iragartzen. MIKEL ZUMALDE

Familia gazteen bizilekua

Herriko kalerik luzeena da Txarapea, berriena eta jendetsuena; eta familia gazteak dira gehienak. Konfinamendu sasioan, 2020an, Txarabermu ekimena jarri zuten abian eta balkoietan elkartuta kantuan egin. Orduan ereindako haziak fruitua eman du.

Jendetza Areantzan

Agorreko Andramaixak ospatu zituzten joan den asteburuan Areantza auzoan; giro onean ospatu ere. Ginkana eta jolasak izaten ziren zapatuko izarrak, eta aurten ere jendetza batu zen horietan. Ume, gazte eta heldu, auzoko bizilagunek zein horien gertukoek ez zuten hutsik egin gura izan beste urte batez, argazkia horren lekuko.



JULEN ABASOLO

"Tomatea ortuko izarra izan da beti niretzat"

ALEJANDRO ULEZIA 'ABETXUKO' TOMATE EKOIZLEA

Aretxabaletan lehenengoz egin den Euskal Herriko bertako tomatearen lehiaketan bigarren saria eta aipamen berezia eskuratu ditu Aretxabaletako tomatearekin

Mirari Altube ARETXABALETA

Debagoieneko Mankomunitateak, Deba Garaiak eta Udalak antolatutako lehiaketara hamazortzi ekoizle aurkeztu ziren joan den domekan eta 33 tomate barietate jaso zituzten. Lehenengo saria Juan Pedro Santos iruindarrak eskuratu zuen Sunbillako arrosarekin, eta bigarrena eta aipamen berezia –Aretxabaleta jatorriko onenarena–, Alejandro Ulezia *Abetxuko* aretxabaletarrak (Arnedo, 1960). Goroeta auzoko ortuan ekoiztutako tomateak lehenengoz aurkeztu zituen lehiaketa batera, kuadrillakoek animatuta.

Halakorik espero zenuen?

Tomate ederrak ditudala aitortu behar dut. Baina lehiaketa egunean tomate benetan dotoreak ikusi nituen eta zalantza sortu zitzaidan. Pentsa, txikiteoan nengibilen deitu zidatenean esanaz saria jasotzera joateko asmorik ez ote nuen.

Barietate bakarria aurkeztu zenuen?

Aurkeztu bai, baina beste barietate bat ere lantzen dut: *jack*. Azken hau ere ona da baina Aretxabaletakoa askoz hobea.

Zein ezaugarri ditu bada Aretxabaletakoa halako fama izateko?

Zaporea sekulakoa! Eta horrez gain ur gutxi, okela asko, azal fina eta haziak ere gutxi. Nahikoa lan izaten dut hazi kopuru esanguratsu bat pilatzeko.

Epaimahaiko kideek azalpenen bat eskatu zizuten?

Saria jaso ondoren euretako bat etorri zitzaidan galdetzeraz zelan ekoiztu nuen tomatea. Azaldu nion lehenengo asunak jarri nituela –nitrogenoa emateko–, gero satsa, hau da, ongarria –indartzeko–, gero lur apur bat –ongarriak ez zezan erre– eta azkenik, tomatea. Beste ezer ez dut egiten.

Ortua Goroeta auzoan daukazu.

Bai, baina ez da nirea, Angel Iturbe auzotarrarena, baizik. Orain dela hamalau urte utzi



Ulezia, tomate sarituarrekin. A. ULEZIA

"ORAIN DELA HAMALAU URTE EREIN NITUEN LEHEN HAZIAK, ETA ORDUTIK, NEUREAK JASOTZEN DITUT"

zigun lursailtxo bat landatzen lagun batzuei eta niri, eta ordutik hantxe gabiltza. Saria haiekin partekatuko dut, noski.

Eta hasieratik landatu zenuen tomatea?

Bai, bai. Haziak nondik ekarri nituen ez naiz ondo gogoratzen: Errioxatik edo Abetxukotik behar bada. Baina hasieran landatutako tomate barietate haren haziak gordetzen ditut urtetik urtera, hortaz, tomatea berdina da. Datorren urtean landatzeko ere dagoeneko gorde dut.

Zelan jasotzen dituzu haziak?

Lehenengo loraldiko landare bat gorde egiten dut; zintatxo bat jartzen diot tomate horri eta ia usteldu arte izaten dut. Ondoren, haziak jaso eta lehortzen uzten ditut, astebete inguru. Gorde gero, eta bukatzeko, substratuarekin jarrita landareak noiz haziko itxaroten dut.

Beste tomate mota bat ere landatzen duzula esan duzu?

Bai, *jack*; jende askok landatzen du gure inguruan. Antza, hemengo klimara hobeto moldatzen da. Aretxabaletakoa, ostera, lan handiagoa eskatzen du, gainean egon beharra. Hori bai, ortuan ondo bereizita izaten ditut bi motatako landareak, ez daitezela nahastu polinizazio bidez adibidez, bestela akabo.

Aurtengo uzta zelakoa izan da?

Niretzako ona. Ortu lankide dudanak Aretxabaletako barietatearen landare guztiak kendu egin zituen gorrinaren erruz. Nik, ostera, aurrera egitea erabaki nuen, hamazazpi landare sartuta, eta uzta ona izan dut; hori ortu berbera izanda. Muturreko egoerak eman direla esango nuke; izan ere, jende askori entzun diet oso tomate gutxi izan dutela aurten, eta era berean, beste hainbati, uzta oparora.

Ordu asko pasatzen dituzu ortuan?

Egunean ordu pare bat esango nuke, baina sasoi batzuetan gehiago. Tomatea ortuko izarra da niretzako eta eskatzen du gainean egotea, mimoz zaintzea. Dena den beste barazki batzuk ere badituzte, noski: lekak, pepinoak, kalabazinak...

Zuk zeuk gustuko duzu tomatea?

Izugarri. Jateko ez dut aparteko ezer egiten: xerretan moztu eta gatzarekin eta olio ona apur batekin osatu; ahuakatearekin ere oso gustuko dut. Hori bai, entsaladarako Aretxabaletakoa; *jack*, ostera, kozinatzeko erabiltzen dugu.

Bertso liburua egingo die Lekaixokak 2022an jaiotakoei

Proiektuan parte hartzeko izena eman behar da eta argazkiak eta datuak bidali; azken eguna urriaren 4a da

M.A. ARETXABALETA

Haur jaioberrien bertso liburua argitaratu du urtero –2015etik hona– Aretxabaletako Udalak, Lekaixoka bertso eskolarekin batera, eta iaz jaiotakoei ere izango dute. Bertso bat eskainiko diote liburua horretan izena emandako ume bakoitzari.

Proiektuan parte hartu gura duten familiek 2022an jaiotako haurren izen-abizenak eta jaioteguna jakinarazi beharko dituzte, baita gurasoen edo tutoreen izen-abizenak, nortasun agiriaren zenbakiak eta helbidea

ere. Datuekin batera haurren bi argazki eta haren deskribapen labur bat –izaera, berezitasunak, bitxikeriak, familiako kideak...– bidaliko dituzte honako helbidera: bertsoliburua@gmail.com. Eta horretarako azken eguna urriaren 4a da. Edozein zalantza edo arazo izanez gero, Udaleko Euskara Sailera jo behar da: 943 71 18 62.

Liburua debalde –bigarren alea ordaindu egin beharko da– banatuko dute datorren abenduaren 14an Arkupen egingo den ekitaldian.



INIGO BARRENA

Ikazkin Trail, arrakastatsua

Aretxabaleta kirol elkarteak antolatuta bigarren egin den mendi lasterketak iaz baino korrikalari gehiago batu zituen joan den zapatuan, 168 guztira. Bero handiak arrastoa utzi zuen txapelketan David Rua elorriarra (1.51.57) eta Ainara Urrutia aretxabaletarra (2.12.21) izan ziren nagusi; etxeko lasterkariak bigarren egingo gailendu zen helmugan.

OHARRAK

Dantza entseguak

Beinke-Loramendi dantza entseguak daude Kurtzebarriko kantxan (19:00) honako egunetan: 18, 21, 25 eta 28. Eta talo-txosnarako boluntario bila dabilta: euskara@loramendielkartea.eus.

Asto-jana

Irailaren 23ko bazkarirako txartelak salgai daude Orly, Kixkor eta Arlutz tabernetan.

Jou Diaz

Harakina

Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



2021eko Errekan Goran, Broken Brothers Brass Band taldekoak kalejira egiten Herriko Plazan. GOEINA

Errekan Gorako oholtzan, indarra eta oreka eskutik

Atxorrotx Kultur Elkarteak antolatzen duen urteko ekimenik arrakastatsuenak, Errekan Gora jaialdiak, 48 ordu paregabe dauzka aurretik. 15. aldian ere eutsiko dio berezko esentziari: anitza, tokikoa eta emakumeen presentzia handikoa izango da

Hasier Larrea ESKORIATZA

Zuzeneko musika erauntsi batek hartuko du Eskoriatza gaurtik domekara. Talde oso desberdinei eskaini diete antolatzaileek agertokia osteraren ere, hori baita Errekan Goraren osagai finkoetako bat: "Goiz, arratsalde eta gau, uneak eskatzen duen giroa sortzea da asmoa; egunak lasai samar hasi, pixkanaka gorantz joan eta bukaeran goia jo", azaldu du Iñaki Kortazarrek.

Hasi, bolumen betean

Iazko ildoari eutsi gura izan diote aurten, "indartsu hasi eta indartsu amaitzeko". Hala, gaur, ostirala, 20:00etatik arituko da DJ Loro gasteiztarra Inkernun kantu dantzagarriak jartzen, eta 22:30ean Eibarko Kokein talde rockeroak dena emango du Herriko Plazako oholtzan. Zalao Urain abeslariak Arrasate Irratian aurreratu du *Atomika* azken diskoko kantuak eta zaharragoak uztartuko dituztela. Era berean, "asteburu osoan Eskoriatzan

geratzeko tentazioa" daukala onartu du, "gozatu ederra delako toki berean hain egitarau anitza topatzea".

Bihar, egun osoko plana

Zapatuko artistak dira horren erakusle. Irati Etxebarrieta eskoriatzar gazteak ZeDontre lehiaketa irabazteagatik gonbidatu du Atxorrotxek, eta Kortazarrek aipatu moduan, keinu hori ohitura bihurtzea adostu dute Udalarekin. Bakarleri bezala aritzen den arren, oraingoan anaiaren perkusio doinuek lagunduko diote Etxebarrietaren gitarra eta ahotsari. Haien ostean Pasadena seikote gasteiztarren txanda izango da, eta, Kortazarren esanetan, Gipuzkoan azken

GOIZAK LASAI HASI, ARRATSALDEAK GIROTU ETA GAUETAN GOIA JOKO DU MUSIKA JAIALDIAK

aldiz joko dute, taldea agur esaten ari baitzaie zuzenekoei.

Arratsaldeko poteoa "garrantzitsua" denez, aurten ere kalejira baten alde egin dute, 2021ean bezala, Iruñerriko Broken Brothers Brass Band ekarrira.

Eguzkia sartu eta gero, berriz, Xiberoots-en reggae kantuek dantzan jarriko dute Herriko Plazako publikoa.

Atsedetik ez domekan

Etzi eguerdian big band bati egingo diote tokia, Arrasate Musikaleko kidez osatutakoari, hain zuzen. Ikasle eta irakasleek bat egiten dute egitasmo horretan, eta ezaguna da sorpresaz betetako pilulak banatzea gus-tatzen zaiela beti.

Hasi bezala, gorenean bukatzeko asmoz, Durangaldeko Nevadah-ri egokituko zaio hurrengo egunean astelehena izango dela burutik kentzea. "Aspalditik" dira herrian haien rock-and-roll, garaje eta blues estiloko kantuak entzuteko gogoz.

Egitaraua , oso-osorik



KOKEIN

Herriko Plaza
Egubakoitza 15
22:30



DJ LORO

Inkernu taberna
Egubakoitza 15 | 20:00
Zapatua 16 | 24:00




IRATI ETXEBARRIETA

Herriko Plaza
Zapatua 16
12:00



PASADENA

Herriko Plaza
Zapatua 16
13:00




BROKEN BROTHERS B. B.

Kalean zehar
Zapatua 16
19:00



XIBEROOTS

Herriko Plaza
Zapatua 16
22:30



A. MUSIKAL BIG BAND

Herriko Plaza
Domeka 17
13:00



NEVADAH

Herriko Plaza
Domeka 17
19:30



Ilusio berrituekin ekingo diote denboraldi berriari

Iazko denboraldi gorabeheratsua atzean utzita, areto-futboleko taldeak ilusioz begiratzen dio hurrengo astean hasiko den liga txapelketari. Hasiera berezia izango dute gainera, lehen neurketan Mondrateren aurka neurtuko dituztelako indarrak

Iñigo Barrena ESKORIATZA

Denboraldi-aurrea bere amaierara iristen ari da bailarako taldeentzat. Probak egiteko azken aukerak dituzte orain, ondoren akatsak garesti ordainduko direlako, behin lehiaketak hasitakoan. Hain zuzen, Eskoriatzako Kirol Elkarteko areto-futboleko taldea buru-belarri ari da, hurrengo astean hasiko duten liga txapelketa prestatzen. Denboraldi-aurrean jokatuak partiduetatik bakarria irabazi dute eskoriatzarrek, baina, Mikel Alkaide entrenatzaileak aitortu du "sentsazio onak" izan dituztela, nahiz eta emaitzek gehiegi ez lagundu.

Goian egoteko helburua

Iazko denboraldia ez da areto-futboleko taldearen oroimean geldituko. Duela bi urte igoerako play-offa jokatzeko sailkatu ostean, helburua berriz ere goialdean egotea zen, baina, zoritxarrez, bestelako errealitate bat bizitzea tokatu zitzaion. "Iazko denboraldia oso gogorra izan zen. Jende gutxiarekin hasi ginen lehiatzen lan kontuak medio eta taldearen dinamika ere ez zen egokiena izan. Aurten, ordea, iaz baino ilusio handiagorekin gaude, eta, gainera, uste dut taldearen kohesioa ere hobea izango dela" adierazi du taldeko entrenatzaileak.

Era berean, ilusio hori errealitate bihurtu nahi dute kantxan, eta, aldi berean, "goiko postuetan" egoteko asmoarekin lehiatuko direla azpimarratu du Alkaidek.

Lau fitxaketa berri

Aurretik aipaturiko ilusio hori, gainera, taldea indartzera etorri diren fitxaketeekin bat dator. Taldeak bi baja jasan dituen arren, lau fitxaketa egin ditu guztira taldea alor ezberdinetan indartzeko. Markel Urzelai eta Ekain Eriz jokalaria taldera



Areto-futboleko taldekideak gola ospatzen. IMANOL SORIANO

"IAZKOAREKIN ALDERATUZ, TALDE OREKATUAGOA ETA KALITATE HANDIAGOKOA DUGU"

itzuli dira denboraldi batzuen ostean, eta, "kanpotik" ekarritako fitxaketa bakarria Ander Martinez Txino-rena izan da. Azken hau, UDAko futboleko lehen taldetik iritsi da Eskoriatzara eta fitxaketa garrantzitsua dela azpimarratu du taldeko entrenatzaileak: "Kalitate eta teknika handiko jokalaria da, eta hori argi erakutsi du futboleko jokatu duenean ere. Gainera, gola duela ere erakutsi du, eta, hain zuzen, gola falta izan zitzaigun iazko denboraldian".

Baja eta fitxaketak kontuan hartuta talde sendoa osatu dutela uste du Alkaidek: "Uste dut kalitate aldetik pauso bat eman dugula aurten. Era berean, egia da bajak atzeko aldeari eragingo diola, baina, orokorrean, iaz baino talde orekatuagoa dugula esango nuke". Hiru fitxaketa

hauei, Mikel Ezeizarena batu behar zaio fisioterapeuta bezala. Jokatzeko proposamena ezeztatu ostean, fisioterapeuta bezala arituko da.

Liga hasteko, derbia

Kirolari guztiek gogoko dutena lehiaketa izaten da eta, are gehiago, aurkari zuzenak edo ezagunak aurrean daudenean. Liga hasiera bizia izango dute eskoriatzarrek Mondrateren aurka jokatu dutelako lehen jardunaldian. "Horrelako partiduak liga hasieran izatea ez da oso aproposa, ikusgarritasuna galdu dezakeelako, baina, derbi bat derbi bat da eta denboraldia irabazten hastea oso garrantzitsua izaten da" aitortu du Mikel Alkaidek.

Saskibaloiko kadeteak martxan

Areto-futboleko taldea ez ezik, saskibaloia sailekoak ere jada martxan dira. Esaterako, kadete errendimenduko taldeak denboraldi-aurreko bi neurketa jokatu ditu jada; lehen neurketa Bilbon jokatu zuten, eta bigarren partiduan, berriz, Bergarako taldea izan zuten aurkari.



Aurtengo jaietako herri afaria. AITOR AGIRIANO

Jai "jendetsuak" izan direla azpimarratu dute Udaletik

Balorazio "positiboa" egin dute eta kontzertuetan zein ekintza klasikoetan jende "asko" ibili dela diote

Iñigo Barrena LEINTZ GATZAGA

2023ko Leintz Gatzagako Andramaiak ahozapore ona utzi dute bai herritarrengan zein udal ordezkariengan. Jaiak amaituta balorazioak egiteko unera iristen da eta Leintz Gatzagako Udaletik balorazio "positiboa" egin dute hiru eguneko jai giroari erreparatuta.

Dorleta Elkorobarrutia alkatearentzat ere lehen jaiak ziren karguan eta aitortu du aurreko legegaldiko kideek "gauza asko eginda" utzi zituztela eta "eskererrak" ematea besterik ez zaiela gelditzen. Jaietako eskaintzari dagokionez, denetariko ekintzak egon direla ere esan du alkateak: "Ekitaldi eta gauza asko izan ditu aurtengo egitarauak. Uste dut, kultura aldetik azpimarratu beharra dagoela egitarau zabala antolatu delako. Gainera publiko guztiarentzako ekintzak egon dira hiru egunetan zehar". Era berean, ekitaldietan herritarren parte hartzea nabarmendu du: "Herriaren inplikazioa sekulakoa izan da. Ekitaldietan parte hartzen zein hauetan laguntzen". Gainera, aitortu du herritar askok aipatu dietela jaiak "oso ondo" antolatuta egon direla. Hori gutxi ez eta arazorik ere egon "ez" dela adierazi du alkateak eta giro "ederra" mantendu dela jaiak iraun duten hiru egunetan.

Jendetza kontzertuetan

Jaietako ekintzetan parte hartze "handia" egon dela aitortu du Dorleta Elkorobarrutiak, baina

guztien gainera egubakoitz gaueko kontzertuak azpimarratu ditu: "Bariku gauean jende gazte asko batu zen kontzertuetan eta gerturatu zirenei eskerrak eman nahi dizkiegu. Antolakuntza ere bikaina izan zen".

Kontzertuez gain, badira herriko jaietan hutsik egiten ez dituzten bestelako ekintza batzuk ere. Besteak beste, herri afaria edo domeka eguerdiko herri kirol saioa. Afarian urtero bezala ia 200 pertsona batu ziren mahaiaren bueltan, eta, alkateak aitortu duenez, "kanpotik etorritakoak" ere batu ziren afarian. Domekan, berriz, Herri Kirolek jendetza batu zuten plazan erkaustaldi bikainarekin gozatzeko.

Autobus zerbitzua

Aurten jende ugari biltzearen arrazoi nagusienetakoa Lurraldebusek jarritako autobus zerbitzu berezia jarrai izana da. "Azpimarratu beharra dugu gauzez ezarritako autobus zerbitzua. Honek jende ugari etortzea eragin du, bestela ez dut uste hainbeste jende hurbilduko zenik" dio Elkorobarrutiak. Aurtengoak igarota, atsedean hartu ostean, hurrengo urtekoak irudikatzen hasiko dira udal ordezkariak.

OSTIRAL GAUEKO KONTZERTUETAN, HERRI AFARIAN ETA HERRI KIROLETAN JENDETZA BATU ZEN

SANMARTINAK 2023



San Martin ferriako barazki, fruta eta gazta lehiaketako sari banaketa; ekoizleen parte-hartzea beherantz doa. ARGAZKIAK: GOIENA

Azoka bero baten ostean, lehertzeko prest dira jaiak

Bero itogarriarekin ere, jendetsua izan zen joan den zapatuko feria eta Moises Azpiazuren omenezko dantza txapelketak ere ikusmina piztu zuen. Gaurkoa eta biharkoa izango dira egun handienak; gaurko helduen danborradak 800 bat lagun mugiaraziko ditu

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA
Joan den asteburuan hasi baziren ere, aste bukaera honetan lehortuko dira sanmartinak. Gaur gauerako dago antolatuta ekitaldirik parte-hartzaileena, helduen danborrada -22:30ean, udal biltegitik-. Urtez urte hazten doa danborrada: 27 talde, 720 danbor eta barrika-jole, 45 lagun San Martinen gurutziltzaketaren errepresentaziorako eta gainerakoak aintzat hartuta, 800 bat lagun inguru mugiaraziko ditu ekitaldiak. Urtero legez, umeen danborradak hartuko dio lekukoa helduenari; bihar, irailak 16, udal biltegitik hasita (18:30). San Martin eta Pertxa martxak jozeko 300 bat ume batzea aurreikusten dute Udaletik.

Autobus zerbitzu berezia gauez
Danborradez gain, ohiko ekitaldiek ez dute hutsik egingo: sokamuturra; bandaren kontzertua; Xaxauk Munibe plazarako antolatutako duen egitaraua -ikus alboan-; eta Simon Arrieta pintura lehiaketa, besteak beste. Hori bai, suzko erroberarik ez da izango; izan ere, hainbat urtez Agorro-sindik botata ostean erungo araudiak ez du baimentzen eta ez da beste toki egokirik aurkitu. Bestalde, hilaren 15ean eta 16an gaueko autobus zerbitzu berezia egongo da (lurraldebus.eus).

Ferriako lehiaketak, behera
Esandako moduan, aurreko asteburuan igartzen zen San Martin *usaina* zegoela herrian. Bero itogarria egin bazuen ere, herriar asko irten ziren kalera, bereziki, zapatu goizeko ferian. Azokako 27 postuetan edota Seminarixoa aretoan Erlantz Olabarriak familiei zuzendutako erakustaldian jende asko elkartu zen. Hori bai, urte luzez azokako klasiko izan diren fruta eta barazki lehiaketek ez dute unerik gozoena bizi; aurtan bost ekoizlek eman dute izena eta bik aurreratu dute 2024an ez dutela parte hartzeko asmorik. Parte-hartzeak behera egin arren, produktuak goi mailakoak izaten jarraitzen dute. Barazki onena-



Murgiondo eta Galarraga, irabazi berritan.

ren 600 euroko saria Bergarako Eskubaratz-ek eraman zuen; 550 euroko bigarren saria, Soraluzeke Ezozki Etxebarriak; eta 500 euroko hirugarren saria Bergarako Mari Karmen Etxeberriak. Fruta onenaren 600 euroko Igorreko Untza Sarrionandiak irabazi zuen; bigarren saria banatu gabe geratu zen, baina Mariaren Lagundia ikastetxeari eman zioten, azokan izandako presentziagatik; eta hirugarren fruta onenaren 500 euroko saria Jose Lonbidek irabazi zuen.

Gazta lehiaketarako hamalau ekoizlek eman zuten izena, iaz baino bat gutxiago, eta Lekarozeko Kortaria izan zen onena.

Galarraga eta Murgiondo nagusi
Azokaren egun berean egin zen, plazan bertan, bikote nagusien dantza solte txapelketa. Bergarako Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo izan ziren irabazleak: "Herrian irabaztea ederra da. Aurtan, gainera, plazan dantzatu dugu eta ez Seminarixoan; beste xarma bat dauka". 200 euro eta zapi bana jaso zituzten sari moduan dantzari bergararrek. Bigarren bikoterik onena, Laura Bastida eta Ekain Uzkudun azpeitiarrek osatutakoa izan zen (180 euro). Hirugarren, Nora Aizpuru eta Iker Zabala azpeitiarrak sailkatu ziren (170 euro).

Bigarren asteburuko egitaraua

IRAILAK 15, OSTIRALA

SAN MARTIN AGIRRE BEZPERA

- **18:30-20:00** Txorotxaranga, San Martin plazatik hasita.
- **19:00** Munibe plazako Txosnagunearen irekiera.*
- **20:00** Kontzertua, Munibe plazako txosnagunearen.*
- **22:30** NAGUSIEN DANBORRADAREN irteera. Ibilbidea: Udal biltegia, Masterreka, Bideberri, Ibargarai, Herrilagunak, D. Irala, Irizar, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Barrenkalea, San Martin plaza.
- **23:30** SAN MARTINEN ERREPRESENTAZIOA Bergarako Musika Bandaren laguntzarekin San Martin plazan.
- **00:15** Joselu Anaiak taldearekin ERROMERIA San Martin plazan.
- **02:00** DJ saioa, Munibe plazako txosnagunearen.*

IRAILAK 16, LARUNBATA

SAN MARTIN AGIRRE EGUNA

- **09:00** SOKAMUTURRA, Barrenkalean eta San Martin plazan. 16 urtetik beherakoek eta alkohola edo bestelako drogaren baten eraginpean daudenek debekatuta dute sokamuturrean parte hartzea.
- **11:00** DIANA, Bergarako Txistulari Bandarekin.
- **11:30** KALEJIRA Musika Bandarekin. Ibilbidea: San Martin Plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Burdiñate, Barrenkalea, San Martin Plaza.
- **12:30** ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA Seminarioko patioan.
- **12:30** Bergarako Musika Bandaren KONTZERTUA San Martin plazan (euriarekin Udal pilotalekuan).
- **14:30** TXOMINGEROEN BAZKARIA. Ondoren, Bingo Musikatua. Munibe plazako txosnagunearen.*

- **17:30** DJKarro ibiltaria. Munibe plazako txosnagunetik hasita.*

- **18:30** HAURREN DANBORRADA. Ibilbidea: udal biltegia, Masterreka, Bideberri, Ibargarai, Herrilagunak, D. Irala, Irizar kalea, Barrenkalea, San Martin plaza. Musika eskolaren Gazte bandaren laguntzarekin. Bukatutakoan TXOKOLATEA.

- **22:30** SUZKO

ZEZENA. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta, Komenio kalea, Bidekurutzeta, San Martin plaza.

Udalak ez du beregain hartuko jendeak izan ditzakeen kalteen erantzukizunik.

- **22:45** KONTZERTUAK ETA ERROMERIA, txosnagunearen.*

IRAILAK 17, IGANDEA

- **09:00** SOKAMUTURRA, Barrenkalean eta San Martin plazan. 16 urtetik beherakoek eta alkohola edo bestelako drogaren baten eraginpean daudenek debekatuta dute sokamuturrean parte hartzea.
- **09:00** Aire libreko 48. SIMON ARRIETA PINTURA LEHIAKETA, Beart elkarteak antolatua. Sari banaketa **15:00**ean izango da udaletxean.
- **17:00** ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA Seminarioko patioan.
- **18:30** Bergarako Erraldoi konpartsaren KALEJIRA, Bergarako Txistulari Bandak, eta Elgoibar eta Arrasateko dultzaineroek lagunduta. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta kalea, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Masterreka, Bideberri, Fraiskozuri, Irizar, Barrenkalea eta San Martin Agirre plaza.
- **20:00** PURO RELAJO taldearen kontzertua San Martin plazan.

* Antolatzailea: Xaxau Konpartsa.



Bergarako Udaleko eta Oinherri Herri Hezitzaileko ordezkariak Zabalotegiko haur parke berrian. B.U.

Umeekin diseinatutako parke berria, erabilgarri

Udalak amaitu ditu Zabalotegiko parke berrirako obrak, diseinu fasean umeen iritzia aintzat hartu ostean; kioskoa birgaitu, eremu osoa asfaltatu eta azpiegitura zaharraren bueltan jolas eremu berria eraikitzeke inbertsioa izan da 158.687 eurokoa guztira

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Udalak amaitu ditu Zabalotegiko haur parkea berritzeko obrak. Urte hasieran ekin zieten lanei eta aurreikuspenen barruan bukatu dituzte; obra amaitu berrian, Udaleko eta Oinherri Herri Hezitzaileko ordezkariak bisita egin zuten eremura. Bisita adierazi zuten, jolasarako eremu berri hau Bergarako

umeekin elkarlanean diseinatu zuten hastapenetan.

Elkarlanarekin "oso pozik"

Udaleko Herritarren batzordeko arduradun-zinegotzi Maite Usabiagaren arabera, "oso pozik" dago Udala emaitzarekin, eta, batez ere, herriko umeekin egindako elkarlanarekin: "Proiektu txikiago bat izan behar

zena, gunearen birgaitze osatuago bat izaten bukatu du, eta horri esker lehendik ahaztuta zegoen gune hau umeentzako berreskuratu dugu. Askotan esan ohi dugu umeen ikuspuntuak gure egunerokotasunean txertatu behar ditugula, baina nahi baino gutxiagotan eroaten dugu hori praktikara. Proiektu honen bidez euren nahiak eta

beharrak jasotzen saiatu gara". Oinherri Herri Hezitzaileen sareko kide da Bergara, eta horren filosofiari jarraituta egin da gunearen diseinua. Gune berrituak 700 metro koadro ditu, eta jolas jarraiturako gunea izango da, egur naturalarekin egindako elementuak dituena. Umeek material naturalak ukitu, sentitu eta elkarri eragiteko aukera izango dute.

Ekipamendua kiosko inguruan

Ekipamendu berriak kioskoko hexagonoaren bi aldeetan kokatutako dorre-modulu bat dauka. Bertan, igoera sare bat, txirrista, tunela, arbela, eskalada-pareta, bankua eta soka ahula daude. Era berean, enbor eta sokazko baso bat ere badu; hiru aurpegiko rokodromo bertikal bat; txikiendako bentatxo bat

eta jolas sinbolikoetarako mahai bat; gurpil aulkientzako arrapala irisgarria eta alboetako itxiturak, jolasarako irekiguneekin; eta plataforma inklinatuez eta sokaz osatutako igoera multzo bat. Kioskoaren kanpoaldean, gainera, habia bat jarri da, eta espazio osoan segurtasun zoru bat jarri dute.

Horretaz gain, bankuak, paperontziak eta alboko horman babes baranda bat jarri dira, baita iturri bat ere. Argiztapen sistema berri egin da, bost luminaria eta sodio lurrunezko lanparen ordezkari LED teknologiako beste batzuk jarritz, inguruko energia eraginkortasuna eta baldintza luminoteknikoak hobetzeko. Era berean, sei argi gehiago jarri dira parkearen atzeko oinezkoendako pasealekua hobeto argiztatzeko.



Zabalotegiko umeen gune berria erabilgarri dago. B.U.

Gunea birgaitu eta jolas eremua egin

Zabalotegiko jolas eremu berrirako lanek bi atal izan dituzte: batetik, kioskoa birgaitu behar izan da eta asfaltatze lanak egin dira 110.788 euro inbertsioarekin, eta, bestetik, kioskoaren inguruan jolas eremua antolatu da 47.899 euroko inbertsioarekin.

Boxeoa Boluko pilotalekuan

Gaszte Koordinadora Sozialistak eta Ikasle Abertzaleek egitarau berezia antolatu zuten hilaren 9an ikasturte politikoari ekiteko. Boxeo erakustaldia izan zuten Boluko frontoian, eta kontzertuak ere izan ziren Kartzela zaharrean. Gainera, gogora ekarri dute urriaren 11tik 15era Atarrabian eta Burlatan Gaszte Topagune Sozialista egingo dutela; informazio gehiago: www.gks.eus.



JOKIN BEREZIARTUA LIZARAZU

OHARRAK

Udal euskaltegian izena emateko aukera

Irailaren 27ra arte matrikulatu daiteke (euskaltegia@bergara.eus edo 943 76 44 53); eskaintza zabalago egongo da. Bestalde, euskara ikasteko edo ikasketa osagarriak euskaraz egiteko dirulaguntzak eskatzeko azken eguna da gaur: euskara@bergara.eus.

Pilota Saila: 2023-2024ko denboraldiari hasiera

Gaur bigarren kadete mailako Gipuzkoako eskuz binakako txapelketa barruko partidua jokatuko da Bergara –Contreras eta Ilardua– eta Azpeitia artean (19:00), udal pilotalekuan.

Wikipedia editatzen ikasteko tailerra

Irailaren 21ean, Ehunduren bulegoan, 18:30etik 20:30era.

Ekinola jardunaldiak egingo dira irailaren 27an

Duela hiru urte hasi ziren gazte ekintzaileei zuzendutako jardunaldiak antolatzen eta azken bi urteetako balorazio positiboa egin du Bergarako Udalak; aurreko edizio bakoitzean hogeik ikasle elkartu badira ere, aurtengoan laurogei izango dira

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Hirugarren urtez, *Ekinola Etor-kizuna zure eskuetan* ekintzailetza jardunaldiak egingo dituzte irailaren 27an Bergarako Miguel Altuna Heziketa zentroan. Ideia berri eta berritzaileak dituzten nahiz ekintzaileak diren gazteei zuzendutako jardunaldiak dira, eta horien bidez, autoenpleguaren inguruan sentiberatze lanketa eginez, enpresen eta ekintzaileen arteko harremanak sortu, elkarrezagutza sustatu, eta negozio ideia berritzaileak partekatu eta landu nahi dituzte. Miguel Altuna Lanbide Heziketak, Mariaren Lagundiak, Udalak eta Enpresare elkarteak antolatu dituzte elkarlanean, Debagoieneko Mankomunitatearen eta Tknikaren laguntzarekin. Tazebaez aholkularitza taldeak dinamizatuko ditu.

Eguaztenean egin zuten aurkezpen ekitaldia eta Ainhoa Lete Bergarako alkateordeak adierazi zuen enpresek eta ekintzaile gazteek elkarren beharra dutela, eta jardunaldiak badirela horretarako zubi. Azken bi urtetako jardunaldien balorazio positiboa egin zuen, eta bide horretan sakontzeko konpromisoa hartu zuen. Aurtengo jardunaldien helburuak ere zehaztu zituen; hala nola, ekintzailetza bultzatzeko ekosistema garatzen jarraitzea enpresen eta ekintzaileen arteko harremanak sortuz, negozio ideia berritzaileak partekatu eta lantzea, ekintzailetza espiritua sustatzea sentibilizazio lanketekin edota enpresa berrien sorrerarako baliabideen mapa ezagutzera eman eta laguntza eskaintzea. Landuko dituzten erronkak izango dira, berriz, industria, zaintza, kultura, etxebizitza eta kulturartekotasuna.

Orain arteko partaide gehien

Miren Fernandez Tazebaez aholkularitza taldeko dinamizatzaile



Ekinola antolatzen duten eragileetako ordezkariak eguaztenean. XABIER URZELAI

ZORTZI TALDETATIK IDEIA ONENA GARATZEN DUENAK 1.000 EUROKO SARIA ESKURATUKO DU

lea da eta egubakoitzean aurreratu zuen aurtengo Ekinolaren berezitasun nagusia ikasle kopuruan dagoela, "asko" handitu baitute: "Azken urteetan, 20 ikasle bueltan izan ditugu; aurtent, 80ra egin dugu salto. Denak Lanbide Heziketakoak; bai Miguel Altunakoak, baita Mariaren Lagundikoak ere".

Miguel Altunako Ion Zaldua irakasleak ere partaide kopuruan jarri zuen azpimarra: "Urrats Bat programa daukagu non ekintzailetasuna lantzen den. Duela hiru urte hasi ginen Udalarekin harremanetan jarri eta jardunaldi batzuk sortzeko asmotan eta aurreko bi ediziotan arrakastatsua izan da. Aipatu, 20 lagunekin hasitako jardunaldiak izan direla eta aurtent, urrats bat aurrera eman dugula".

Mariaren Lagundiak iazko edizioan hartu zuen parte lehen

aldiz eta esperientzia "abergarria" izan zen eurentzat. "Uste dugu oso aberatsa dela beste diziplinetako ikasleekin eta beste ikuspegi batzuekin elkartuz lanean aritzea gure gizarteak daukan behar berri horiei erantzuna emateko eta ekintzailetasuna bultzatzeko gure ikasgelan. Uste dut denon artean elkarlan polita egiten ari garela", zioen Mariaren Lagundia Ikastolako Saioa Puebla irakasleak.

Ideia onenak, saria

Hamar kideko zortzi taldetan egingo dute lan partaideek eta Tazebaezeko dinamizatzaileak aurreratu zuen erronkei irtenbide bat emango dietela, berrikuntza irekiko prozesua jarraituta: *brain storming* batekin, ideia aukeratzuz, ideia horien negozio eredua landuz, besteak beste: "Prototipo baten bidez lagunduko dute bukaeran beste ikasle guztien aurrean aurkeztuz". Aurkezpenen ostean, ideia irabazleak 1.000 euroko saria jasoko du, eta horrekin batera, jardunaldietan herriko enpresa bat ere omenduko dute, nahiz eta oraindik ez duten izenik aurreratu.

Adiskide numerario izendatuko dute Valen Moñux irailaren 23an

Urte askoan zehar Bergarako ondare artistikoa eta kultura musikala sustatzeagatik izendatuko dute

I.A.A. BERGARA

Euskalerrriaren Adiskideen Elkar-teak Adiskide numerario izendatuko du Valen Moñux bergararra, urte askoan zehar Bergarako ondare artistikoa eta kultura musikala sustatzeagatik. Ogibidez arkitekto teknikoa bada ere, musika-tradizio handiko herriko familia baten jaioa da. Bergarako Orfeoia, Bergarako Musika Eskola edota Bergarako Antzerki Musikala elkarteak garatu du bere ibilbide artistikoa. Horren adibide dira, esaterako, San Martinen errepresentazioa

edota *Miserableak*, *Oliver!* eta *Bretxa* musikalak.

Ekitaldia hilaren 23an Seminarixoa izango da, eguerdiko hamabietatik aurrera. Ainhoa Letek, Bergarako alkate-ordeak emango du ongi etorria. Ostean, Luis Elizegik, Gipuzkoako Euskalerrriaren Adiskideen Elkar-teko lehendakaria denak emango dio hasiera ekitaldiari, eta, honekin amaitzeko, domina eta diploma jasoko ditu Moñuxek. Ekitaldian zehar musika emanaldiez gozatzeko aukera ere izango dute bertaratutakoek.



BERGARAKO UDALA

Mantentze-lanak Agorrosinen

Astehenean hasi zituzten urteroko mantenu-lanak Agorrosingo kiroldegian "ikasurte berria baldintza onenetan hasteko asmoz" eta domekara bitartean iraungo dute. Bergarako Udalak adierazi du aste osoan zehar kirol gunea eta taberna itxita egongo direla. Kanpoko igarilekuak, berriz, gaur itxiko du udako denboraldia.

Kontzertuekin hasiko du denboraldi berria Angiolillo liburutegiak

Irailaren 21ean, eguena, Angiolillo liburutegiak hasiera emango dio bere 15. denboraldiari bi kontzertuekin. Alde batetik, Black Magic Six bikote finlandiarrek eskainiko du emanaldia. Antolatzaileek aurreratu dutenez, "lehen aldia da, Alemaniatik behera jotzen dutena. Ez dute ez hemen, ez Espainian, ezta Franzian zein Italian jo". Garage,

trash, blues eta punk nahasketa egiten dute. Bestalde, pub-rock eta punk-rock nahasketa egiten duen Bamms talde hernaniarra arituko da. 2017an sortua eta 2021ean kaleratu zuten disko bakarra. Kartzela zaharrean izango dira, 19:30ean hasita eta sarrerak zortzi euro balio du. Angiolillo liburutegitik azaldu dute 15 urte hauetan 90 ekintza burutu egin dituztela, gehienak liburu aurkezpenak izan arren, antzerkiak eta kontzertuek ere izan dutela euren lekua.

"Patroi konbentzionalak apurtzen saiatzen naiz"

AMAIA SANTAMARIA ARTISTA BISUALA ETA HEZKUNTZA ARTISTIKOKO IRAKASLEA
Bost urte daramatza sorkuntza artistikoko tailerrak gidatzen eta garrantzia ematen dio irudimenari eta lan prozesuari teknikari baino; ikasturtea urriaren 6an hasiko dute

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
2018an hasi zen Amaia Santamaria (Bergara, 1992) Bearten egoitzan sorkuntza artistikoko tailerra eskaintzen. Aurtengo ikasturtea urrian hasiko du eta ekainera bitartean margogintza, argazkigintza, irudigintza, eskultura eta collage diziplinak landuko dituzte ikasleek ekainera bitartean, egubakoitzetan, 17:00etatik 20:00etara. Oraindik eman daiteke izena.

Nola definitzen duzu sorkuntza artistiko tailerra?

Kurtso transdiziplinarra da. Teknika ezberdinak irakasten ditut eta horiek lantzeko ariketak proposatzen ditut. Gero, sustatzen dut sorkuntza prozesua aktibatzea. Norberak ematen ditu bere pausoak eta nik horretan laguntzen dut. Nire helburua da ikusaraztea teknika ez dela lan interesgarriak sortu ahal izateko bide bakarra. Gehiago zentratzen naiz prozesu sortzailean. Garrantzitsua ez da teknika, baizik eta teknikarekin zer egiten duzun eta zer zentzu duen egiten duen horrek.

Tailer transdiziplinarra da. Diziplinen arteko loturak egiten dituzu. Saiatzen naiz hori egiten, orokorrean, oso ohituta baikaude dena banatzen: marrazkia alde

batetik, eskultura bestetik... Baten ikasitakoak, besterako ere balio dezake eta elkarren artean nahastu daitezke. Bloke bakoitzean materiala sortzen dugu, baina aurreko atalean landutakoa ahaztu beharrean, hurrengo diziplinan erabiltzen dugu. Marraztu dezaket aurretik hasia nuen pintura bat...

Lan egiteko modu horretara erraz ohitzen dira ikasleak?

Esan bezala, diziplina batetik besterako aurkezpenean, aurretik ikasitakoa datorrenarekin erlazionatzen dut. Tendentzia da diziplina berriarekin hastean, aurrekoa ahaztea. Beraz, gogorazi egin behar izaten diet landutakoa.

Esperientzia ez da beharrezkoa

Santamariak dio kurtsoa nerabe nahiz helduendako dela eta esperientzia ez dela beharrezkoa parte hartzeko: "Taldea oso heterogeneoa izaten da. Denetik dator". Azaldu du badirela teknika "oso ondo" menderatzen dutenak, baina ez direnak oso sortzaileak, edota alderantziz: "Teknika menderatzen dutenak ez dira teknizismo horietatik ateratzen; teknika gutxi dutenek, berriz, euren burua gutxiesten dute, baina, agian, sorkuntza gehiago daukate".

Urriaren 6an hasiko dira klaseak eta oraindik izena eman daiteke 690 25 14 50 telefonora deituta edo beart.elkartea@gmail.com helbide elektronikora idatzita. Bestalde, aurreko urteetako lanak eta informazio gehiago Santamariaren [@xaantz](https://www.instagram.com/xaantz) Instagram kontuan daude.



Ikasle batek egindako lan bat. A.S.



Amaia Santamaria. A.M.

Zer da errazagoa, teknika lantzea ala sorkuntza lana?

Teknika errepikapenez landu daiteke eta norbere kabuz ikastea errazagoa da egungo baliabideekin. Niretzat interesgarriena prozesua eta sormena dira eta saioetan giro ona eta eroso lortu nahi izaten dut ideiak elkarbanatzeko. Esaten diet azaldutakoa bakoitzak bere interesera eraman eta ikusteko zerekin disfrutatzen duten.

Sorkuntzan kopiara jotzen dute?

Ez baduzu sorkuntzan praktika handia eta iruditeria aberatsa, askatasun gutzia uzten duzunean, tendentzia da patroik konbentzionalak errepikatzea; beraz, horiek elikatzeko baliabideak eskaintzen ditut. Hona datozen askok teknika nahi dute, "ondo" marrazten ikasi. "Ondo" hori da euren artea dena, normalean, zerbait errealista. Saiatzen naiz hori apurtzen. Erreferente asko ikusten ditugu ideia asko hartzeko, konbentzioak apurtzeko, beste modu batean egin ahal dela ikusteko... Beste oinarri bat izaten hasten zare-

nean, iruditeria zabaltzen da eta errazagoa da gauza ezberdinak egitea. Kopiatzea aitzakia izan daiteke bidean ateratakoari aukera emateko. Mugak hain zurrinak ez direnean, erabaki gehiago hartu behar dira eta kurtsoan zehar segurtasuna hartu eta askatzen dira.

Zure iritzi, bergararrak irudimen handikoak dira?

Tradizioa badago eta pintoreak badaude, gehienak gizonak. Esan beharra daukat, nire klaseetara emakume gehiago etortzen direla. Hor bada zerbait. Jendeak esaten du: "Balio duzu edo ez duzu balio. Hori da jaiotzetik ona zaren edo ez". Ez da hala. Beste edozer bezala ikasi egiten da eta egin ahala aurrerapausoak ematen zoaz: erreferenteak ikusi, sortzaileen lanak ezagutu...

Tailer honetatik atera da ikasleren baten erakusketarik?

Ikasle emakumeek izan dute aukera M8-ko Bergarako emakume artisten erakusketan parte hartzeko. Bestela, baten batek bai, baina lehenagotik ere erakusketak egindakoak dira.

Ilatargi astronomia elkartearen erakusketa ikusgai Aroztegin

Debagoiena mailako astronomia elkarteko kideek ateratako argazkiek osatzen dute argazki-bilduma


I.A.A. BERGARA

Duela astebete ireki zituen atek Debagoiena mailako Ilatargi astronomia elkartearen *Unibertsoari begirada; unibertsoko mirariak kameratik ikusita* erakusketak. Argazkilaritza mun-

duan dabilzan elkarteko kideek urteetan zehar ateratako argazkiek osatzen dute bilduma eta horietan daude jasota zeruarekin zerikusia duten gai ezberdinak: astroak, garaiko zeruak... Erakusketarekin Debagoiengan

astronomia elkarte bat dagoela ikusarazi nahi dute, baita jendea euren ekintzetan parte hartzera animatu ere: "Argazkilaritza munduan sartuta dagoena eta gaueko argazkilaritzari buruzko interesa duenak posible du gurekin kontaktuan jarri eta egiten diren behaketa eta halako saioetan parte hartzea".

Hilaren 24ra ikus daiteke Aroztegin, martitzenetik egubakoitzera 18:00-20:30, zapatuan 12:00-14:00 eta 18:00-20:30 eta domeka nahiz jaiegunetan 12:00-14:00.



Ilatargi kraterra. MIKEL LASA

Euskara batzorde irekia hilaren 19an batuko da

Legegintzaldi berrirako batzorde propioa izango du euskarak, eta martitzenean batzartuko dira lehen aldiz Olatz Lezeta alkatea eta EH Bilduko Juan Kruz Lizarralde, modu irekian, gaian interesa izan dezaketen herritarren ekarpenak jasotzeko asmoz

Mireia Bikuña Madrid ANTZUOLA

Uztailaren 6an egindako osoko bilkuran adostu zuen udalbatzak zeintzuk izango ziren legegintzaldi berrirako batzordeak: sei. Orain arteko Lurraldea, Sormena, Ongizatea eta Ogasuna batzordeei beste bi gehitu zizkieten: Ingurumena eta Euskara. Azken hori hilaren 19an batuko da lehen aldiz. Hori ere, irekia izango da, gainerako batzordeen moduan: 18:30ean izango da, udaletxean.

%60ko erabilera

Orain arte euskara arloko gaiak Sormena batzordean landu izan dira. Baina, euskararen kaleko erabilerak izan duen beherakadak kezkatuta, euskarari berrari batzorde bat ematea erabaki dute. "Euskararen erabilera jaitsi egin da, eta garrantzia eman nahi diogu. Inportantea iruditzen zaigu bakarka lantzea. Duela gutxira arte hurrek ez zuten gaztelaniaz berba egiten kalean. Ez zen halakorik entzuten. Egun, izugarria da joera hori; eta horrek kezkatzen gaitu", esan du Euskara Batzordeko buru Olatz Lezeta alkateak. Soziolinguistika Klusterrak 2021ean egindako kale-neurketaren arabera, %60koa zen euskararen kale erabilera. Horren



Uztailaren 6an egindako osoko bilkuran, udalbatzako kideak. AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN JAITSIERA AZTERTU GURA DUTE, BESTEAK BESTE

arabera, bost puntu jaitsi da erabilera. Bada, beherakada horri adarretatik nola heldu dakiok? "Umarekin elkarlanean gabiltza. Plangintza bat osatu nahiko genuke, eta ekintza zehatz batzuk egin. Baina, aurretik,

lanketa bat egingo dugu, nondik nora joan gaitezken zehazteko".

Irekiak dira batzordeak

Euskara batzordea, gainerako guztien moduan, irekia da. Hala, Udalak horietan parte hartzeko dei egin du. "Euskararen kale erabileraren joera aldatzeko proposamenen bat dutenak, etor daitezela batzarrerara. Ekarpinak jaso gura ditugu".

Olatz Lezeta alkatea eta EH Bilduko zinegotzi Juan Kruz Lizarralde dira Euskara Batzordeko kideak.

Yoga eta eskulan ikastaroetako izen-emateak zabalik daude

Interesatuak udaletxean eman behar dute izena irailaren 29a baino lehen, izen-emate orriak beteta

M.B.M. ANTZUOLA

Eskulan eta yoga ikastaroak gertu ditu kultura sailak. Biak ala biak, urriaren 3an hasiko dira, baina, aurrez, izena eman beharko da. Udaletxean dauden izen-emate orriak bete behar dira, hilaren 29a baino lehen.

Haurrak eta helduak

Eskulan ikastaroetan hurrendako (lehen mailatik gora) eta helduendako taldeak osatuko dira. Bina talde: haurrenak, eguztenetan, 17:30-18:30 eta, eguenetan, 16:45-17:45; eta, helduenak, eguenetan, 14:45-16:30 eta 18:00-19:45. Haurren taldeetan hamaika ume onartuko dituzte, gehienez. Kopurua gaintzen bada, zozketa egingo dute.

Eskulan ikastaroetako irakaslea Edurne Uribesalgo izango da, eta ekaineko hirugarren astean bukatuko dira.

Yoga eta gimnasioa

Yoga ikastaroan hiru talde osatuko dituzte, astean bitan eskolak hartzeko: martitzenetan eta eguenetan, 10:30-12:00, 17:00-18:35 eta 18:45-20:15. Ikastaroan erabiltzeko eta norberak eraman beharreko materiala izango dira arropa eroso, esterila eta manta bat.

Azkenik, gimnasioko ate irekiak irailako azken astean izango dira: 25etik 29ra.

Antzerki eskolak

Udalak antolatzen dituen ikastaroek harago, badago antzerki eskolan parte hartzeko aukera. Martitzenetan emango dituzte antzerki eskolak: 18:15etik 19:30era hurrendako, eta 19:45etik 21:15era helduendako. Informazio zabalagoa eta izena emateko orriak www.dap.eus webgunean daude.

Odola emateko aukera datorren martitzenean

Udako oporren osteko lehen deialdia egin du Antzuolako odol-emaileen elkarteak. Hala gura duten guztiek, eta hurrenkeraz tokatzen zaienak, odola eman ahal izango dute Torresoroan, hilaren 19an, 16:45etik 20:45era. Hori horrela, aurrez deitu behar da, egunean bertan, 943-00 78 85 telefonora, hitzordua eskatzeko.

2023ko azken odol-ateratzea izango da hurrengo asteko martitzenekoa. Antzuolan hiru deialdi egiten dira urtero, lau hilean behin: urtarrilean, maiatzean eta irailean. Batz beste, deialdi bakoitzean, 70 bat antzularrek ematen dute odola.

Gizonezkoek urtean lau alditan eman dezakete odola, eta emakumezkoek, berezkoa duten odol galerarengatik, urtean hirutan. Beti ere, ongietorriak izaten dira lehen aldiz odola eman gura duten gazteak.

Hamar lagunetik sei euskaraz

Bost urtean behin egiten ditu Soziolinguistika Klusterrak euskararen kale erabilera neurketak. Antzuolan 2021ean egin zen neurketa, eta emaitzak 2022ko irailean aurkeztu zituzten herritarren aurrean. Txostenaren titular nagusia izan zen hamar antzularren artean seik egiten zutela euskaraz kalean. Edo, beste modu batera esanda, %60k.

Atzera begira jarrita, beste datu bat geratu zen agerian azterketan. Klusterrak 2016an egindako kale-neurketarekin alderatuta bost puntu egin zuen behera erabilerak, eta 2011n egindako ikerketatik, bederatzik. Nahikoa datu, ondorio esanguratsu bat ateratzeko: beheranzko joera nabarmena, herriko euskararen kale-erabileran. Kezkatzeko datuak.

Adinaren arabera

Adinari erreparatu gero, hurrek 2016ko euskararen erabileraren mailari eutsi diotela ondorioztatu zuen Klusterrak. Gainerako adin taldeek, aldiz, gutxiago eutsi zioten euskararen erabilera mailari, eta beheranzko joera zen nagusi talde horietan.

Alegia, gaztelaniaren erabilera geroz eta presenteago dago egunerokotasunean, adinari erreparatu barik.

Aiherra-Antzuola senidetze eguna, urriaren 28an

Urriko laugarren zapatuan izango da Aiherra-Antzuola senidetze eguna. Oraingoz hori bakarrik zabaldu dute udal ardura-dunek, herritarrei gogorarazteko egun horretan hartuko dituztela aihertarrak herrian. Izan ere, aurten, Behe Nafarroako herritarrei dagokie bisita egitea. Era berean, lehen senidetze eguna izango da egungo udalbatza-

rendako. "Mimo" handiz eta "gogotsu" dihardute egunaren prestatze lanekin. Egun horretan egingo den bazkarirako txartelak aurrerago ipiniko dituzte salgai, ohiko lekuetan.

1984an Belzuntze elkarteari esker sortutako harremanak ia ez du etenik eduki, pandemian izan ezik. Txandaka antolatzen dituzte senidetze egunak, bi herrien artean tradizioak eta folklorea elkarbanatuz. Besteak beste, hango eta hemengo dantza emanaldiak egingo dituzte.



Erregional Preferenteko jokalariek eta entrenatzailea martitzeneko lan saioa hasi aurretik, Ezatalan. M.B.M.

"Indartsuak izan behar dugu etxetik kanpo"

Erregional Preferenteko taldeak zapatuan ekingo dio denboraldiari Ilintxaren kontra, Legazpin, eta hori da duen erronka nagusietako bat: maila mantentzeko iaz baino sufrimendu gutxiago izateko, puntuak lortu behar dituzte Ezatalatik kanpo

Mireia Bikuña Madrid ANTZUOLA
Erregional Preferente mailako futbol txapelketa asteburuan hasiko da, eta Antzuola prest dago denboraldiari aurre egiteko. Etxeko-lanak eginda, lehiazten hasteko gogotsu daude Aitor Aierberen mutilak. Lehen aurkaria Ilintxa izango da, eta Irene Paredes futbol zelaian jokatuko dute, zapatuan, 17:30ean. "Aurtengo lehen lagunartekoa beraien kontra jokatu genuen, Legazpin. Talde indartsua da, zelaiko lerro guztietan. Arlo taktikoa ondo lantzen dute eta teknikoki onak dira, Preferente mailarako. Goiko postuetan egongo den taldea da, eta beraien zelaian jokatzen dugu. Hortaz,

zaila izango da", aipatu du Aierbe entrenatzaileak.

Baina futbolarietarako badakite aurrean ipintzen zaizkien hainbat zailtasunen kontra egin beharko dutela aurten ere. Maila mantentzea dute helburu, eta horretarako badakite zein diren bete beharreko erronka nagusiak. "Iaz, bost puntu bakarrik lortu genituen etxetik kanpoko partiduetan. Oso gutxi; izan ere, horrek behartzen zaitu etxeko puntu guztiak edo ia guztiak irabaztera. Hortaz, indartsuagoak izan behar dugu Ezatalatik kanpo, denboraldi lasaiagoa eduki ahal izateko. Era berean, etxekoetan maila eman beharko dugu".

Jokalari gutxi

Denboraldi-aurrea hasteko unean zailtasunak izan zituen taldeak jokalarikopuru duin bat lortzeko: abuztu erdialdean hemezortzi jokalarikopuru bakarrik zituen Aierbek. "Lana izan dugu bai. Zalantzak zituzten jokalariekin berba egin behar izan genuen, lana eta ikasketak entrenamenduetan nola bateratu aztertzeke. Egun, Zumarragako jokalarikopuru batzuk daude gurekin, proba modura. Hogeitabat jokalariekin hasiko dugu denboraldia. Gutxi. Txapelketa oso luzea da, eta gorabehera asko egoten dira. Niretzat proposena 22-25 jokalarikopuru artean izatea da", aitortu du entrenatzaileak.



M.B.M.

"Landutakoa erakusteko unea da"

JON BALEZTENA
KAPITAINA

Txapelketa hasteko gogotsu?

Bai. Denboraldi-aurrean lagunartekoak jokatu arren, ez dira intentsitate berarekin jokatzen. Txapelketak berak sorrarazten duen adrenalina puntua ez du beste ezerk sortzen. Orain arte landu duguna zelaian erakusteko unea heldu da. **laz sufritu egin zenuten maila mantentzeko?** Hala da. Gabonak arteko partiduetan ikusten da denboraldi-aurrean egindako lana. Iaz, oso eskas ibili ginen lehen hiruhilekoan eta gero asko sufritu genuen. Asmoa da Gabonak arte ahalik eta puntu gehien batzea. **Derbiak ez dira faltako maila honetan.** Inguruko taldeen kontra hainbat partidu jokatuko ditugu, eta horrek giro aparta sortuko du Ezatalan.

Energia eta dirua aurrezteko saio praktikoa

'Energia Argitu' programaren baitan egingo dute 20an; izena aurrez eman behar da

M.B.M. ANTZUOLA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak, Antzuolako Udalarekin eta Debagoieneko Mankomunitatearekin elkarlanean, *Energia Argitu* programaren baitan, modu eraginkorrean erabiliz eta erosotasunik galdu gabe, energia eta dirua aurrezteko gomendioak ezagutzera emateko tailerra egingo du. Olanan etxean izango da, hilaren 20an, 18:30ean. Doako tailerra da, baina aurrez eman behar da izena: argitu@gipuzkoa.eus helbidean edo 628 530 303 telefonoan.

Nork bere etxean ezarri ditzakeen eraginkortasun neurriak eta energia aurrezteko balio duten ohitura aldaketak zein diren azalduko dute. Parte-hartzaileei *Energia-aurrezkiari eta eraginkortasunari buruzko aholku praktikoen gida* banatuko zaie.

Gaiarekin jarraituz, urriaren 3an *Energia Argitu Kit* delako ekimena egingo dute. Urriko saiora joaten direnei *Kit maleta* etxera eramateko aukera emango zaie, etxean energia galerak non dituzten neurtzeko aukera izan dezaten. Ostean, aditu baten aholkuak jasoko dituzte, galerak ekiditeko.

Donapaleun dantzan

Oinarin dantza taldeko ordezkariak Donapaleun (Behe Nafarroa) egon ziren aurreko zapatuan dantzan. Duela 500 urte Nafarroako Estatu Nagusiak bildu zirela oroitu eta ospatu zuten han. Antzuolarrek makil txiki dantzatu zuten kalejiran, eta Antzuolako zinta dantza eta arku dantza *Nafarroa Bizirik* ikuskizunean. Guztira, 170 pertsona egon ziren oholztan.



ION LIZARAZU

MUJKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Udazken jaia, uda osteko lehen herri ekitaldia

Egun osoko egitaraua prestatu dute Gazte Asanbladak, Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak eta Elgetako Udalak hilaren 23rako. Jakinarazi dute zabalik dela izen-ematea baserritarren eta artisauen azokarako zein patata tortilla lehiaketarako

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Bihar zortzi ospatuko da Udazken jaia, eta herriko baserritarren eta artisauen urteroko azokarekin hasiko da. Dozena bat postuk osatu ohi dute azoka, eta aurten ere bertan parte hartzeko deia egin diete herritarrei antolatzaileek. Herrian edota herritarrek ekoizten dituzten produktuekin osatzen da azoka eta iaz moduan aurten ere barazkiak, eztiak, ogia, gozoak zein artisautza-lanak egotea aurreikusten da. Izen-ematea zabalik da hilaren 18ra arte. Interesatuak udaletxera jo behar dute. Mahaien kokapenaren zozketa ere egingo da eguna heldu aurretik.

Azokak bestelako osagaiak ere izan ohi ditu, ordea, eta, aurten ere, neska-mutikoendako tiro-lina egongo da udaletxetik plazara. Udaletxeko armariaren azpian dagoen leihotik ikurrina dagoen plazako izkinaraino hegan egiteko aukera izango dute neska-mutikoek. Zintzilik Emozioen Laborategiak jarriko du tiro-lina.

Patata tortilla lehiaketa

Arratsalderako iragarri dute antolatzaileek herritarren aldetik harrera beroa izaten duen patata tortilla lehiaketa. Onena nork prestatu lehiatu ohi dira



Epaimahaiko kideak iazko txapelketako tortillak baloratzen. L.Z.L.

HAIZEAN, LOLAN, UDALETXEAN ZEIN LIBURUTEGIAN EMAN DAITEKE IZENA LEHIAKETARAKO

elgetarrak. Urteetako etenaldia- ren ostean Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak berreskuratu zuen iaz, eta 24 talderen parte hartzearekin egin zen. Argi dago herritarren gustuko ekintza dela, eta aurten Gazte Asanbladaren

eta Udalaren parte hartzearekin ere antolatuko da.

Antolatzaileek jakinarazi dute izen-ematea zabalik dela Haizea eta Lola tabernetan zein udaletxean eta liburutegian. Epaimahaiko kideek zaporea, itxura eta originaltasuna baloratuko dituzte, eta hiru sari banatuko dira; tortilla onenaren saria, tortilla txarrenaren saria eta tortilla originalenaren saria.

Txapelketa 18:00etan hasiko da. Taldeen ardurapean egongo da tortilla egiteko osagaiak eta tresneria jartzea.

Euskara ikastaroetan izena emateko epea zabalik da

AEKrekin elkarlanean antolatu du eskaintza Udalak; taldeak osatzeko gutxienez sei lagun behar dira

L.Z.L. ELGETA

Aurten ere euskara eskolak herrian bertan jasotzeko aukera izango dute elgetarrek. Debagoieneko AEKrekin elkarlanean egin du eskaintza Udalak eta hainbat maila edo talde daude aukeran. Alde batetik alfabetatze taldea, eta bestetik A1, A2, C1 taldeak, eta, baita ere, mintzapraktika taldea B1 eta B2 mailetarako. Bina orduko bi saio izango dira astean; guztira, 132 ordu. Alfabetatze taldea da salbuespena. Kasu horretan 66 orduko ikastaroa izango da eta astean bi orduko saio bakarra.



Hitano ikastaroa Elgetan. L.Z.L.

Izen-ematea zabalik

Izen-ematea zabalik da udaletxean hilaren 28ra arte. Taldeak osatu ahal izateko gutxienez sei lagun beharko dira.

Ikastaroak doan izango dira asistentzia maila %75tik gorakoa

bada; izan ere, Udalak osorik itzuliko du matrikula kasu horietan.

Berbalagun taldeak eta euskara ikasteko diru-laguntzak izango dira ikasturte honetan ere. Argibideak udaletxean eta liburutegian eska daitezke.

Gari Elgetan hilaren 29an

Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta legazpiarrak Elgetako Erresistenteen plazan egingo du emanaldia San Migel egunean, hilak 29. Kontzertua 20:00etan hasiko da eta Hertzainak taldeko musikari ohiak kontzertu intimoa eskainiko du. Bakarka arituko da. Gari bertatik bertara zuzenean entzuteko aukera izango dute bertaraten direnek.



I.S.

'Goibekokale' aldizkari guztiak sarean, guztion eskura

1988tik 2006ra argitaratutako Debagoieneko herri aldizkariak digitalizatu ditu Goiena Komunikazio Taldeak eta *Goiena.eus* webgunearen *Aldizkariak* atalean kontsulta daitezkeen 2.758 zenbakien artean dira *Goibekokale*-koak ere. Goibeko elkarteak argitaratua, 1995eko martxoan banatu zen lehen zenbakia eta 2006ko urtarrilaren 27an azkena.

Urte horietan herrian gertakari nagusi izan zirenak daude jasota. Herritarrek ere bai; izan ere, gehien-gehienetan, elgetarrak izan ziren protagonista. Berriz irakurtzeko moduko artikulua eta atal asko daude aldizkari horietan; herritarrek sinatutako iritzi artikulua, *Bapatian* ataleko elkarrizketa umoretsuak, herritarrek proposatutako erretzetak goxoak, kale-inkestak, *Erretratua* ataleko argazkiak... Une politak pasatzeko eduki ugari dago bertan.

Intxortako igoera ere jokatu da

Intxortako igoera izan ohi da herritarrek azoka egunean ikusmin handiz itxaroten duten beste ekitaldietako bat; izan ere, herri mailako erronka polita izaten da. Aurten XXVI. igoera jokatu da. Hiru kategoria izango dira: 12 urtera artekoak, 12-16 urte bitartekoak eta 16 urtetik gorakoak. Izen-ematea egunean bertan egingo da Mendizaleen plazan.



Intxortako igoera iaz. GOIENA

Umeendako euskarazko aisialdi hezitzailea

Astelehenean zabaldu zituen ateak ludoteka zerbitzuak eta 2-10 urte arteko hamasei erabiltzailek egin dute honezkero ikasturte osorako bonoa. Ateak zabalik jarraitzen du. Urtarriletik ekainerako, hilabeteko zein hamar eguneko bonoak daude

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA Itzuli dira ume algarak ludotekara. Zerbitzuak astelehenean zabaldu zituen ateak. Lau erabiltzailek inauguratu zuten ikasturtea. Biharamunean zazpi izan ziren eta poliki-poliki taldea handitzen doa. Eguraldia lagun, inguruko jolas-parkeetan igaro dituzte lehen arratsaldeak, baina lainoak gailendu direnean barruko ekintzak izan dira gehiago. "Harizko eskumuturreko asko egin ditugu. Sormena lantzeko jolas librean ere asko aritu dira; oso gustuko dute oiha-

lekin txabolak egitea", azaldu du Nerea Villa hezitzaileak.

Hamalagarren ikasturtea 2009an inauguratu ziren Torrealdeako haur eskola, ludoteka eta gaztelekuko instalazioak. Beraz, hamalagarren ikasturtea du ludoteka zerbitzuak. Hamar bat daramatza hezitzaile lanetan Nerea Villa elgetarrak. "Aldaketa handiak egon dira. Alde batetik, materialetan, programazioan...". Oraindik ere Internet konexioa falta dela azaltzen du, baina aldea nabaria dela. Umeei dagokienean ere sumatu

ditu aldaketak. "Hitz egiteko tonua askoz ere lasaiagoa zen orain hamar urte. Orain, gehienetan, oihuka egiten dute eta entzutea ere asko kostatzen zaie". Ohartu da, baita ere, umeek geroz eta eskolaz kanpoko ekintza gehiago dituztela. Garrantzitsua deritzo elkarlaguntza, sormena, naturarekiko atxikimendua, autonomia eta emozioen kudeaketa lantzea. "Antzerkia oso lagungarria da, eta ahal den guztietan egiten ditugu kanpoko ekintzak. Sasoien arabera irteten gara masustak edo pinaburuak batzera, zapaburuak ikustera, inguruko parkeetan jolastera...". Difusio talde batekin komunikatzen da familiekin eguneroan, eta aurten ere berdinekin egingo duela azaldu du. Herria txikia da eta komunikazioa oso gertukoa.

Izen-ematea zabalik

Ludoteka zerbitzua martxan da, baina izena emateko aukera ikasturte osoan zehar dago zabalik. 2-12 urte arteko umeendako zerbitzua da eta ekainera bitartean astelehenetik barikura egongo da zabalik, 16:00etatik 19.00etara. Prezioak dira: ikasturte osoa 280 euro, urtarriletik ekainera 180 euro, hilabetea 40



Nerea Villa hezitzailea eta Elgetako alkateorde Maialen Arnedo. L.Z.L.

Kalitatezko zerbitzua helburu

Elgetako Udalak kudeatzen du ludoteka zerbitzua. "Herriko haur eta familientzat zerbitzu oso ona dela uste dugun heinean, mantentzeko apustu garbia egiten dugu", adierazi du Maialen Arnedo alkateordeak. "Euskara, kulturartekotasuna, berdintasuna eta iraunkortasuna dira zutabe. Bestalde, zaintzaren garrantzia sustatzen dugu: norbere buruaren zaintza, elkarren zaintza eta azaldu bezala, ingurumenaren zaintza".

Beti bezala 16:00etan umeak eskolan jasotzeko aukera mantenduko da ikasturte honetan ere. "Izen-ematean arabera, beharrezko hezitzaile guztiak jarriko dira zerbitzuaren kalitatea bermatzeko. Epe laburrean bigarren begirale bat jartzea aurreikusten dugu", esan du Arnedok. Bestalde, "zerbitzuaren egonkortasuna eta kalitatea bermatzeko pentsatuta daude izen-emate motak, beharrezko langileak izan daitezkeen beti, eta noski, aldi berean, familien beharrak ahalik eta ondoen erantzun daitezkeen". Hobariak eskatzeko udaletxean egin behar da eskaera. Familia osoaren errentaren azken aitortpena aurkeztu behar da justifikatzeko.

Ludotekaren espazio berean dago Elgetako gaztelekua. Udaletik jakinarazi dute urrian bilera batera deituko dituztela herriko gaztetxoak beraien nahi eta beharrak ezagutzeko, eta honela, horiei erantzun ahalik eta egokiena ematen saiatzeko.

euro eta hamar eguneko bonoa 40 euro. Errentaren arabera %90erainoko hobariak daude. Interesatuak, udala@elgeta.eus helbidearen bitartez egin dezakete izen-ematea edo eska dezakete informazioa.

EPE LABURREAN BIGARREN HEZITZAILE BAT KONTRATATZEA AURREIKUSTEN DU ELGETAKO UDALAK



Neska-mutiko taldea ludotekan asteen. ELGETAKO LUDOTEKA

Mendi irteera, domekan, Enaitz eta Zabalaitz ezagutzeko

Abuztuko atsedenaldiaren ostean Kantsatzeke mendi taldean berriz ekingo diote hileroko martxari

L.Z.L. ELGETA

Aizkorri mendilerroan daude Enaitz (1.296 m.) eta Zabalaitz (1.263 m.) tontorrak. Kantsatzeke mendi taldeak antolatuta irteera egingo dute bertara domeka goizean.

Elgetako mendi taldeak uztai-lean egin zuen uda aurreko azken irteera. Kostaldean ibili ziren, Lekeitio aldean. Hala, domekako irteerarekin berriz ekingo diote hileroko martxari eta lauzpabost orduko ibilbidea

prestatu dute Aizkorri mendilerroan. Taldea 08:00etan abiatuko da Elgetatik eta autoetan egingo dute Arantzazurainoko bidea. "Arantzazun hasita Enaitzera igo, Urbiara jaitsi, azken aldapatxoa Zabalaitzera, eta handik behera, Arantzazura. Ibilbide polita eta erraza, edonorentzat egokia", azaldu dute.

Kantsatzeke mendi taldeko ordezkariekin harremanetan jarri nahi izanez gero: kantsatzeke@gmail.com edo 690 74 00 56 (Whatsapp).

OHARRAK

Erretiratuendako hitzorduak

Iraileko podologia kontsulta hilaren 20an izango da. Txanda hartzeko, deitu 669 99 81 65 telefonora. Hilaren 21ean, berriz, bingo saioa izango da Ozkarbi elkartearen, 17:00etan.

Errekreazio tailerra hilaren 22an eta 29an

Tailerra 18:00etatik 20:00etara egingo dute kafe antzokian. Urriaren 8ko bisita gidatu berezia prestatzeko izango da.

Bisita lubakietara hurrengo bi domeketan

Bisita gidatuak 10:00etan abiatuko dira Espaloitik, baldin eta taldeak irteten badira. Interesatuak izena eman behar dute: 943 79 64 63 edo turismo@debagoiena.eus.



Antxintxika-Lana sail egokituko Igartua, Odriozola eta Azkarate, taldeko niki urdinak jantzita. AITOR REMENTERIA

Zumaiako triatloian lehiatuko dira zapatuan

Joseba Azkaratek badu iazko esperientzia baina Iñaki Igartuarendako eta Josune Odriozolarendako lehen triatloia izango da. 15:45ean hasiko da lasterketa, uretako probarekin, eta animatzera gonbidatu gura ditu herritarrek Antxintxika-Lana taldeak

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Zazpi kirolarik hartuko dute parte bihar Zumaian egingo den Super Sprint triatloiko egokituen kategorian eta horietatik hiru dira oñatiarrak: Joseba Azkarate Lazkanoiturburu, Iñaki Igartua Loidi eta Josune Odriozola Zubia. Hirurak Antxintxika-Lana egokitu saileko kideak.

Bakoitzak bere lasterketa

Talde bereko kirolariak hirurak, baina bakoitzak bere proba egin beharko du zapatu arratsaldean, bakoitzak bere indarrak jarri beharko ditu proban lasterketan, ahalik eta ondoen amaitzeko. Azkaratek badu joan den urteko esperientzia, baina Igartuarendako eta Odriozolarendako

lehendabiziko triatloia izango da. "Hiru kide hauetako bakoitzak bere berezitasunak ditu baina horietara egokituta dituzten bizikletak eta aulkiak eramango dituzte eta lasterketa ondo egiteko moduan daude hirurak", dio, zalantzarik gabe, Antxintxika-Lana taldeko Aitor Rementeriak. "Laugarren bat

ere etortzekoa zen, Alfonso, baina ez dago bere sasoirik onenean eta azkenean parte ez hartzea erabaki du. Ikusle moduan egongo da, animatzen".

Zumaiara irteera egin zuten duela pare bat hilabete triatloia nondik nora izango den ikusteko eta entrenamenduetan lana egin dute zapatuko proba ondo bukatzeko. "Zumaian egingo ditugun distantziak baino luzeagoak egiten ditut, normalean, entrenamenduetan eta alde horretatik trankil noa. Badakit egiteko gauza naizela. Denborari begiratu barik, helburua ondo bukatzea da, disfrutatzea", dio Igartuak.

Bizikleta eta aulki egokituekin

Uretako probarekin hasiko dute triatloia herrikoia, 15:45ean. 375 metro egingo dituzte igerian, 10 kilometro korrikako zatian gero eta beste bi kilometro eta erdi bizikleta gainekoan proba amaitzeko. Odriozolak, esaterako, ez du inongo arazorik igerian eta korrika egiteko. Bizikleta du berezia. Besoan eta bizkarrean du lesioa eta eskulekua du egokituta bere bizikletak, ondo frenatu ahal izateko eta abiadura-aldagailua ondo erabiltzeko. "Igartuak eta Azkaratek lesio ezberdinak dituzte eta bakoitzak bere beharretara ditu egokituta aulkiak. Tokatzen den aulkietan egingo dituzte korrikako eta bizikletako probak. Igerian, berriz, Azkaratek atzeraka egingo

du, arnasketa hobeto kontrolatzeko, eta ohikoan Igartuak", zehaztu du Rementeriak.

Eskaera ere bai

Rementeriak gaineratu du oraindik ez dutela lortu tetrapeljikoeko kategorian sortzea. "Ari gara, baina federazioak ez du oraindik onartu kategorian hori. Zumaiko triatloian ere, adibidez, kategorian berean, paraplejikoenean, lehiatuko dira Igartua eta Azkarate, eta ez da egokiena. Bata eta bestearen egoeran ez dira berdinak eta Azkaratek, beste behin, desabantailak izango ditu. Indarra alde batera utzita, adibidez, ez dute gaitasun bera gurpilari heltzeko, horrek esan nahi duenarekin".

Bikoteka Zarautzen

Bestalde, urriaren 24an bikote mistoko triatloia egingo dute Zarautzen eta Josune Odriozolak eta Unai Rementeriak hartuko dute parte elkarrekin. "Bikote mistoa da, eta bietako bat talde egokituko kidea. Horrela izatea gura genuen, beste behin ikusgarritasuna emateko. Ezaugarri hori duen bikote bakarra izango da".

375 METRO EGINGO DITUZTE IGERIAN, HAMAR KILOMETRO KORRIKA ETA 2,5 BIZIKLETAN

Zabalik dago udal euskaltegian izena emateko epea

Bedita Larrakoetxea udal euskaltegian zabalik dute hastera doan ikasturterako izen-emate epea. A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailako euskalduntze ikastaroak emango dituzte, baita bereziak ere, zaintza lanetan edo ostalaritzan ari direnendako, adibidez. Horiez gain, Oñatiko euskara ere erakutsiko dute eta ekintza osagarriak egingo dituzte.

Irailaren 22ra arte dago zabalik Udal euskaltegian izena emateko epea. Goizean edo arratsaldean bulegoan edo *online* bete daiteke matrikulatzeko orria. Ohiko beka sistemaz gain, iraupen luzeko langabetuek, doan. Arten ere zozketatuko dute matrikula bat.

Zortzi tailer eskainiko dituzte udazkeneko Jabekuntza Eskolan

Zortzi tailer, zaintzaz arduratzeko hitzaldi ziklo bat eta kirola, indarra eta gizotasunari buruzko mahai-ingurua antolatu dituzte udazkeneko Jabekuntza Eskolarako.

Tailerretako bi urte osoan zehar egingo dituzte, baina gainerakoak urritik abendura bitartean. Horien artean daude, esaterako: ijito herriaren historia ezagutzeko, argi eta soinu teknikari hastapenak ikasteko, gorputz kontzientzia mugiarazteko, autodefentsa ikastaroa eta, gizonetzkoendako, aitatasun arduratsuei buruzkoa.

Hilaren 30era arte eman daiteke izena udal webgunean edo liburuxkako orria beteta.

OHARRAK

Odol ateratzea

Gaur, egubakoitza, egingo dute iraileko odol ateratzea, 16:30ean hasita. 943 00 78 84 telefono zenbakira deituta hartu behar da txanda.

Alzheimer tailerrak

Estimulazio Kognitiboko Tailerrak egongo dira alzheimerreko edo beste demenziaren bat hasierako fasean duten herritarrendako. Datorren egunean, 21ean, aurkeztuko dituzte, 18:30ean, udaletxean.

Txandaren outlet-a

Txanda dendarien elkartek udaberriko eta udako produktuen outlet azoka egingo du gaur eta bihar.



NIRE USTEZ

MANU EGAÑA

Winter is coming

Negua iritsi aurretik, Bidaiak geltoki interesgarri bat du udazkenean. Azken fruituak heldu eta lehen hostoak erortzen dira. Udaberria berritzeko garaia bada eta uda betetasun garaia, udazkena heltzekoa da. Galera-prozesuak ere gure bizitzaren parte dira; ilea, lanak, edo sinesmenak galtzen ditugu; pertsonak galtzen ditugu. Galera horien arrazoiak zalantzan jartzen ditugu, baina bizitza etapetan datza, ziklo baten itxierak datorrenerako bakarrik prestatzen gaitu. Budak esan zuen "gure existentzia udazkeneko hodeiak bezain iragankorra da", eta Kierkegaardek, berriz, "udazkena udaberria baino nahiago dut; udaberrian lurrera begiratzen baita, udazkenean zerura". Erortzen diren hostoak zuhaitz beraren ongarririk bihurtzen dira. Naturak bezala, kendu egin dezakegu fruiturik ematen ez duen guztia, horrela arinago ibili ahal izateko. Udazkenak gogorarazten digu bizitzeko artea hostoak aldatzea dela, sustraiak galdu gabe, zuhaitza zutik jarraituz. Udazkenak jada balio ez dizuna askatzen lagun diezazula, zure barrua indartzuz eta mundu eraldatu batean birsortzeko prestatuz.

Mila lagun espero dituzte biharko mendi martxan

Parte-hartzaileek ibilbidean erabiltzeko edalontzia jasoko dute irteera puntuan, eta baita eskumuturreko bat ere, antolatzaileendako identifikagarria izango dena. Argazki lehiaketa bat ere antolatu dute. Ulmak babestuko du aurtengo irteera

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

300 parte-hartzailek egin zuten lehenengo Oñatiko mendi mar-txa, 2015ean. Aurtengoa zortzi-garrena da eta 1.000 lagunek egingo dute. Bilakaera handia izan du ekimenak eta horri ego-kituta aritu dira lanean antola-tzaileak. Aurtengo berrikuntze-tako bat da, hain zuzen ere, parte-hartzaileei eskumutur bana jartzea, anoa puntuetan antola-tzaileendako identifikagarria izateko.

Bi ibilbide

Aurten ere bi ibilaldi egongo dira -22 kilometro ditu motzak eta 32 kilometro luzeak- eta biak abiatuko dira herriko plazatik -07:00etan luzea eta 08:00etan motza-. Ordurako hainbat informazio mahai egongo dira jarrita plazan, alfabetikoki sailkatuta, eta parte-hartzaile bakoitzak bere mahai batera edo bestera joan beharko du, abizenaren arabera. Hantxe jarriko diote eskumuturrekoa. Horrekin batera edalontzi bat ere emango diote, ibilbidean zehar erabiltzeko. Proba amaitzean jasoko dute kamiseta bana parte-hartzaileek, luntxean, edalontzia itzultzean. Argazki lehiaketa ere antolatu dute. "Ibilaldian zehar ateratako argazkiak sare



Ibon Calvo, Ulmako presidentea, eta Josu Lizarralde, mendi martxako antolatzailea. M.B.

sozialen bitartez partekatzen dutenen artean, Arantzazuko bordan gau bateko egonaldia zozketatuko dugu", azaldu du antolatzaile taldean diharduen Iosu Lizarralde. Aurten ere, bestalde, parte hartuko duen pertsona bakoitzagatik euro bateko ekarpena egingo diote Hotz Oñati gobernuz kanpoko elkarteari. Kiroldegiko dutxak ere erabilgarri egongo dira.

Ingurumena eta kirola

Oñatiko mendi martxak izandako bilakaerak baliabideak

biderkatzea eskatu die antolatzaileei eta aurten Ulma Taldea izango dute babesle. "Ingurumena zaindu eta kirola bultzatzea badira gure helburuetako bi. Ekimen honek biak batzen ditu eta ez genuen zalantza handirik izan proposamena onartzeko", adierazi du Ulma Taldeko presidente Ibon Calvok.

Bestalde, deialdi berezia egin dute herritarrak oinez joan daitezzen plazaraino. Bestendako lur azpiko aparkalekuak, osasun etxekoa eta MUKoa egongo dira erabilgarri.

Hamabi taldetako ume dantzariak datoz domekan Oñatira

Haurren Egunaren 51. ospakizun festa egingo da domekan Oñatin. Etxeko dantzari gaztetxoak ez ezik, Euskal Herriko beste hamaka taldetakoak ere parte hartuko dute. Guztira 554 bat dantzari eta beste 150 arduradun, musikariak barne, elkartuko dira herrian. 10:15ak aldera hasiko dira dantzariak Oñatira iristen eta 11:45ean ongiatorria egingo die guztiei aurtengo alkate txikiak, Erlantz Alberdi Elorzak. Kaleetan barrena sakabanatuko dira dantzak egiteko goizean, eta arratsaldean, alardean arituko dira berriz, plazan, 17:15ean. Umeek etxeetan bazkalduko dute eta arduradunek lau elkartetan.

Asteburuan hasiko da ikasturte berriko zinema denboraldia

Udako oporren ostean, asteburuan hasiko dira hurrei eta helduei zuzendutako zine komertzial emanaldiak eskaintzen zinema aretoan. Zineklubak urrian hasiko du ikasturtea.

Aurreko denboraldian bezala, 22:00etan izango dira helduen film emanaldiak egubakoitzean eta zapatuetan; 19:30ean eta 22:00etan, domeketan, eta 19:30ean, astelehenetan. Prezioak ere ez du aldaketarik izango: bost euro nagusien filmak -lau astelehenetan- eta lau umeenak. Egubakoitzetakoak jatorrizko bertsioan eskainiko dituzte.

Asteburuan, *Oppenheimer* eta *Superheroien familia* botako dituzte.

Euskadiko orkestra eta Donostiako orfeoiak, Arantzazun

Euskadiko orkestrak eta Donostiako orfeoiak emanaldia egingo dute zapatu iluntzean Arantzazuko basilikan, 19:00etan. Ramon Tebar-ek zuzenduta -Maria Jose Montien mezzoa eta Miren Urbietta sopranoa-, Mahler-en bigarren sinfonia interpretatuko dute. Eguerdian, berriz, Angel Luis Quintanak eskainiko du *matinee*-a, 12:00etan, kriptan.

Emanaldi biak Columbus Fundazioak antolatutako RenHacer edo Ongintzako Jaialdiko kontzertuak dira. Batuko den dirua, Gipuzkoan SPG50 gaixotasun arraroaren inguruko abangoardiako saiakuntza kliniko bat egiteko izango da. Atzo, San Martin egoitzan eskaini zuten.

Lukiek, Neallta Fola eta Larru Beltzak gaur San Martien

Iluntzeko zazpietarako minutu bat falta dela botako du etxafuegoa San Martinen auzoko jaiak iragartzeko. Horren segidan iritsiko da Martintxo txerria eta txorimaloekin eta pintxo-potearekin, zapatu gauera arte luzatuko diren jaiak hasiko dituzte.

Hemen ere ez da musikaririk, mus txapelketarik, dantzari txikien erakustaldirik edo umeendako ikuskizunik faltako. Gaur, 22:00etan, esaterako, Mungiako Lukiek, Aretxabaletako Neallta Fola eta Oñatiko Larru Beltzak taldeek joko dute. Bihar, Mentertz eta Aiert Alberdi musikariek gain, Ibon magoa ere etorriko da auzo bazkariaren ostean magia ikuskizuna egitera.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com



Izaro Elorza alkatea, kultura teknikariarekin eta batzordeburuarekin, eta berdintasun teknikariarekin batera. TXOMIN MADINA

Eguna heltzea falta da bakarrik

Bertso saioa; konpartsa txikiaren aurkezpena; bolo eta margo lehiaketak; Huntza, eta nazioarteko artzain txakur txapelketa izango dira datorren asteburuan, jaiak hasteko. 28tik urriaren 2ra arte ez dira ohiko hitzorduak eta musika emanaldiak faltako

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI
Astebete barru hasiko dira herriarrak jai nagusiak ospatzen. Aurtan, egutegiari kasu eginez, segidan ospatuko dira sanmigelak eta erroxaixuak, baina ospakizunak astebete lehenago hasiko dira, hilaren 22an, bertso saioarekin.

Eragileekin batera

Irailaren 22tik urriaren 2ra bitarteko ekintzak jasotzen ditu datozen egunetan etxez etxe banatuko duten egitarauak. Musika eskaintza zabala; haurrendako eta gazteendako jolasak; maila ezberdineko lehiaketak, kirol partiduak eta txapelketak; bazkari herrikoietarako gonbidapenak eta gehiago jasotzen ditu. "Udalak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldi guztietan, izan musika, antzerkia, hitzaldiak, ikastaroa, kirol erakustal-

di..., enetan, Udalaren hautua genero-berdintasuna bermatzea da, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna lortu asmoz", adierazi du kulturako batzordeburuak, Iñaki Olalde Altzelaik. Gaineratu du, datozen jai hauetan ere horrela izango dela. Hain zuzen ere, jaiak ospatuko diren egunetan eraso sexisten arretarako, aholkularitzarako eta informaziorako gunea egongo da, baita telefono zenbaki bat ere, beharra dagoenean erabiltzeko: 688 60 20 89.

Egitaraua osatzeko herri eragileen aldetik izandako lagun-

60 EKINTZATIK GORA DITU EGITARAUAK, IA ERDIAK HERRI ERAGILEEK ANTOLATUTA

tza eskertu du, bereziki, Olaldek. "Egitarauan ikaragarria da herriko eragileek hartzen duten pisua, 60 ekintzatatik gora eskaintzen ditu egitarauak, eta aipatu behar da ia %50a herri eragileek antolatutako ekintzak

direla, eta beste erdia udaleko kultura departamentuak". Eskerrak eman dizkie, era berean, astez aste orain arte, asteburu hau barne, jaiak antolatu dituzten auzoetako jai batzordeei, herrigunekoiei zein landa eremuko auzoiei.

ETS eta Sorotan Bele

Musika eskaintza zabala prestatu dute aurtengo jai nagusietarako eta horixe nabarmendu dute udaletik; plazan, txosnagunean eta Atzeko Kalen egongo dira oholtzak. Talde batzuk aipatzearen, esaterako, Huntza taldeak joko du hilaren 23an txosnagunean. San Migel egunean, hilak 29, En Tol Sarmiento taldeak joko du plazan eta Errosoaixo Bixamon egunean Puro Relajok, toki berean. Fito & Fitipaldis taldearen tributu talde bat eta Tapia eta Leturia Band ere zuzenean entzun ahal izango dira. Errosoaixo domekarako, berriz, musika hitzordu berezia antolatu dute: Sototan Bele taldearekin batera joko du Oñatiko musika bandak.

Herri Egunak eta Errosoaixo Bixamon egunak ohiko egitaraua dute. Sokamuturra, danborradak, txistularien goiz-eresiak eta txantxikuaren jaitsiera ere egongo dira.

Txartelak eta izen emateak

Jaien bezpera honetan, dagoeneko zabalik dago San Migel egunean egingo den berakatz-zopa lehiaketarako izen ematea zabalik dago, 26ra arte, kultura etxean. Herri Egunean egingo den bazkariarako txartelak, bestalde, laster jarriko dituzte salgai Arrano, Eltzia, Izarraitz eta Batzokia tabernetan, haurrendako eta helduendako menuarekin.



OÑATI IRRATIA

"Jaietarako gonbidapena da azala"

ANE GALDOS BIAN
AZALAREN EGILEA

Ane Galdos Biainek (Oñati, 1989) egindako azalak ilustratuko du egitaraua.

Zenbat zirriborro egin zenituen hau aurkeztu aurretik?

Zirriborro batzuk egin nituen aurretik, baina ideia hau izan nuenean haiek baztertu eta hauxe lantzen hasi nintzen.

Zer esan gura duzu lan honekin?

Jaietara gonbidatu gura zaituztet guztiok. Txantxikuaren jaitsierarako gutxi batzuk gelditzen dira eta txantxikua badao korrika, jaiak hastera doaz.

Txantxikua ia beti azaltzen da.

Bai. Erabat lotuta dago oñatiarrok eta jaiekin, eta berehala etortzen zaigu txantxikuaren irudia, bai.

Udazken koloreak.

Udazkenaren hasieran dira jaiak, urtaro aldaketa dator.

Auzolinpiadak txosnetan, hasteko

Txosna batzordeak ere prest du herriko jai nagusietarako egin duen egitaraua.


Espiritualismoaren gaia aukeratu du Errosoaixo Bixamon egunerako. Kartak irakurtzen dituen iragarle baten kontsultan grabatutako bideo baten bitartez aurkeztu ditu eltzearren, eskeletoaren eta txarranaren irudiak, besteak beste, ikus daitezkeen kartelak jasotako

egitaraua. Ohiko ekitaldiak zein berriak datoz egitarau horretan.

Aurtengo jaiei hasiera emateko, esaterako, auzoetako jai batzordeen arteko jolasak antolatu ditu, lehen aldiz, 23rako. 11:00etan hasiko dituzte auzoen arteko olinpiada horiek Olakua auzoko kirol kantxan; musikaz girotuko dituzte kaleak arratsaldean. 22:00etan hasita, berriz,

kontzertuak egongo dira, tartean Huntza taldea.

Txantxikuaren jaitsierarekin batera, hilaren 28tik urriaren 2ra bitartean ere egongo dira hainbat musika emanaldi. Horien artean, honakoak: Rukula, Lehen Lerroa, Añube, Lizartxo, Andoni Ollokiegi eta Tapia eta Leturia & Band. Bazkariak, *Dibertsioak* saioa eta umeendako papiroflexia tailerra ere egongo dira, adibidez.



19. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

Eskerrik asko parte hartzeagatik!

Bidali zure argazkiak irailaren 18ra arte
posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus)
edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07).
Lehiaketaren oinarriak irakurri eta sariak
ezagutzeko, sartu 'Goiena.eus'-en.




Azpeitia | Argazkia: Garazi Amesti Gomez (Bergara)



Eskozia | Argazkia: Izaro Lizarralde Agirrezabal (Antzuola)



Isla (Kantabria) | Argazkia: Haitz Belategi (Arrasate)




Santibañez el Alto (Caceres) | Argazkia: Susana Gomez (Arrasate)



Lago di Braies (Dolomitak) | Argazkia: Iker Zubizarreta (Arrasate)



Eusko Label Ligako estropadak (Castro) | Argazkia: Jabier de Borja (Bergara)




Bi tanta itsasoan (Gironako kostaldean) | Argazkia: Aimar Elortza (Arrasate)



Indonesia | Argazkia: Nerea Gastañaga Abad (Aretxabaleta)



Passo Giau (Dolomitak) | Argazkia: Lara Bautista Juanes (Aretxabaleta)



Dolomitak, Sass de Stria | Argazkia: Jon Armendia Cerval (Arrasate)



Argazki guztiak kanal
berezi honetan:
[https://labur.eus/
udakoargazkiak-2023](https://labur.eus/udakoargazkiak-2023)

ANTOLATZAILEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante • Jaletxea

BERGARA
EREIN
DA
JAN

Halcon BIDAIAK
ARRASATE BERGARA

Oñatin aterako dute azken kafea

ZIKLISMOA la bost hamarkadatan amateur mailan taldea izan eta gero, bihar, zapatua, izango da Baquekoen azken lasterketa. Mikel Lizarralde maillot horrekin irabazi zuen Oñatin duela 42 urte; Aimar Erostarbe azkenekoz jantziko du maillot hori

Xabier Urzelai OÑATI

Zapatuan jokatu dute, 10:00etan hasita, Lehendakari Txapelketako egutegiko azken hitzordua, Oñati Saria. Eta lasterketa berezia izango da, lau hamarkada pasatxoan amateur mailako txirrindularitza babesten ibili den Baque taldeak bertan esango duelako agur, taldea desagertu egingo da. Hori horrela, Aloña Mendikoe omenaldia egingo diete sari banaketa ekitaldian. "Urte hauetan guztietan Baque taldeak inoiz ez du Oñatiko lasterketan kalerik egin, beti egon izan dira irteera puntuan, eta amateur mailako ziklismoari egin dioten ekarpenagatik uste dugu merezi dutela eurekin detaile txiki bat izatea, eskerrak emango dizkiegu omenalditxo batekin", adierazi dio GOIENARI Aitor Atorrasagastik.

1978tik ziklismoa babesten

Baque txirrindularitza taldea 1978an sortu zuten. Eta urte hauetan guztietan puntako ziklistak pasa dira Baquetik, tartean, Julian Gorospe, Igor Astarhoa, David Etxeberría, Iban Mayo, Joseba Beloki edota Unai Etxeberría. Euskal txirrindularitzako izen handiak dira horiek, baina beste maila batean, Deba-goienean ere izan dira talde horren babesean ibili direnak txirrindulariak: Mikel Lizarralde, Iban eta Leire Altube, Gurutze Altuna edota ibarreko azken ordezkaria, Aimar Erostarbe. Denak dira oñatiarrak, eta hain zuzen, Oñatikoa izango da Baqueren azken lasterketa.

Bada, 1981eko edizioan, Baque-ren mallota soinean zuela -argazkian- etxeko lasterketa irabazi zuen Mikel Lizarralde azaldu du talde horrek askorendako izan duen garrantzia. "Ba-



Mikel Lizarralde, 1981ean, Baqueko mallotarekin Oñatin irabazten. ALOÑA MENDI

quen egon aurretik KAS taldean izan nintzen amateur mailan eta gero pasa nintzen Baque-ra. Gogoan dut Reynolds taldearekin kontratua sinatuta neukala, baina Baque-n zegoen Julian Gorospe baserrira etorri zen ni konbentzitzera. Bizkaiko Itzulian eta bestelako lasterketan laguntzeko eskatu zidan, baina beste lasterketa batzuetan askatasuna izango nuela agindu zidan, eta gainera, Reynolds-ekoena baino eskaintza hobea egin zidaten, eta halaxe joan nintzen Baque-ra", dio barrez Lizarralde.


Baque Team-en garrantzia

Lizarralde urtebete egin zuen Baque taldean, eta aitortzen du talde horretan izan zuela kirol maila onena. "Sekulako talde-tzarra geneukan. Eta lasterketa batzuetan askatasuna neukanez Gipuzkoako Itzulia irabazi ahal izan nuen, eta baita, esaterako, Aretxabaletan eta Oñatin ere. Profesional mailara salto egitea zen asmoa, baina horretarako soldaduskatik libratzeko baime-na behar nuen. Baina, Oñatiko Saria irabazi eta hurrengo egunean Loiolako koartelera joan behar izan nuen, eta han bidali ninduten 13 hilabetez soldaduska egitera".

Galdutako urtea izan zen hura. "Baque-koak oso ondo portatu ziren nirekin, bizikletak utzi zizkidaten ahal nuenean entrenatu ahal izateko, baina galdutako urtea izan zen. Gogoan dut Baque-n egin nuen urtean 64 kilo pisatzen nituela, halaxe irabazi nuen Oñatin; nik neukan gorpuzkerarako oso pisu gutxi zen hura eta oso ondo nenbilen. Soldadutzako urtean 10 kilo hartu nituen, oso baldartuta etorri nintzen. Gero, Orbea etxearekin egin nuen profesioaletara salto, pisua kentzea lortu nuen, baina inoiz ez nintzen 64 kilo izatera bueltatu. Ondo nenbilen, baina ez Baque-n ibili nintzen bezain ondo".

Lau oñatiar lasterketan

Biharko lasterketan 160 ziklista izango dira irteera puntuan, eta Oñatiko ordezkari denak lasterketan izango dira: Unai Cueva (Grupo Eulen), Aimar Madina (Caja Rural), Aimar Erostarbe (Baque Team) eta Danel Casais (Laboral Kutxa). 115 kilometro izango ditu lasterketak eta aurreikuspena da helmuga 13:00etan izatea.



GOIENA

"Familia bat aurkitu dut Baque-n"

AIMAR EROSTARBE
BAQUE-KO ZIKLISTA

Aimar Erostarbe oñatiarrarendako lasterketa berezia izango da biharkoa, bi urtez Baque-n lehiatu eta gero desagertuaren testigu izango delako.

Baque desagertzea ez da albiste ona.

Penagarria da, urte mordo daramatzate amateur maila sustatzen. Halako talde gehiago behar dira.

Zer gertatu da?

Esan digutenagatik, amateur mailan halako taldeak babesleendako ez dira interesgarriak. World Tourreko taldeak gazte mailako ziklisten bila dabilta, amateur mailakoei kasu egin barik. Eta gainera, amateurretan zure taldea ez bada talde nagusiago baten filiala...

Pertsonalki, zer eman dizu Baque-k?

Amateur mailara salto egiteko aukera. Familia bat topatu dut bertan, tratua ederra izan da eta asko ikasi dut.

Ederra izango litzateke garaipen batekin agur esatea...

Omenaldi onena izango zen taldearendako, nahiz eta hemen garaipenak oso garesti dauden. Iaz egokitzen urtea izan nuen eta aurten lasterketa batzuetan lehiakor ikusi dut nire burua.

Non egongo da gakoa?

Barbariko eta Aztirikoa maldetan, esango nuke.



Auritz Larrea eta Andoni Etxeberria baloiaren inguruan, lehia. LARRAITZ ZEBERIO

Oilarren arteko lehia kategoria estreinatzeko

FUTBOLA Aloña Mendi eta Mondra jaitsi berriak dira Gorengo Mailara eta derbi batekin ekingo diote ikasturte berriari, domekan (16:30) Azkoagainen. Haez gain, beste hiru talde izango dira kategoria berean, Antzuola, UDA B eta Bergara B

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Denboraldi amaiera triste baten ostean, Aloña Mendik eta Mondrak indarberrituta ekingo diote ikasturte berriari, eta, era berean, lehen hiru puntuak lortzeko gosez zelairatuko dira domekan (16:30) Azkoagainen jokatu duten derbian. Lehen jardunaldian hiru puntu baino gehiago egongo dira jokoan,

aski ezagunak diren bi taldeen artean.

Biek ala biek aldaketak egin dituzte udan zehar, baina esanguratsuenak zalantzarik gabe aulkietan egon dira. Iaz txantxikuarren entrenatzaile izan zen Gari Nuñezek zuzenduko du aurrerantzean Mondra, eta, Aloña Mendiren kasuan, Gotzon Urzelaik bigarren aroa izango

du lehen taldeko entrenatzaile bezala. Jokalariei dagokienez, Aloña Mendik baja garrantzitsu ugari izan ditu, baina horri aurre egiteko gazteengan jarri dute konfiantza oñatiarrek. Zuri-moreen kasuan, iazko bloke berdinarekin lan egiteko aukera izango du Nuñezek, jokari berri bat edo beste sartuz.

Ondo hastera, ezinbestekoa

Entrenatzaileek zein jokalariek ondo ezagutzen dute kategoria eta jakitun dira zailtasun asko izango dituztela bidean. Hori dela-eta, derbia irabazten hastera oso garrantzitsua izango dela ere badakite. "Liga hasteko modu ezin hobea da. Amaierako sailkapenari begira ez digu eragingo, baina mentalki bultzada handia izango litzateke irabaztea" dio Urzelaik. Nuñez ere "gogotsu" da bere talde ohiaren aurka lehiatzeko eta badaki zaila izango dela: "Azkoagainen partiduak beti zailak izaten dira eta ondo ezagutzen dugu elkar bi taldeok. Ea orain arte egingo dako lana erakusterik dugun".

Helburu berdintsuak

Jaitsi ondoren berriz lehenbait lehen igotzea izaten da talde gehienek helburua, baita Mondrarena eta Aloña Mendirena ere, euren entrenatzaileen esanetan. "Iaz maila galduta, helburu bakarra dugu, lehenbait lehen merezi dugun tokira itzultzea" dio Gari Nuñezek. Gotzon Urzelaik ere asmo berdinak ditu baina bide jakin bat finkatu nahi du: "Jaitsitakoan buruan izaten dugu ahalik eta azkarren itzultzea, baina uste dut epe luzerako helburuak baino, epe motzerako helburuak finkatu behar ditugula, egunero lanean zentratuz eta partiduak irabaziz, horrek emango baitigu lasaitasuna".

Antzuola, UDA eta Bergara

Aloña Mendirekin eta Mondrarekin batera, beste hiru talde ekingo diote ligari asteburu honetan eta hirurek etxetik kanpo jokatu dute lehen jardunaldian. Antzuolak Ilintxari egingo dio bisita zapatuan (16:30);

UDA, berriz, Danena taldearen zelaiari arituko da, bihar baita ere (16:00); Bergararen kasuan, Andoainera joan beharko da, Euskaldunaren aurka jokatzeko, eta, neurketa hau ere, bihar arratsaldean izango da (18:30).

Ohorezko erregional maila

Kategoria bat gorago dauden Bergarak eta UDAk bigarren jardunaldiari dagokion neurketak jokatu dituzte. Mahoneroek puntu bat eskuratu zuten Elgoibarri egingo bisitan (0-0); orainoan, berriz, etxean jokatu duten lehen neurketan, hiru puntuak poltsikoratzen saiatuko dira Amaiak Bat taldearen aurka zapatu arratsaldean (16:30). Hain zuzen, Debako taldearen borroka izan zen UDA ligako estreinaldian, 2 eta 5 irabazita. Aretxabaletarrek ere lehen neurketa izango dute etxean, domekan (16:30) jokatu dena, eta, bigarrenez, jarraian, garaipena lortzera zelairatuko dira Lagun Onak B taldearen aurka.

Emakumeak, hurrengo astean

Emakumezkoen taldeen kasuan, beste astebete itxaron beharko dute. Aurten talde bakarra egongo da Ohorezko Erregional Mailan: orain arte Leintz Arizmendian moduan ezagutzen zena, aurrerantzean Debagoiena Bailara moduan lehiatuko da; lehen neurketa Antiguokoren aurka izango da. Bergarak, berriz, gorengo mailan jardungo du.

DEBAGOIENAK BOST TALDE IZANGO DITU GORENGOEN MAILAN LEHIATZEN AURTENGO DENBORALDIAN

Ointxe!-ko taldeak motorrak berotzen hasiak daude

SASKIBALOA EBA mailakoak eta lehenengo maila nazionaleko neskek, denboraldia prestatzeko lanetan dira

I.B.K. ARRASATE

Denboraldia hasteko aste batzuk falta diren arren Ointxe! Saskibalo klubeke talde nagusia denboraldi-urreko prestaketetan buru-belarri murgilduta dago aste hauetan. EBA mailan

arrituko den Mondragon Unibertsitatea, esaterako, EBA mailako Euskal Kopa jokatzeko ari da. Final laurdenetako zozketan, Getxo egokitu zitzaizen eta pasaden astean jokatu zuten joaneko partiduan 84-78 galdu zuten arra-

satearrek. Itzulerako neurketa domeka honetan jokatu da Iturripen, arratsaldeko 18:30ean.

Nazionala ere Euskal Kopan

Emakumezkoen lehenengo maila nazionaleko taldea ere buru-belarri ari da denboraldi berria prestatzen, eta prestaketa horren parte da, domekan, arratsaldeko 16:30ean Iturripen Euskal Kopa jokatzeko hasiko direla. Hauen kasuan final zortzirenak jokatu dituzte eta aurkaria Lointek Gernika taldea



Alex Lorenzo baloiarekin. GOIENA

izango da. Gizonezkoetan ez bezala, emakumezkoetan kanporaketak partidu bakarrera jokatu dira; beraz, domekan galduz gero, kanpoan geldituko dira.

Gainontzeko taldeei dagokienez, asteburuko partidak osatzeko beste neurketa bat jokatu da Musakolako kiroldegian, kasu honetan, neurketa domeka goizean (12:00). Junior errendimendu mailako neskek, Atletico San Sebastian taldea izango dute bisitari.



Beita websaileko protagonistak eta egileak. XUP.

"Harrera arrakastatsua" izan du 'Beita' websailak

5.000 ikustaldi baino gehiago izan ditu, batez beste, Oñatiko Xup antzerki taldeak egin duen *Beita* websaileko kapitulu bakoitzak Youtubeko Gaztea kanalean, eta batez beste 30.000 ikustaldi sare sozialetan eskegi dituzten promoziorako bideoek

Aitziber Aranburuzabala Juldain

OÑATI

Ekaina amaieran estreinatuta zizuten lau kapitulu eta uztailearen lehenengo astean argitaratu zituzten beste lauak. Sexu eraso bat da, aurrez egin zuten antzezlanetan moduan, websailaren abiapuntua, eta horren bueltan lagun kuadrilla baten sortzen diren egoerak, harremanak eta gertuko lagunaren jarrera ulergaitzak kontatzen dituzte.

Feed-back "itzela"

Youtubeko zein sare sozialetako –Instagram, Youtube, X (lehenengo Twitter)– ikustaldien kopuruaz harago, Xup-eko kideak oso pozik daude *Beita* websailak izan

duen "harrera onarekin". Hala kontatu du Xup-eko kide Danel Teranek: "Uztailean eta abuztuan sentsazio arraro samarrak izan ditugu eta orain ari gara lurra hartzen eta gertatutakoa irensten. Orokorrean iritzi onak jaso ditugu eta aurrera begira egingo ditugun lanetarako kontuan hartzeko aholku eta proposamen interesgarriak ere bai. Esango nuke gakoa izan dela gazteok gazteontzako egindakoa dela, guk geuk ezagutzen dugulako gazteok zer behar eta ardura ditugun, zer eta nola kontsumitzen dugun... Gu izan gara gure produktuaren protagonista eta arrakastaren gakoetako bat hori izan dela uste dugu".

Sare sozialetako estrategia ere azpimarratu du Teranek: "Hasi ginenean, oso argi genuen bi lan ildo edo etapa zeudela: gidoiaren idazketa eta errodajea, batetik, eta ondorengo zabal-kundea, bestetik; hortaz, oso ondo landu dugu, esaterako, komunikabideetara zelan heldu, eta aurreikusi baino elkarrizketa eta promoziorako bestelako aukera gehiago jaso ditugu eta gazteengana heltzeko ere milimetrora genuen neurtuta sare sozialetara noiz eta zer igo, eta jasotako erantzuna itzela izan da. Kanean ere zorion mezu asko jaso ditugu. Bitxia izan da, esaterako, kanpora, beste herri batzuetako jaietara parrandan

joan garenean, jende asko gerturatu zaigula eta *shock* moduko bat izan da guretzako. Orokorrean jendea oso jator etorri zaigu, nahiz eta, suertatu diren egoera deseroso batzuk ere, batzuetan, jendeak nahastu egiten duelako pertsona edo aktorea eta pertsonaia".

Etorkizuneko proiektuak

Uztailean estreinaldiaren zurrunbiloan murgilduta ibili ondoren, abuztuan oporrak hartzea erabaki zuten eta irailean hasi dira berriz lanean. "Askorik ezin dugu aurreratu, baina ari gara zerbait berria prestatzen. Ez dakigu, askok eskatu diguten moduan, *Beita* websailaren bigarren denboraldirik izango den edo ez, baina saiatuko gara, modu batera edo bestera, eskaera horri erantzuten. Oraingoz atekak zabalik utziko ditugu, hurrengo proiektua pantailan ikusteko edo antzokietako agertoki gainean eskaintzeko sortuko dugun, oraindik ez dugu-eta zehaztu".

Websaila oraindik ere ikusgai

Gazteak Youtuben duen kanalean eskegi zituzten kapitulu guztiak, eta oraindik ere toki berean daude ikusgai. "Irratikoak ere pozik daude jasotako harrerarekin, sekula izan duten ikustaldi kopuruak gainditu dituztelako eta, beraz, seriea ikusi ez duenak oraindik ere badu aukera hori. Horrez gainera, gure sare sozialetan –*Beita websaila* izenarekin– askotariko bideo eta sarrera gehiago aurkituko dituzue eta gure asmoa horiek elikatzen jarraitzea da; hortaz, adi bereziki, Instagrameko eta baita Facebook eta Twiterreko gure kontuei ere", gaineratu du Oñatiko Xup antzerki taldeko kideak.

'Arotz letrak' literatura zikloa, Irati Topagunean

Mikel Alvarezen, Hedoi Etxarteren eta Irati Jimenezen liburu bana aztertuko dituzte

A. A. J. ARRASATE

XXIII. mendean kokatuta eta euskaldunak nagusi diren unibertsoan oinarrituta dagoen Mikel Alvarezek (Beasain, 1982) idatzi duen *Euskalia*, zientzia fikziozko "lan dibertigarri eta umoretsuari" buruzko solasaldiarekin estreinatuko dute *Arotz letrak* izeneko zikloa, irailaren 20an, 19:00etan. Agustin Zubikarai bekaren laguntzarekin idatzitako estreinako nobela du [Ikus gaurko *Puntua* aldizkarian Mikel Alvarezen egindako elkarrizketa].

Etxarte eta Jimenez, ondoren

Idazleak lagun, abendua bitartean, hiru literatura solasaldi egingo dituzte Irati Topagunean: Hedoi Etxarte urriaren 25erako gonbidatu dute eta *Sortaldekoak* olerki liburua aurkeztuko du, eta baita hainbat poema errezi-tatu ere; azaroaren 22an, berriz, Irati Jimenez Bizkaiko idazlea izango da protagonista *Begiak zabalduko zaizkizue* saiakerari zuku ateratzeko asmoz.

Aurreko aldietan egin izan dituzten askotariko gaien buruzko hitzaldi sortak moduan, literaturari buruzkoak ere euskaraz izango dira eta herritar guztientzako daude zabalik.

BERGARAKO SAN MARTIN JAIK

GOIENA TELEBISTAN

IRAILAREN 19AN, MARTITZENEAN, 21:30 ETA 23:30



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.





Verde Prato –Ana Arsuaga– tolosarrak zapatuan eskainiko du kontzertua Oreixe Akustikoak musika zikloaren baitan. MARIA MURIEDAS

Hiru pilula akustiko bitxi zikloa borobiltzeko

Arrasateko Udalak antolatzen duen Oreixe Akustikoak-en bigarren asteburuan, Suediako Baskery hirukotea, Verde Prato –Ana Arsuaga tolosarra– eta Madrilgo Sofia Comas bakarlariak izango dira, hurrenez-hurren, gaur hasi eta domeka bitartean

A. Aranburuzabala ARRASATE

Eguaztenean abiatu eta domeka bitartean egingo duten Getxo Folk jaialdirako bidean Arrasaten geltokia egingo du Suediako Baskery hirukoteak Oreixe Akustikoak zikloaren bigarren asteburua zabaltzeko. "Hiru ahizpa dira: kontrabaxuarekin bat; gitarrarekin, bestea, eta hirugarrenak banjoa eta perkusioa jotzen ditu. Folk, blues, country eta rock estiloen nahasketa egiten dute eta ahotsekin sekulako armonia politak sortzen dituzte. Taldekideak toki ezberdinetan bizi dira eta ez dute askorik jotzen ezta azkenaldian diskorik atera ere. Aspalditik genuen Arrasatera ekartzeko gogoia, eta Getxoko jaialdira datozela jakin genuenean gurera etortzeko proposamena egin eta proposamena onartuta, Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriumean izango dira gaur, 19:30ean", azaldu du Arrasateko Udaleko Kultura teknikari Karmelo Alberdik.

Zapatuan, Verde Prato

Verde Prato da zapaturako gonbidatu duten artista. Serpiente eta Mazmorras taldeetan jardun ondoren, 2019an abiatu zuen bakarkako ibilbidea; harrezkerro, bi lan argitaratu ditu tradizioa eta modernitatea nahastu dituen kantuekin. "Kontzertu esperimental labur bat egitea proposatu zidan Joan Mancisidor musikariak eta gau bakarerrako izango zela pentsatuz egin nuen frogara hori eta pixkanaka kontzertuak ateratzen hasi zitzaizkidan eta hala jarraitzen dut. Folketik eta beste iturri batzuetatik edaten dut eta elektronikarekin eta gaur egungo bestelako musika estiloen arteko nahasketa da, no-

BASKERY HIRUKOTEA ETA VERDE PRATO, ETA SOFIA COMAS BAKARLARIAK, ARRASATEN

labait definitzearen, egiten dudana. Teklatua, *looper*-a eta beste tresna elektronikoko batzuk lagun, bakarrik izango naiz taularen gainean. Publikoari dagokionez, zale bakoitzak bere modura hartzen duela esango nuke; lasai, eserita batzuk, eta dantzan beste batzuk", azaldu du Verde Pratok Arrasate Irratian.

Sofia Comas, domekan

Egitaraua borobiltzeko, musika eta dantza uztartzen dituen Sofia Comas Madrilgo artista gonbidatu dutela dio Alberdik: "Verde Pratoren estilotik nahiko gertu dagoela esango nuke. Antzerkigintzatik dator eta emanaldietan sumatzen da hori. Dantzari bat izango du lagun".

Sarrerak, bost eurotan

Juan Arzamendi Musika Etxean izango dira, 19:30ean, kontzertuak. *Arrasate.eus* atarian daude sarrerak aurrez eskuragarri, bost eurotan.

Goienakideen txokoa

IRAILEKO SARIAK

Liburu-irakurgailua

Kobo Nia e-booka

Parte hartzeko sariaren izena: ebook



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" (bazkidearen zenbakia) 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzelehen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena 10/10/2023 lehen ordea, jaiarazteko eguna zuzendutakoan Goiena Foruakoa Tebittuen Foruak antolatutako baten artetik da. Zuzen bidez haren helburu bakarra da irabazlearen izena zuzenean jakintzea. Ekitaldiaren gozatu eta ondoren, bakoitzak adierazteko aukera izango du bere izena jakiteko. goienakide@goiena.eus

Realaren eta Getaferen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean



GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Getafe norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeraturako beste lagun batek. Real Arena futbol zelaiko premium guneak. Partida irailaren 24an, domeka, 14:00etan.



Parte hartzeko azken eguna: irailaren 17a

Irabazi bi lagunendako otordua

SIRIMIRI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu partel! Parte hartzeko azken eguna: irailak 19



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



"Goiena app"-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jotetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 45€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia

OROIGARRIA

Juan Mari Errasti Lesarri

2017ko uztailaren 12an hil zen.



*Eibarren jaioa baina,
HAINBESTE maite Bergara.
DANBOR hots bakoitzarekin,
ZUTAZ oroituko gara.*

Konsuelo.
Bergaran, 2023ko irailaren 15ean.


OROIGARRIA

Pello Alzola Galdos

2023ko irailaren 8an hil zen.




*Urak dakarrena,
urak daroa,
zuk emandakoa
gurekin gelditzen da*



Urbaltz Elkarte.
Aretxabaletan, 2023ko irailaren 15ean.


OROIGARRIA



Joaquin Isasmendi Galdos

'Abatxis'

2023ko abuztuaren 19an hil zen, 56 urte zituela.



*Nola esan agur
ezer eskatu gabe
dena eman digunari*

Zure lagun guztien partetik.
Eskoriatzan, 2023ko irailaren 15ean.

URTEURRENA

Arrate Martinez Iñurrategi

2022ko irailaren 14an hil zen, 56 urte zituela.



Beti gure bihotzean

Etzekoen partetik.
Bergaran, 2023ko irailaren 15ean.

OROIGARRIA

Juanita Alustiza Ayerbe


2023ko irailaren 5ean hil zen.



*Guretzat ez da erreza izango
aurtengo uda ahaztea;
Zein mingarria maite duguna
betirako agurtzea.
Bestalde, ze poza hainbeste lagun
inguruan sentitzea.
Juanita zenak ta familiak
nahi genuke eskertzea,
zuen babesaz lortu baitugu
gure mina arintzea.*


Bergaran, 2023ko irailaren 15ean.

OROIGARRIA



Fermin Kortabarria Zubia

Arrasaten hil zen, 2023ko irailaren 7an.



*Alaitasuna eta umorea
bihotza beti baikorra
tio Fermiñen irrifarrea
ez ikustea gogorra*

*Baina ez zaigu guztiz alden
gurekin gendun altxorra
izar berri batek argituko
du Gorordoko tontorra.*

Gorordoko familia: Maixabel eta Juan Miguel, Igone, Maider, Jon Ander eta Jone, eta Peru.

Arrasaten, 2023ko irailaren 15ean.



BABESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Guri deitu zuzenean edo, nahizago baduzue, jakinarazi zuen aseguru-konpainiarekin gurekin nahi dituzela agurtu maite dituzena.



Marioren, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotza sendatzeko balio duten korietakoak. Gak badiugu gordetu zuzentzeko, gure beharra dutsunerako.

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

ESKER ONA

Margarita Astigarraga Lete

Lorentxo Loidiren alarguna

2023ko irailaren 10ean hil zen, 97 urte zituela.




Eskerrik asko une hauetan babeseta eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Eskerrak Bergarako sendagile taldeari, eta bereziki, Joxerra Bardeziri emandako babesagatik.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Angiozarren, 2023ko irailaren 15ean.

ESKER ONA

Fermin Kortabarria Zubia

2023ko irailaren 7an hil zen, 74 urte zituela.




Eskerrik asko egun hauetan babeseta eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko irailaren 15ean.

HILDAKOAK


- Fermin Kortabarria Zubia.** Arrasaten, irailaren 7an. 74 urte.
- Pello Alzola Galdos.** Aretxabaletan, irailaren 8an. 73 urte.
- Alicia Aldalur Uriarte.** Aretxabaletan, irailaren 10ean. 73 urte.
- Margarita Astigarraga Lete.** Angiozarren, irailaren 10ean. 97 urte.
- Juanita Alustiza Ayerbe.** Bergaran, irailaren 5ean. 94 urte.
- Dionisio Moreno Diez.** Arrasaten, irailaren 12an. 91 urte.
- Begoña Mujika Madinabeitia.** Eibarren, irailaren 9an. 92 urte.
- Juanita Abarrategi Madinabeitia.** Arrasaten, irailaren 10ean. 81 urte.
- Maria Carmen Ansola Ordorika.** Arrasaten, irailaren 9an. 74 urte.
- Maria Cruz Elcoro Unamuno.** Donostian, irailaren 11an. 94 urte.
- Valentin Sanchez Llanos "Tinín".** Oñatin, irailaren 9an. 75 urte.

ESKER ONA



Alicia Aldalur Uriarte

2023ko irailaren 10an hil zen, 73 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babeseta eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.


Aretxabaletan, 2023ko irailaren 15ean

ESKER ONA

Pedro Mari Alzola Galdos

'Pello'

2023ko irailaren 8an hil zen.



Eskerrik asko egun hauetan babeseta eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2023ko irailaren 15ean.

ASTE A GOIENA TELEBISTAN

**AZOKAK ETA FERIAK**


Gurean oso ohikoak eta oso errotuta dauden azoken gainean galdetuko die herritarrei Andrea Gonzalez kazetariak.

'Uda giroan' Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00

**SANMARTIN JAIEN ERREPASOA**

Bergarako jaiak asteburuan ematen dutenaren errepasoa egingo dute, protagonisten adierazpenak tarteko.

'Jaiak' Martitzena, 19:30, 21:30 eta 23:30

**ZIKLISMOA ETA SASKIBALOIA**

Amateurrendako Oñati Sariaren eta saskibaloiko Euskal Koparen itzulerako partiduaren laburpenak emango dituzte.

'Harmailatik' Astelehena, 19:30, 21:30 eta 23:30

**JUNE ANSOLEAGARI ELKARRIZKETA**

Amaia Uribe kazetariak elkarrizketatuko du ETBko eguraldi tartea aurkezten duen Ansoleaga.

'Elkarrizkettap' Eguaztena, 19:30, 22:30 eta 23:30

**DONOSTIA ZINEMALDIAREN JARRAIPENA**

Imanol Gallego kazetariaren laguntzarekin, nazioarteko zinemaldiak ematen duena errepasatuko dute.

'Uda giroan' Eguena, 18:00, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 15**OÑATI Odol ematea**

Aurrez hartu behar da ordua 943-00 78 84 telefonoan.

Enpresagintzan, 16:30etan.

ESKORIATZA Gaztelekuaren irekiera festa

DBHko neska-mutilkoendako harrera jaialdia.

Gaztelekuan, 17:00etan.

ARRASATE Erguingo jaiak

17:00etan, bolo-boloa eta txokolate-jana; 17:30ean, jokoak Txatxilipurdirekin; 18:00etan, txistularien kalejira; eta 22:00etan, Etxepe; Mutiko, Tata eta Denso; Youth United eta Eten taldeak.

Erguinen.

ARRASATE 'Guacamayo' erakusketa: inaugurazioa

Harriak programaren baitako bilduma. Victor Ortuño, Ibai Madariaga, Miel Oyarzabal eta Silvia Coppola artisten lanak ikusteko aukera, urriaren 13ra arte.

Kulturaten, 17:30etan.

BERGARA San Martin jaiak

Egitaraua osorik 20. orrialdean.

Bergaran.

OÑATI San Martin auzoko jaiak

18:59ean, etxafuegoak; 19:01ean, Martintxori ongietorria; 19:03an, pintxo-poteoa; 19:09an, txorimaloak eta 22:03an, Lukiek, Neallta Fola eta Larru Beltzak taldeak.

San Martinen.

ARAMAIO Dei taldea

Gitarra, teklatu eta harmonika doinuak ekarriko ditu Mutrikuko bikoteak.

Sastiñan, 19:00etan.

ARRASATE Baskery

Folk, blues, country eta rock doinuak eskainiko ditu hirukote suediarrek. Sarrerak, bost euro.

Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:30etan.

ESKORIATZA Kokein taldea

Errekan Gora zikloaren baitan. Fernando Eskoriatza plazan, 22:30etan.

ZAPATUA 16**OÑATI Oñatiko mendi martxa**

Bi ibilbide: motza 21 kilometrokoa eta luzea 32koa.

Foruen plazan, 07:00etan.

BERGARA San Martin Agirre Eguna

Egitaraua osorik 20. orrialdean.

Bergaran.

OÑATI Oñati saria

Afizionatu mailako lasterketa, Lehendakari txapelketa barruan. Unibertsitate etorbidean, 10:00etan.

OÑATI Gaztagintzaren sekretuak

Gomiztegi baserrira bisita, artzain txakur erakustaldia eta gazta dastatzea. Izena emateko: 943-78 28 94 edo arantzazu@gipuzkoanatura.eus.

Parquetxean, 10:30etan.

ARRASATE Erguingo jaiak

11:00etan, puzgarria; 12:00etan, erraldoien kalejira; 12:30ean, 65 urtetik gorakoendako luncha; 17:00etan, apar-festa; eta 21:30ean, txotx-gaua.

Erguin auzoan.

OÑATI San Martin auzoko jaiak

11:00etan, txiki-trail; 12:00etan, Oñatzekoen erakustaldia; 13:00etan, entzierro txikia; 14:00etan, bazkaria; 16:00etan, mus txapelketa; 16:00etan, Ibon magoaren ikuskizuna 17:30etan, entzierro txikia; 18:30ean, txorimaloak; 18:30ean, garagardo azoka; eta 19:30ean, Mentertz eta Aiert Alberdi.

San Martinen.

ARETXABALETA Txarapeako jaiak

11:00etan, jaien hasiera; 12:00etan, pregoia eta txupinazoa; 12:30ean, haur jolasak eta parkea eta Txarabermu; 14:30ean, bazkaria eta bingo musikatua; 17:00etan, mus txapelketa; 19:00etan, Zirrarra; 20:30ean, *eskailera bertikala, radarra aldapan*; 22:00etan, Assata taldea; eta 00:00etan, xumba tailerra.

Txarapea ibilbidean.

ESKORIATZA Errekan Gora

12:00etan, Irati Etxebarrieta; 13:00etan, Pasadena taldea; 19:00etan, Broken Brothers Brass Band; eta 22:30ean, Xiberoots. Fernando Eskoriatza plazan.

ARRASATE Ikasturte hasierako jaialdia gaztelekuan

Gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ARRASATE Verde Prato

bakarlarria

Ana Arsuaga musikari tolosarraren emanaldi akustikoa. Sarrerak, bost euro.

Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:30etan.

DOMEKA 17**BERGARA San Martin jaiak**

Egitaraua osorik 20. orrialdean.

Bergaran.

OÑATI 41. Haurren eguna

10:15ean, taldeei ongietorria; 11:00etan, hamaiketako; 11:45ean, alkate txikiaren agurra; 12:00etan, dantzak; 13:30ean, bazkaria; 17:00etan, kalejira; 17:15ean, alardea; eta 18:30ean, erraldoiak.

Oñatin.

ARRASATE Besaide Oroimen Eguna

10:30ean, txalaparta saioa; 11:00etan, oroimen ekitaldi zibila; 11:30ean, federazioko presidentearen hitzartzea; 12:00etan dantzariak eta txistulariak; eta, ostean, Alaiak abesbatza.

Besaiden.

ARRASATE Erguingo jaiak

11:00etan, puzgarriak; 12:00etan, Elutxa txarangaren kalejira eta edari bakoitzarekin tortilla edo txorizo pintxoa balde; eta 17:30ean, poniak.

Erguin auzoan.

ESKORIATZA Errekan Gora

13:00etan, Arrasate Musikal Big Band; eta 19:30ean, Nevadah. Fernando Eskoriatza plazan.



LARRU BELTZAK

ARRASATE Sofia Comas bakarlaria

Poesia ardatz duen emanaldia eskainiko du musikari madrildarrak. Sarrerak, bost euro. *Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:30ean.*

ASTELEHENA 18**OÑATI** Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Foruen plazan, 12:00etan.*

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *San Martin plazan, 12:00etan.*

ARETXABALETA Beinke-Loramendi dantza entsegua

San Migel jaietara begira. *Kurtzebarriko kantxan, 19:00etan.*

OÑATI Nagusien danborradako entsegua

Gerrikoa eraman behar da. *Eltzia, 20:00etan.*

MARTITZENA 19**OÑATI** Haurren danborradako entsegua

Gerrikoa eraman behar da. *Eltzia, 18:30ean.*

EGUAZTENA 20

BERGARA Eguaztenetako azoka Garaiko produktuak erosteko. *Oxirondon, 18:00etan.*

ARETXABALETA 'Liburutegiko sekretuak' ipuin kontaketa

Ane Gebararen saioa, 4 eta 8 urte bitarteko neska-mutikoendako. *Txiki Txokoa, 18:00etan.*

OÑATI Larru Beltzak taldea

Oñatiko taldeak kontzertua egingo du San Martin auzoko jaietan. Beraiekin batera egongo dira oholztan, Lukiek mungiarak eta Neallta Fola aretxabaletarrak. *Gaur, egubakoitza, San Martin auzoan, 22:00etan.*

ANTZUOLA Energiaren gaineko saio praktikoa

Izena emateko: *argitu@gipuzkoa.eus* edo 628 530 303. *Torresoroan, 18:30ean.*

OÑATI 'Alzheimer eta estimulazio kognitiboko tailerra'-ren aurkezpena

Lehenengo hitzaldia eta ostean Ganbara Abesbatzaren emanaldi laburra egongo dira. *Osoko bilkuren aretoan, 18:30ean.*

ARRASATE 'Euskalia' liburuaren aurkezpena

Mikel Alvarez egilea egongo da ekitaldian, Arotz letrak zikloaren baitan. *Irati tabernan, 19:00etan.*

OÑATI Nagusien danborradako entsegua

Gerrikoa eraman behar da. *Eltzia, 20:00etan.*

BERGARA 'Los osos no existen' pelikula

Jatorrizko bertsioan eta azpigituluekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

EGUENA 21**ELGETA** Bingo-jokoa

Erretiratuendako. *Ozkarbi elkartean, 17:00etan.*

BERGARA Nokono musikaria

Debalde. *Arrano tabernan, 17:30ean.*

BERGARA Simon Arrieta pintura lehiaketako erakusketa

Gerrikoa eraman behar da. 48. lehiaketara aurkeztutako margolan onenak ikusgai egongo dira, gaurtik urriaren 2ra arte. *Aroztegin, 18:00etan.*

ESKORIATZA Hiruko saskibaloitxapelketa

Gaztelekuko erabiltzaileen arteko torneo izango da. 12-16 urte arteko hiru jokalarirekin osatu behar dira taldeak. Gaur eta bihar jokatuko da. *Gaztelekuan, 18:00etan.*

OÑATI Haurren danborradako entsegua

Gerrikoa eraman behar da. *Eltzia, 18:30ean.*

BERGARA Black Magic Six eta Bamms taldeak

Angiolillo liburutegiaren 15. denboraldia hasteko. Sarrerak, zortzi euro. *Kartzela zaharrea, 19:30ean.*

ESKORIATZA 'Ostegun Bidaia' Balkanak

Beñat Errasti bost lagunekin ibili zen Dubrovniken hasi eta bukatutako bidaia, pedalkadaz pedalkada. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

ARETXABALETA Beinke-Loramendi dantza entsegua

San Migel jaietara begira egingo dute entsegua. *Kurtzebarriko kantxan, 19:00etan.*

ZINEMA**OÑATI****KULTURA ETXEA****Oppenheimer**

Egubakoitza (jatorrizko bertsioan): 22:00.

Astelehena:

22:00.

Igandea eta astelehena:

19:30.

Superheroien familia

Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEZ**FLORIDA****Alma Mahler, la pasión**

Egubakoitzetik eguenera: 19:45.

Barbie

Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 17:15.

Zapatua eta domeka: 11:45, 17:15.

Campeonex

Egubakoitza: 17:00, 19:30, 22:00.

Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena eta eguena: 17:30, 20:00.

Martitzena eta eguaztana: 17:30.

El cuco

Egubakoitzetik domekara: 17:15, 22:15.

Astelehenetik eguenera: 17:00.

Las dos caras de la justicia

Egubakoitzetik domekara: 17:15, 22:15.

Astelehenetik eguenera: 17:00.

Me he tragado un extraterrestre

Zapatua eta domeka: 12:00.

Misterio en Venecia

Egubakoitzetik domekara: 17:15, 19:30, 21:45.

Astelehena, eguaztana eta eguena: 17:15, 19:30.

Martitzena: 17:15, 20:00.

Ninja turtles

Egubakoitza: 17:00.

Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

Oppenheimer

Egubakoitzetik domekara: 19:00.

Astelehenetik eguenera: 19:30.

Panda contra aliens

Zapatua eta domeka: 12:00.

Richard la cigüeña y la joya perdida

Egubakoitza: 17:30.

Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30.

Todos los nombres de Dios

Egubakoitzetik domekara: 19:30, 21:45.

Astelehenetik eguenera: 17:15, 19:45.

Vencer o morir

Egubakoitza: 17:30, 21:45.

Zapatua eta domeka: 11:30, 17:30, 21:45.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

Verano en rojo

Egubakoitzetik domekara: 19:30, 21:30.

Astelehenetik eguenera: 19:15.

El valle de la esperanza

Egubakoitzetik domekara: 17:30, 19:30.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

Las chicas estan bien

Egubakoitzetik domekara: 21:30.

Astelehenetik eguenera: 19:30.

KRITIKA**Passage**

Zuz.: Ira Sachs. **Herr.:** Frantzia (2023). **Aktoreak:** Franz Rogowski, Ben Whishaw, Adele Exarchopoulos. **Iraupena:** 91 minutu. ★★★★★

Amodio harremanen azalpena**ANTONIO ZABALA**

Halako gauzak ditu zinemak: aste baten, *Oppenheimer* hiru orduko iraupeneko eta datuz, pertsonaiez eta handitasunez beteriko garai bateko erretratua egiten duen filma ikusten dugu, eta hurrengo astean, *Passages*, 90 minututan pertsonaia batzuen nahasmen sentimentala erretratu nahi duen filma. Azken hori, bildua eta barnekoa. Atsegina izaten da mota desberdinetako filmak ikustea.

Batez ere, hiru pertsonaiek osatzen dute *Passages*-en istorioa. Tomas izeneko zinema-zuzendaria Martinekin ezkondu da. Tomasekin Agathe ezagutzen du eta berarekin erabat liluratuta geratzen da. Hor sortzen da gatazka: hausten diren

bikoteak eta sortzen diren bikoteak; sortzen diren ilusioak eta etsipenak; harreman posesiboak, segurtasun ezak eta mendekotasunak. Sachs-ek maisutasuna erakusten du egoera bakoitzean sortzen diren giroak eta pertsonaien sentimenduak azaltzeko. Pertsonaiek dira istorioaren erdigunea. Istorioa Parisen gertatu arren, zuzendaria ez da hiriburuko leku ezagunetara hurbiltzen, pertsonaiek bizi diren etxeetara, lan egiten duten lekuetara eta joaten diren tabernetara baizik. Sexu harremanen intentsitatea, abesti bat entzuteak eta abesteak sorrarazten duen intimitatea... Pertsonaien begiradak, keinuak eta mugitzeko moduak oso adierazgarriak dira.



AZKEN BERBA

MARIA AGIRRE

Erromerian

A zelako eromeria azkenaldian erromerietan. Udan irakurri ditudan elkarrizketetan musika taldeak oro har pozik azaldu dira, jende gaztea berriro ere dantzan hasi baita plazetan.

Horren lekuko izan nintzen ni neu ere. Andramaixetako bezperan, herriko plazako dantzaldian lauzpabost ume baino ez zeudela, kuadrilla bat azaldu eta dantzari ekin zion. Mutil gazteen taldeak tinko eutsi zion plazako bakardadeari – Aretxabaletako plaza horrelakoetan handi geratzen baita–, baina gauak aurrera egin ahala, apurka-apurka, beste kuadrilla batzuk batzen joan ziren. Azkenerako, sekulako giroa plazan; dantzan eta kantuan guztiak ere. Poztu nintzen goizeko ordu biak aldera *Xalbadorren*

heriotzean kantuarekin gazte guztiak *a capella* abesten ikusita. "Mila esker, Aretxabaleta, sorpresa izan da!", esan zuen *Obaneuke* taldeko abeslariak bukaeran. "Baita niretzat ere!", pentsatu nuen.

Sanmartinak, gero sanmigelak, egunotan ere beteko dira plazak; atalateikoan, burua astinduz, edo, zergatik ez, Duplak dioen bezala tabu kulturalak hautsi, eta *perreoan*. Esaldi ezagunak dioen moduan: dantzan egiten duen herria inoiz ez da hilko!

BUKATZEKO



Ezkerretik hasita, Iñigo Louvelli, Antonio Tomé Ruiz eta Aitor Artolazabal. A.A.

Ciudad Realetik bueltan, eskerrak ematera

Iñigo Louvellik eta Aitor Artolazabalek orain urtebete Aizkorriin galduta zebilen Antonio Tomé-ri lagundu izanak istorio polita utzi du. Arantzazura jaisten lagundu eta autoz eramane zuten Agurainera. Orain, Antonio Ciudad Realetik etorri da eskerrak ematera

Xabier Urzelai ARETXABALETA

Aretxabaletan bizi dira Iñigo Louvelli eta Aitor Artolazabal, eta duela hamabost egun espero ez zuten bisita izan zuten. Istori honen berri emateko, baina, urtebete egin behar da atzera, 2022ko irailaren 16ra, hain zuzen.

Artolazabalek eta Louvellik San Martinak tarteko jai-eguna zeukatenez, egubakoitz hura

Aizkorriira igotzeko aprobetxatu zuten. Goian behe-laino itxia zegoen, eta tontorreko aterpetxera sartu ziren hamaiketako egitera, zer eta bizkarrean motxila handi bat zeraman gizon bat azaldu zen arte. Ciudad Realeko Antonio zen. "Erromes bideko etapa solte batzuk egitera etorri nintzen. Goizean Zegamatik irten nintzen Agu-

rainera iristeko asmoz. Han neukan lo egiteko lekua hartuta. Igoeran San Adriango tuneletik pasatzea zen nire asmoa, baina nahastu egin nintzen, eta gorantz egin nuen, tontorrean azaldu nintzen arte", dio Antoniok telefonoaren beste aldetik. Ordurako larritzen hasita zegoen Antonio, zorua labainkor zegoelako eta inguruan amildegiak

ikusten zituelako. Zegamako aterpetxeko arduradunari ere abisua eman zion, galduta zebilela esanez. "Hori ikusita, gurekin Arantzazura jaisteko esan genion, eramango genuela autoz Agurainera", dio Artolazabalek. Ez zuen ezetzik esan.

Goitik beherako bidea berri-kerarako aprobetxatu zuten, eta Antoniok aitortu zien urtebetez eguna zuela –64 urte betetzen zituen–. "Urbiako fondan sagardoa edatera gonbidatu gintuen, eta guk gazta zati bat oparitu genion. Handik Agurainera eramane genuen eta etxera itzuli ginenerako, arratsaldean, etxe-koak eta lagunak txantxetan ibili ziren esaten Antonioren istorioa aitzakia ederra izan zela zela eguna libre hartzeko".

Aretxabaletan azaldu den arte

Antioniok duela hamabost egun 600 kilometrotako bidaia egin zuen Aretxabaletara etortzeko. "Ez nintzen euren izenekin ondo gogoratzen, eta ez nuen euren telefonorik. Aretxabaletan hartu nuen ostatu eta eguna pasa nuen tabernarik taberna euren bila. Mezetara ere joateko asmoa nuen, badaezpada, han egongo zirelakoan...", dio barrez. Hala-ko batean Aitorrekin topo egin zuen arte. "Berehala konturatu nintzen nor zen", dio Artolazabalek. "Pena izan zen Iñigo kanpoan zegoela asteburu pasa". Domekan Kurtzebarrira igo ziren Aitor eta Antonio, "Izugarrri gustatu zitzaidan ibilbidea", dio Antoniok. Eta astelehenean bai, lanera joan aurretik elkarrekin gosaldutako hiruek. Datorren astean Moncayora joateko asmoa du Antoniok, egingo du lagun bat han ere.

fundación columbus

RenHacer Jaialdia 2023
ARANTZAZU | IRAILAK 9-16
ONGINTZAZKO KONTZERTUA

Gozatu musikaz eta aldatu gaixotasun arraroak dituzten adingabekoen bizitza

Euskadiko Orkestra | **Mahler: 2. sinfonia 'Pizkundea'** | **Donostiako Orfeoia**

ARANTZAZU | IRAILAK 16

María José Montiel | Mezzosopranoa | Miren Urbeltza-Vega | Sopranoa | Ángel Luis Quintana | Txeloa Jesús Mozo Celmenero | Akordeoia | Ramón Tebar | Musika zuzendaria

EROSI ZURE SARRERAK | **PARTE HARTU 'O ILARAN'**

12:00
Arantzazuko kriptak
Matinée kontzertua

19:00
Arantzazuko Santutegia
Mahler: 2. sinfonia 'Pizkundea'